

LEHENGO ETA ORAINGO ATAUN
“XVI. mendetik XXI. mendera
bitarteko lanbideak”

1

Alaitz Imaz Arrondok,
Inazio Munduate Arruabarrenak
artxiboetan aurkitutako dokumentuetatik

LEHENGO ETA ORAINGO
ATAUN

XVI. MENDETIK XXI.
MENDERA BITARTEKO
LANBIDEAK

Alaitz Imaz Arrondo



ATAUNGO UDALA

**XVI. mendetik XXI.
mendera bitarteko lanbideak**

Alaitz Imaz Arrondo
2019

© **Ataungo Udala 2019**

Egilea: Alaitz Imaz Arrondo

Artxibo eta dokumentazio lana: Alaitz Imaz Arrondo eta Inazio Munduate Arruabarrena.

Azaleko irudia: Xanti Iruretagoiena Elorzak "Ataun 400. urteurrena" proiekturako egindako deigarria da.

Azalaren diseinua: Garazi Etxeberria Barandiaran

Zuzenketak: Bidera zerbitzuak (Berria Taldea)

Argitaletxea: Cooperación editorial, S.L.

ISBN: 978-84-16925-11-7

Lege gordailua: M-8784-2019

Debekatuta dago, legean aurrikusitako kasuetan izan ezik, liburu honen erreprodukzioa, banaketa, komunikazio publikoa eta eraldaketa egitea jabetza intelektuala duten titularren baimenik gabe. Aipatutako eskubideak haustea jabetza intelektualaren kontrako delitutzat har daiteke (Kodigo Pena leko 270 art. eta ondo.)

Hitzaurrea

Ataungo alkatea naizenez, niri dagokit herritarren izenean liburu hau ataundarrei eskaintzea. Herritar guztioi, baina bereziki Inazio Munduateri, haren esfortzurik gabe ez baitzen argitaratuko.

Inazio Munduateren borondateari eta lanari esker ditugu Ataungo datuak herritarren esku. Inazioren helburua zen iragana ezagutzea oraina hobeto ulertzeko, eta, batez ere, etorkizun hobea eraikitzeko.

Iragana ezagutu behar zela nabarmentzen zuen Inaziok behin eta berriz. Hori dela eta, bizitza osoan aritu zen herriaren datuak eta pasarte historikoak biltzen. Hari zor diogu informazioa artxiboetan galdua geratu ordez herritar guztion eskura jartzea.

Ondarea da aurreko belaunaldiengandik oinordetzan hartu eta herriari nortasuna ematen dioten ondasunen multzoa. Ondare hori guztiona izaten jarraitzeko, zaindu egin behar dugu, eta datozen belaunaldiei transmititzeko konpromisoa hartu.

Memoria historikoa herri baten memoria da, kolektibo baten testigantza eta ondarea. Horregatik, guztioi dagokigu memoriari garrantzia ematea. Inaziok oso argi zuen hori eta haren oroimenean argitaratu dugu eskuartean duzun liburua.

Liburu honi Joana Etxezarreta Odriozolak eman zion hasiera eta Alaitz Imaz Arrondok ekoiztu du. Liburuaren arima, ordea, Inazio Munduate izan zen; horregatik gure errekonozimendua eta esker ona.

Izan zirelako gara eta garelako izango dira.

Asier Rodriguez Etxeberria

ESKERTZA

Nire eskerrak adierazi nahi dizkiot Ataungo Udalari, herriko memoria historikoa biltzeko Inazio Munduate Arruabarrenak hasi zuen lanarekin jarraitzeko aukera emateagatik. Ioana Etxezarreta Odriozolari, nire aurretik lan honi bere aletxoak jartzeagatik eta laguntzeko prest egoteagatik. Inazioren emazte eta alabei, berak egindako lan guztia nire esku uzteagatik. Udaletxeko lankideei, bidean sortutako zalantzak argitzeagatik eta blokeo momentuetan aurrera jarraitzeko indarra emateagatik. Karmele Aierbe Muxikari, proiektuarekiko bere ilusioa transmititzeagatik. Joxe Bikuña Agirrerri, bere jakintzak helarazteagatik, zalantzak izan ditudan guztietan laguntzeko prest egoteagatik eta lana irakurri eta zuzenketak egiteagatik. Amaitzeko, ez ditut eskerrak eman gabe utzi nahi, modu batera edo bestera, kamera aurrean edo atzean beraien bizipen eta oroitzapenak kontatu dizkidatenak. Bereziki: Joxepa Aierdi Aldasoro, Adelita Apalategi Arratibel, Jexuxa Barandiaran Eskisabel, Sabino Auzmendi Arratibel, Maria Sukia Izaskun, Migel Mari Jauregi Apalategi, Iñaxi Maiza Arratibel, Maitane Aizpurua Urrestarazu, Aitor Aldasoro Sukia, Marijo Galparsoro Auzmendi eta Iñaki Galparsoro Munduate.

Eskerrik asko guztioi Ataunen, zuon historia eta istorioak kontatu eta biltzen laguntzeagatik. Zuen kontakizunekin herriaren historia ezagutzeko aukera emateagatik. Jarraitu horrela, pausoz pauso, zuen herriaren historia sortzen.

Aurkibidea

Sarrera	9
Albaitariak eta errementariak	12
Alondegia	17
Argindarra	27
Elizalde errota	27
Errota berri	28
Arrondo	29
Arratetako errota.....	29
Errotatxo.....	30
Urkuola.....	30
Elektra Arrateta, SA	31
Arrandegiak	35
Artzaintza	37
Aurrezki-kutxa	39
Barberuak eta ile-apaindegiak	42
Basogintza	44
Danbolinteroak	57
Dendak	60
Ehungintza eta zapatagintza	73
Lihorearen industria	73
Artilearen industria	77
Jostunak eta sastreak	78
Larruaren erabilera.....	80
Zapatagileak	81
Garraioak	86
Harginak	92

Harrobiak	94
Kablegintza.....	97
Korreotza edo postagintza	102
Mataderoa eta harategiak	105
Meategiak	114
Neskameak.....	116
Okindegiak	118
Ostatua	125
Osasungintza	129
Sendagile tituludunak	130
Zirujaua	133
Botika	133
Santiago ospitalea	136
Erremedio bainuetxea	138
Optika	145
Suhiltzaileak.....	146
Tabernak	148
Teileriak	157
Telefonia	159
TESTIGANTZAK	161
Maria Sukia Izaskun eta Aitor Aldasoro Sukia (Troskaeta, San Martin) .	163
Migel Mari Jauregi Apalategi (Kaxeta Etxea, Aia)	168
Maitane Aizpuru Urrestarazu (Errotaundi, San Martin)	171
Iñaxi Maiza Arratibel (Lizarburu baserria)	173
Iñaki Galparsoro	175
Inazio Garmendia Jauregi (Itsasondo)	176
BUKAERAKO OHARRA.....	179
BIBLIOGRAFIA	181

Sarrera

Ataun Gipuzkoako herria da, hego-mendebaldean Nafarroarekin muga egiten duena. Agauntza ibaiak zeharkatzen ditu herriak alderik alde dituen 14 kilometroak, eta haren ibilguan kokatu dira historian zehar auzoak eta etxeak. Azalerari dagokionez, 59 km² ditu, Enirio-Aralar eta Intsutiko mankomunitateko partaidetzak kontuan hartu gabe. Ezaugarri horiek zerikusi handia izan dute herriaren eta herritarren izaeran nahiz historian.

Azalera handikoa bada ere, herria mendi arteko haran batean dagoenez, herriko lur gehienak toki malkartsuetan daude, ibai inguruko ordeketan dauden gutxi batzuk izan ezik. Hala ere, tradizionalki herritarren bizibide nagusia nekazaritza izan da, baina ez bakarra. Herri inguruko basoetan zuhaitz ugari daude, eta haien ustiapena izan da, urte luzez, ataundarren diru-iturri nagusia. Modu zuzenean edo zeharka, basoak lanpostu asko sorrarazi ditu: baso-langileak, ikazkinak, itzainak... Basolanak udan egiten zirenez, negua baserriko lanetan igarotzen zuten gizonek, edota Nafarroako soroetan garia biltzen. Dena den, baserrietako lanena sendi osoaren egitekoa izaten zen, eta emakumeak izan ohi ziren, maiz, baserria aurrera ateratzen zutenak. Sabino Auzmendi Arratibelek ere horrela nabarmendu zigun: *emakumek, emakumek lan asko eitten zon baserrin!*

Baserriko lan neketsuak egiteko aurrerapen teknologikoak azken urteetako kontua dira. Duela ez askora arte, lurra lantzeko, garraiorako, laboreak ereiteko eta abarretarako, abereak erabiltzen zituzten (idiak, astoak, behiak, zaldiak...).

1960. urte inguruan zenbait labore lantzeari utzi zioten —besteren artean, artoa eta garia—, eta, ondorioz, baita ogia etxean egiteari ere. Horrekin batera, poliki-poliki, alboratzen joan ziren ordura arte mantenturako oinarrizko izan zituztenak, etxeko behien esnea, gaztainak eta taloak. Ohiturak aldatu ahala, norberarentzat etxean ekoizten zirenak dendetan erosten hasi ziren, eta Ataunen horretarako aukera handia egon zen, herrian denda ugari izan baitira azken 100 urteetan, janari,

edari nahiz egunerokoan behar ziren gaiak saltzen zituztenak, eta gaur egun ere badira.

Kontsumo ohiturak aldatu eta baserriko lanak alboratzean, industrializazioak zeresan handia hartu zuen. Izan ere, eskualdean lantegiak sortu ahala, Ataungo baserritarrak berauetan sartzen hasi ziren. Lana besterik ematen ez duten baserrietan aritzea baino erakargarriagoa zen fabrika zortzi ordu lan egin eta soldata irabaztea. Gainera, esaten dutenez, baserritarrak berehala hartzen zituzten lantegietan, baserritar izate hutsagatik; langile finaren fama baitzuten.

Orain ezagutzen dugun Ataun aldaketen eta garapenaren ondorio da. Gizartea denboraren poderioz nola aldatu den jabetzeko, 1923an Ataungo Mikelete postuan deklaraturako ogibideen zerrenda¹ jaso dugu. Izan ere, gaur egun egiten den antzera, herriko lantegiek eta autonomoek hor eman behar izaten zuten beraien aktibitatearen eta produzitzen zutenaren berri. Dokumentu horiei esker jabetu gaitezke urte gutxian zenbat aldatu ziren gure herriko kontsumo ohiturak.

1923ko ZERGA AITORPENA			
ZERGA-EMAILEA	BIZILEKUA	AKTIBITATEA	AITORTZA
Arana Navarro, F.	Txomiñonea	Aroztegia	
Altolagirre Agirre, B.	Zapataria	Aroztegia	
Apalategi Beraza, E.	Juanikonea	Igeltserotza	
Barandiaran Urdangarin, F.	Donjuanene	Igeltserotza	
Auzmendi Erauskin, J. R.	Graziña zarra	Linterneritza	
Irastorza Olazabal, J.	Arrateta	Linterneritza	
Agirre Peña, J. M.	Grazina berri	Sastrea	143 traje eginak
Garaialde Zeberio, M.	Artilazpikoa	Txokolategintza	2.500 kilo eginak
Korta Aierdi, E. (emakumea)	Hospital	Kandelagintza	250 kandela eta 6 kilo kotoi

1. AGG/GAO.JD.IT 3176

Aierbe, I.		Zapatagintza	70 pare bortzegi
Imaz, F.		Zapatagintza	28 pare bortzegi
Zubia, R.	Zapataria	Zapatagintza	93 pare zapata
Dorronsoro, J. I.	Donjuanetxiki	Espartingintza	330 pare alpargata
Etxeberria Otaño, J. I.		Espartingintza	624 pare alpargata
Gaztañaga, N.	Ordizia	Harrobia	1500 m3
Altolagirre Arrese, M.	Errota zahar	Argindarra	11.600 kW
Gaztañaga, N.	Ordizia	Argindarra	980 kW
Aiestaran Murua, B.	Errota berri	Errota	87.500 kilo gari 14.400 kilo arto 4.800 kilo zahi
Jauregi Errazkin, J. B.	Aiako errota	Errota	49.000 kilo gari 38.646 kilo arto 21.000 kilo zahi
Pildain Gorostarzu, T.	Larrunza errota	Errota	2.500 kilo gari 85.000 kilo arto 500 kilo zahi
Altolagirre Arrese, M.	Errota zahar	Okindegia	35.000 kilo
Aiestaran Loinaz, A.	Arzubia	Okindegia	44.000 kilo
Barriola Albisu, Z.	Barriola-enea	Okindegia	90.000 kilo
Izagirre Peña, B.	Peñanea	Okindegia	43.200 kilo
Jauregi Errazkin, J. B.	Aiako errota	Okindegia	73.800 kilo
Etxeberria Mendia, L.	Urreta	Errementaritza	300 aizkora/200 aitzur
Zufiaurre Imaz, J. M.	Sutegi	Errementaritza	400 aizkora
Zurutuza Arratibel, F.	Etxe zuri	Errementaritza	500 aizkora / 100 aitzur eta 4.000 ferra
Imaz Apalategi, D.	Santiagone tx.	Errementaritza	Gurdi eta perzkintza

Albaitariak eta errementariak

Abereak sendatzen eta ferratzen zituztenei deitzen zitzairen *albeyterrak*. III. mendean, Kordoban Abd ar-Rahman III.a Kalifa mahomatarra eta ondoren haren seme Al-Hakam II.a agintean zeudela, tratadista adituak eta jakintsuak sortu ziren abereen eta nekazaritzaren munduan. Horietako bat izan zen Ibn al-Baitar, eta hortik dator abereak sendatzen aritzen direnen izena.

Albaitarien lehen aipamenak Erdi Arokoak dira. Garai hartan ez ziren ugari izaten langintza honetan aritzen zirenak, nahiz eta ikasketa eta titulu gabekoak denak. Haien zerbitzuak erregeek eta handikiek bakarrik kontrata zitzaieten eta.

Hasiera batean, albaitariak batik bat ferratzaile lanetan aritzen baziren ere, musulmanak penintsulatik bota eta Errekonkistaren ondorenean (XV. mendean), euren ezagutzak hobetu eta animalien zaintzan espezializatzen hasi ziren. Ondorioz, Gaztelako Isabel II.aren garaian ikasketak eta titulazioak sortu ziren. 1475eko maiatzean Toledon eman zuen *Real Tribunal de Protoalbaiterato* aginduaren bidez, bi pertsona izendatu zituzten Madrilen azterketak egiteko. Euskal Herrian tribunal horri buruzko lehen aipamena XVI. mendekoa da; Lopez de Zamora jaunak idatzitako liburu batean ageri da Nafarroako erreinuko tribunaren aipamena.

Albaitaritzea ikasleek ezagutzan eta heziketan maisu ziren aholkulariekin lan eginez ikasten zuten ofizioa. Hasiera batean zazpi urteko ikasketak eskatzen zizkieten, baina, inork ez zituenez osorik betetzen, lau urtera murriztu zituzten, Ataungo Notarioaren aurrean izenpetutako hitzarmenean ikus dezakegunez.

XVIII. menderako, galde-erantzunez osatutako liburu teorikoak azaldu ziren, eta albaitaritzea ikasleak horietaz baliatzen ziren beraien ikasketak egiteko. Azterketak gainditzen zituztenek, ondoren, odol garbikoak zirela egiaztatzen zuen agiria lortu behar zuten, eta, horrez gain, zin egin ez zirela erregeak gaitzetsitako talde bateko kide, agertutako

kasu arraro guztien berri emango zietela erregeari eta beharrezkoa zen kasuetan pobreen abereak ere tratatuko zituztela.

XVII. mendean, abere asko hil ziren Frantzian eta Europa osoan guden nahiz izurriteen ondorioz, batez ere zaldiak, eta neurriren batzuk hartu beharra ikusi zuten; kezka horren ondorio sortu ziren albaitaritzako eskolak. Goiztiarrenetakoak Lyongoa (1762), Vienakoa (1777), Berlingoa (1790) eta Madrilgoa (1793) izan ziren.

Abereen osasunaz arduratzeaz gain, albaitarien zeregina zen herrietako harategietan saltzen zen haragiaren kalitatea zaintzea ere, eta horregatik *haragiaren ikuskari* ere esaten zitzaien. Ikuskari haiek bete beharreko arauak 1859ko otsailaren 24an ezarri zituen Enrique Marzo Balaguer Gobernu ministroak. Arau horien arabera, udaletxe orok izan behar zuen haragi-ikuskaritza egingo zuen albaitaria. Baina udal gehienek ez zioten jaramonik egin betebegar hari, bai ordu arteko albaitariak ematen zizkien zerbitzuekin gustura zeudelako, bai albaitari gutxi zeudelako eta bai zailtasun ekonomikoak zituztenez ezin zitelako gastuei aurre egin. Horrela, bada, lanpostua betetzeko inor ezartzen ez zuten herrietarako arduraduna, maiz, Gobernadore Zibilak hautatzen zuten, tokiko udalaren borondatearen aurka.

1915eko *Epizootien legearen* arabera, 2.000 biztanle baino gehiago zituzten herriek derrigor izan behar zuten udal-langileen artean haragi-inspekzioaz eta abereen osasunaz arduratuko zen norbait. Hortaz, Ataunen ere lanpostu hori sortu beste erremediorik ez zuten izan; 1910ean 2.884 biztanle baitzituen eta 1920an 2.781. Udalek legea gaizki ulertu, eta albaitari postua ken ez zezaten, 1915eko azaroaren 30ean Errege Agiri bat argitaratu zuten.

Udalei baimena eman zitzaien albaitariak izendatzeko, baina deialdi irekia egin behar zuten, zertarako eta aukeraketan gardentasuna zein berdintasuna ziurtatzeko eta era berean monarkia garaiko eta Primo de Riveraren diktadura garaiko kazikismoa amaitzeko. Gauzak horrela, 1941etik 1978ra, udaletxe batean albaitari postuan aritzeko, beharrezkoa izan zen oposaketak gainditu eta plaza lortzea.

Ataunen ere jende askok jardun zuen ofizio horretan. Bildu ditugun datuen arabera, 1696tik 1930era bitartean jaiotako 39 gizonek jardun zuten albaitaritzan; denak ez ziren ataundarrak, eta ataundar denak

ere ez ziren herrian bertan jardun. Hogeita hemeretzi horietatik hogeita zazpi ziren Ataunen jaioak, eta bitxikeria moduan aipatu nahi genuke Arrondo auzokoak zirela asko. Etxe berean albaitari bat baino gehiago ere izan zen, aitatik semeetara edota anaia artean transmititu baitzen ofizioaren bokazioa.

Kanpotik Atauna albaitari etorri zirenen artean gehienak inguruko herrietakoak baziren ere (Zegama, Ziordia, Tolosa, Lekunberri, Ordizia), Euskal Herriko beste eskualde batzuetatik etorritakoak ere izan ziren; esaterako: Zarauzkoak, Donostiakoak eta Atarrabiakoak. Baita Espainiako Leon probintziatik etorritako bat ere. Gaur egun, Atarrabia eta Zarautz etxe ondoan ditugula iruditzen bazaigu ere, kontuan izan behar dugu albaitari horiek XIX. mende amaieran egon zirela Ataunen, eta orduko garraio bide eta errepideek ez zutela zerikusirik gaur egungoekin. Beraz, herrien arteko distantziak, batetik bestera mugitzeko zeuden erraztasunak eta behar zen denbora ezin da oraingoarekin alderatu; denerako zailtasun gehiago zituzten.

Artxiboko agirietan ageri den lehen albaitari ataundarraren aipamena 1730ekoa da. Urte horretan, eskribauaren aurrean errementarien zereginak beteko zituela sinatu zuen Astigarraga auzoko Santiagone etxeko seme batek. 30 urte beranduago, 1760an, berriro ageri da haren izena agirietan, Ordiziako gazte bat baitzuen etxean albaitero eta errementari ofizioak ikasten.

Aurrez esan dugun gisan, XVIII. mendera arte ez zegoen albaitari ofizioa ikasteko eskolarik, ez eta eduki teorikoak ikasteko libururik ere. Ondorioz, oso normala zen jardunean ziren albaitarien etxeetara ofizioa ikastera joatea hala nahi zuten mutil gazteak. Nagusiek, ofizioa irakasteaz gain, ikasleen mantenuaz arduratu behar zuten. Horrela, bada, hitzarmenak irauten zuen urteetan (4-8 urteren bueltan izan ohi zen), nagusiak otorduak, ostatua eta urte horietan beharko zituen oinetako eta abarkak eman behar zizkien ikasleei. Hitzarmena amaitzen zenean, nagusiek gazteei diru kantitate bat eman behar izaten zieten; hasieran adosten zuten kantitatearen zenbatekoa. Diruaz gain, jasota dago kasuren batean gamuzazko galtza pare baten tratua ere egin izana, eta gertatzen zen ofizioa ikasteko hitzartutako lau urteak igaro ondoren ere gazteak maisuaren zerbitzura egoten jarraitzea.

XVIII. mende amaieran albaitari ikasketak egiteko eskolak jarri zituzten Madrilen. Badakigu 1760 ingurutik 1890 ingurura zortzi ataundar joan zirela hara ikastera, eta beste ataundar bat, berriz, irakasle joan zela. Aipagarria da ikasketak egitera Madrilera joan ziren garaian Astigarraga auzoko Paskiñaneko seme batek albaitari eta errementari titulu Gipuzkoan bertan atera izana. XX. mendean, ofizio hori ikasi nahi zutenek Madrilera ez, baina Espainiako hirietara joaten jarraitu behar izan zuten: Zaragozara joandako zazpi eta Leonen ikasitako bat ageri dira dokumentuetan.

Aipatu dugu ofizio horretan zihardutenek albaitari eta errementari lanak egiten zituztela, baina, animalien osasuna zaintzeaz gain eta horiei ferrak jartzeaz eta horretan aritzeko behar zen materiala egiteaz gain, haragizain betebeharra ere izaten zuten. Hau da, herrian saltzen zen haragiari osasun-kontrolak pasatzen zituzten. Horrez gain, herrian bertan hiltzen ziren abereei azterketak egin behar izaten zieten. Ez baitzegoen osasun-arloa arautuko zuen legerik, ez eta berau kontrolatuko zuen erakunderik ere. Udal bakoitzari zegokion herrian kontsumitzen ziren edari eta janarien egoera onean zirela kontrolatzea². Lanaren araberako soldata jasotzen zuten; gero eta animalia gehiago artatu, orduan eta soldata handiagoa.

1812ko Konstituzioan jaso zen, lehenengoz, haragi-ikuskari ariko zen norbaiten beharra zegoela udaletan. Kargu haren jabe egiten zenak, herrian sartzen ziren elikagai guztien kalitatea ziurtatu ez ezik, kontrolpean izan behar zuen pertsonen eta animalien osasuna arriskuan jar zezakeen zernahi gorabehera³. Ataunen, ordea, 1922ko urtarrilera arte ez zuten onartu haragi-ikuskariaren lanak egingo zituen inor, eta ez zuten beharrezkoa ikusi abereen osasunaz arduratuko zen norbait izatea. Urte horren bueltan erabaki zuen udalak albaitari plaza ateratzea. Deialdia egin ondoren, udal-ordezkariek eta herriko ganaduzaleak elkartu ziren ados jartzeko albaitariak bete beharreko baldintzez, egin-kizunez, eskubideez eta ordainsariez. Urte horretan berean apirilaren 1ean hartu zuen kargua plaza lortu zuen lehenak, azterketa gaindituta:

2. Etxaniz Makazaga, J.M. (2006)

3. Etxaniz Makazaga, J.M. (2006)

Nafarroako Atarrabiako V. Larrañeta Chatagnerrek, eta karguan egon zen 1934an Tolosara joan zen arte.

Ikasketa horiek sortu zirenetik ia 200 urte igaro diren honetan, ofizioa ikasi nahi duten gazteek Zaragozara, Leonera eta Madrilera joaten jarraitu beste erremediorik ez dute; Euskal Herrian dauden unibertsitateek ez baitute gradu hori ikasteko aukerarik ematen.

Alondegia

1640an, udal bakoitzak diru-iturri bat izan zezan, Erregeak baimendu zuen herrira sartzen ziren jeneroengatik zerga bat kobratzea. Horretarako, udal bakoitzak alondegizain bat izendatu eta leku bat pres-tatu behar zuen, *Alondegia* izenekoa, eta bertan kontrol- edo egiaztatze-lanak egiten zituzten.

Udalak bando bidez jakinarazi zien herritarrei aurrerantzean zergak ordaintzea beharrezkoa izango zela. Honela finkatu zituen balioak:

-Ardo karga bakoitza: hiru erreal

-Bi karga bakailao: hiru erreal

1726ko ekainean, Erregearen zerbitzuek udalei baimena eman zieten ondorengo zergak⁴ kobratzeko:

-Ardo edo pattar karga bakoitza: zilarrezko 5 erreal.

-Bakailao, zezina edo itsas-aingira karga bakoitza: bi erreal eta erdi.

1818an Ataungo Udala herritar askorekin zorretan zegoen; izan ere, Espainiako erregea zor handitan sartu zen bere aberriaren alde egindako gudak zirela medio; besteren artean, gerran parte hartu zuten gudariei mantenua emateko. Egoera goibel hartan, dirua jaso zain zeuden hainbat herritarrek mehatxu egin zioten udalari zorrak berehala ordaindu ezean auzitara eramango zutela.

Zor horiek ordaindu eta etorkizunerako egonkortasun ekonomikoa lortzeko, udalbatzarrak baimena eskatu zion Foru Aldundiari herrian zerga batzuk ezartzeko. Horrela, bada, zergak jarri zizkieten ardoari, pattarrari, tabernei, artaldei, kareharri-ateratzei, sendagilei, zirujauai, maisuei, herrizainei, mendizainei, danbolinteroei eta abarri. Edarien eta beste zerbitzu batzuen zergak alondegian ordaindu behar ziren, eta gero arduradunak agertu behar zizkion kontuak udalari. Baina beti ez zen

4. AUA. 039-07

horrela gertatzen. 1824tik 1827ra hainbat ataundarri salaketak jarri zizkieten alondegian deklaratu gabeko ardoa aurkitu zitelako etxean⁵. Horrelakorik gerta ez zedin, aipatutako urtean bertan Gipuzkoako Poliziak ohar bat bidali zuen probintziako udaletara, ezen deklaratu gabeko merkantziak garraiatzen norbait harrapatzen bazuten alondegian hustera behartuko zutela⁶.

Herrian sartzen ziren jan-edari guztiek, kontsumitu aurretik, alondegitik pasatu behar zuten, eta produktu bakoitzari zegokion zerga ordaindu. Hornitzaileek normalean alondegian uzten zituzten ekartzen zituzten produktuak. Bestalde, herritarrek produkturik erosten bazuten Ordiziako azokan eta herrira autobus gainean ekarri, alondegizainak kontrolatzen zuen hori, autobus gainera igota eta bertan zeuden saskiak miatuta.

Esan bezala, herrian saldu nahi zen ardoa alondegira eraman behar zen neurtzeko, eta zerga ordaindu ondoren banatzen zen. 1821ean, ordea, herritarrek ardoa erosteko orduan erraztasun gehiago izan zezaten, sakabanatuta zeuden baserrietara saltzea baimendu zuten.

Gauzak horrela, San Gregorio auzoko bi etxetan eta Arrondoko eta Aiako etxe banatan ardoa saltzen hasi ziren. Zerbitzua eskaintzeagatik, herritar haiek zergak ordaindu behar izaten zizkieten Aldundiari horrek zehaztutako egunetan. Horrez gain, San Gregorioko bi ardo saltzaileek udalari hitzeman zioten ez zutela ardo kantitate handirik salduko, ez eta ezordutan lokalean inor edukiko ere.

Pattarraren salmenta gero eta ugariagoak sortzen zituen kalteekin kezkatuta, 1883ko urtarrilaren 9an udalak edari horren salmenta galarazi zuen. Bide batez, ardoari ezartzen zitzaion zerga kendu zuen; hortik aurrera, edozein herritarrek bere etxean erosi ahal zuen ardoa.

Herrian zegoen alondegia txiki geratu zenez, 1868ko apirilaren 5eko batzarrean egoerari irtenbidea aurkitu behar izan zioten, eta aipatutako batzarrean bi aukera eztabaidatu ziren: alondegia berria udaletxearen beheko solairuan jartzea edo alboan berri bat egitea. Erabakia hartu aurretik, Paskiñaneko J. J. Zubizarreta Agirreri eskatu zioten behar ziren planoak eta aurrekontuak prestatzeko.

5. AUA, 198-13

6. AUA, 299-18

1868ko ekainean, Foru Aldundiak udala behartu zuen neurketak sistema metriko dezimalaren bidez egitera. Hori zela eta, Baionatik bas-kula berria ekarri zuten 564 erreal ordainduta. Ondoren, Aldundiak beste agindu baten bidez adierazi zuen atzerago jarriko zutela indarrean sistema berria, urtarrilean, hain zuzen.

1868ko abuztuaren egin zen alondegia berria eraikitzeke enkantea, eta ardura hori herritar bati eman zioten, 12.100 errealean truke. Alondegia-ren planoetan agertzen zenez, Arizkorreta baserriko bidean sartzen zen eraikina zertxobait, eta, ondorenean izan zitezkeen sesio edo liskarrak ekiditeko, baserriaren jabeari eskutitz bat bidali zioten nola geldituko zen ikustera joan zedin.

1872an Foru Aldundiak probintzia mailako zergak ezartzeko asmoa agertu zuen. Horren berri eman zuten 1872ko uztailaren 25eko udalbatzarrean; Ataunek urteko 44.260 erreal ordaindu beharko zituen. Diru kopuru hori nondik atera zezaketen pentsatzen jardun ondoren, beste biderik ikusten ez zutenez, isunak jartzea erabaki zuten. Besteak beste, herritar bakoitzak zituen abereen zerrenda egiteko orduan zerbait ezkututzen bazuen, honako isun hauetako bat ezarriko zitzaion:

- 60 erreal: urte bete baino gehiagoko abelgorri, mando edo zaldi bakoitzagatik.
- 20 erreal: bi urtera iristen ez zirenentzat.
- 30 erreal: urtebete pasatako txerriarengatik.
- 10 erreal: urtebetetera iristen ez zirenen txerriengatik.
- 5 erreal: ardi bakoitzagatik.

1877ko maiatzaren 8an egindako udalbatzarraren erabakiz, alondegia urtebetetarako enkantean atera zuten 6.000 errealean; hau da, 1.500 pezetan (9,02 euro). Horretarako honako baldintza hauek ezarri zituzten:

- 1) Herrira sartzen diren produktu denak alondegira eraman behar dira, bestela kontrabandokotzat hartuko dira.
- 2) Foru Aldundiaren baimenik gabe ezin da ardorik eta pattarririk saldu.

- 3) Enkantea hartzen duenak ardoagatik 100 litroko 2 pezeta ordaindu beharko ditu, 25 gradutik beherako pattarragatik 4 pezeta, eta 25 gradutik gorako pattarragatik, 25etik gorako gradu bakoitzeko, 25 zentimo gehiago.
- 4) Kontrabandoan bahitutakoen kasuan, 10 litroraino, 10 pezetako isuna ordainduko dute, eta, gehiago badira, 20 pezeta 12 litroko.
- 5) Pattarraren kasuan, bi litro arte 40 erreal ordaindu behar dira, hau da, 10 pezeta, eta gehiago denean 12 pezeta bi litroko.
- 6) Enkantelariak gogokoa duen bermatzaile edo fiadore bat eskaini behar dio udalari, eta ituna argitaratzean sortutako gastuak enkantelariaren kontura izango dira.

1878ko azaroan udaletxean egin zen bileran, urriaren 2an, zergalariari gertatukoaren berri jaso zuten:

1878ko azaroan herriko zergalariak susmoa zuten herriko bi tabernari ardoarekin tratuan ari zirela ezkutuka. Zergalariak, errejidoreak eta mikeleteak susmoa zuten Ezkurdiategi tabernako nagusiak Gabillenetik bi zahagi-ardo eraman zituela batere aitortu gabe. Susmoak egiaztatze aldera, Ezkurdiategi tabernara joan ziren, baina ez zuten zahagirik aurkitu. Horrela, bada, etxeoandreari galdetu zioten ardoa nondik ekarria zen. Hark erantzun zien aurreko egunetako batean Gabillenetik eraman zutela eta auzoko erretore etxean ere bazeudela beste bi zahagi-ardo.

Aurrez aipatu bezala, herrian sartzen ziren produktu denek lehenengo alondegiko kontrola pasatu behar zuten. Zahagi-ardo haien jatorria zein zen ez zutenez ezagutzen, botila batean ardo pixka bat jartzeko eskatu zioten etxeoandreari, gero alondegian

zutenarekin alderatzeko. Alondegiko ardoa eta Ezkurdiategi tabernakoa alderatu ostean, berehala jabetu ziren biak ezberdinak zirela, eta, ondorioz, taberna batek besteari ardoa saldu ziola parte eman zuten udalean.

Horrela, bada, jokabide horrek arauak hausten zituenez, udalak tabernariari 20 pezetako isuna jarri zion. Erretorearen etxean zeuden bi zahagi-ardoei zegokienez, ordea, etxe partikularrean zeudenez, ez zutela legerik urratzen esan zioten udalbatzarrari.

Horrelako arau hausteak oso ohikoak ziren XIX. mendeko Ataunen. Ondorioz, zergalarien miaketak eta kontrolak ere ugariak izan ohi ziren.

1878ko abenduan ere gertatu ziren hainbat tabernatan legez kanpoko ardo salerosketak. Taberna batean alondegitik pasatu gabe eskuratutako 13 litro ardo bahitu zituen alondegizainak, alondegikoarekin zerikusirik ez zuela eta. Egun berean, beste taberna batean 20 litro eta Aian ere 117 litro bahitu zituen. Bere burua zuritzeko, alonderoak esaten zuen zuzentasuna ezarri nahi bazen indarrean zeuden lege eta aginduak bete behar zirela. Gertaera haiei zegokien zigorra ipintzeko, egun gutxira udalbatzarra elkartu zen, frogak jaso eta errudunei zegokien zigorra ezartzeko.

Lehen esan bezala, udalak urtero enkantean ateratzen zuen alondegiko zerbitzua, baina 1879an herritarrik ez zenez prest agertu karguaren ardura hartzeko, udalak bere gain hartu beste erremediorik ez zuen izan. Horrela, bada, handik aurrera, udala arduratu zen alondegizaina izendatzeaz. Urteko 275 pezetako soldata jarri zuten, eta bahitutako produktuei ezarritako isunak honela banatuko zirela: erdia mikeletearentzat eta beste erdiaren heren bat berarentzat, bigarren herena mendizaintzailearentzat eta hirugarren zatia udalarentzat.

Hurrengo urtean, hau da, 1880ko uztailaren 11n, herrian bi taberna irekitzea erabaki zuten udalbatzarrean: bat San Martinen eta bestea

San Gregorion. Arduradun, berriz, auzo bakoitzeko mutil bana izendatu zituzten, honako baldintza hauetan:

- 1) Ataungo Udalak behar hainbat ardo eta pattar erosiko zuen, eta, saldutako zen 12 libra eta 300 gramoko, saltzaileari 3 erreal (0,75 pezeta) emango zitzaion.
- 2) Bi tabernetan ardo litroa 0,75 pezetetan salduko zen.
- 3) Tabernariak udalak ipinitako balioetan saldu behar zuten edaria.
- 4) Beste tabernetan baino 0,06 zentimo merkeago saltzeko ahaleginak egingo zituen udalak.

1882an, udalak alondegizaina izendatu zuen, eguneko 0,50 pezetako soldatarekin. 1886ko ekainean, ostera, ez zen inor agertu alondegiairen ardura bere gain hartzeko prest, eta, ondorioz, udalak ordura arte egon zenarekin negoziatu behar izan zuen karguan jarrai zezan. Azkenean, bi aldeak ados jarri ziren. Besteak beste, soldata hobetu zioten, eguneko 1,25 pezeta. Bahituriko produktuei ipinitako isunak honela banatu behar zituzten:

- 1) Bahiketa alonderoak egindakoa, isunaren erdia mikeletearentzat izango zen eta beste erdiaren bi heren beretzat. Gelditzen zen herena, berriz, udalarentzat.
- 2) Mikeleteek bahituriko gaien kausan, berriz, eurentzat isunaren erdia izango zen, eta beste erdia erdibana banatuko zuten udalak eta alondegizainak.
- 3) Sarrera-irteeren kontuak eraman behar zituen; edozein tabernarik alondegian zeuzkan jeneroen berri jakin behar zuen; zergak bildu behar zituen, eta eskatutakoan udalari kontuak argitu behar zizkion.

Alonderoak, tarteka, bere egitekoak ondo betetzen zituela frogatzeko, txostena bidali behar izaten zion udalari, egindakoaen berri jasota. Horren adibidea da 1883ko abuztuaren 13ko udalbatzarrean irakurri zuten gertaera hau:

Honelako kasu gehiago ere gertatu ohi ziren, eta, banaka-banaka, isuna ipini zietenak ugari ziren.

“Atzo gaueko 09:15etan Antonione etxearen aurrean zaldi gainean zetorren batekin topo egin nuen, eta konturatu nin-tzen konkoro edo bulto bat zeramala.

Inguratzean, gelditzeko esanez hasi nintzenean, konkorra bota eta arrapaladan edo trotean ihes egin zuen, eta ez nuen ezagutu.

Segidan, aipatutako konkoro hori alondegira eraman nuen, eta Urkiolako P.M. Aierdi Irazusta eta Zubikoetako J.M. Altolagirre Rezola errejidoreen aurrean ireki barruan zegoena ikusteko: ardo beltzez betetako 45 kiloko zahagia“.

Alondegia beste zeregin bat izaten zen bertatik pasatzen ziren edo bertan zeuden produktuen zerrenda egitea. Ondoko argazkian ikus daitezke 1886ko datuak⁷.

1888an alondegia zaintzearen arduradun zegoenak udalari jakinarazi zion kargua utziko zuela soldata handiagoa nahi zuelako. Gauzak horrela, ekainean alondegizain berria izendatu zuten, eguneko 0,50 pezetako soldatarekin. Baina badakigu karguan ez zuela askorik iraun. Hurrengo urtean alondegirako beste arduradun bat izendatu baitzuen udalak; eguneko pezeta bateko soldatapean.

Seg: 220-26

Recaudacion de arbitrios municipales del vino, aguas dulces y acvite, en esta alhondiga de esta Villa de Maun.

Existencia en 1.º de Julio de 1885 a 1887.

<i>Casos</i>	<i>Nombres y Apellidos</i>	<i>Ardo</i>	<i>Ardo</i>
		<i>litros</i>	<i>litros</i>
<i>Ardo</i>	<i>D. Pedro Aierdi</i>	4	10
<i>Ardo</i>	<i>J.ºn Antonio Barandiaran</i>	1	6
<i>Ardo</i>	<i>Miguel Puñal</i>	3	12
<i>Ardo</i>	<i>Proencio Borrondero</i>		68
<i>Ardo</i>	<i>J.ºn Ant.º Ordangorin</i>		15
<i>Ardo</i>	<i>Proencio Borrondero</i>		14
<i>Ardo</i>	<i>Tomás Ayestaran</i>	4	6
<i>Ardo</i>	<i>Miguel Di Saraga</i>		12
<i>Ardo</i>	<i>Francisco Amal</i>	5	24
<i>Ardo</i>	<i>J.ºn Ramon Apalategui</i>	3	
<i>Ardo</i>	<i>J.ºn Manuel Holaguirre</i>	12	6
<i>Ardo</i>	<i>Juan B.º Barrolabura</i>		6
<i>Ardo</i>	<i>J.ºn Martin Borrondero</i>	12	168
<i>Ardo</i>	<i>Agustín Aguirre</i>	26	23
<i>Ardo</i>	<i>Proencio Borrondero</i>	3	
<i>Ardo</i>	<i>J.ºn Antonio Borrondero</i>	30	70
<i>Ardo</i>	<i>J.ºn Felipe Cozquidadi</i>		5
<i>Ardo</i>	<i>J.ºn Pedro Corta</i>		3
<i>Ardo</i>	<i>Cipriano Angulo</i>	27	24
<i>Ardo</i>	<i>Cipriano Borrondero</i>		30
<i>Ardo</i>	<i>Agustín Borrondero</i>	3	26
<i>Ardo</i>	<i>J.ºn Felipe Ferrer</i>	6	
<i>Ardo</i>	<i>J.ºn de Borja Ferrer</i>	9	18
<i>Ardo</i>	<i>J.ºn A.º Borrondero</i>		12
	<i>Suma</i>	154	684

7. AUA, 220-26

Soldata bikoizketa hori zela eta, aurreko alonderoa kexu azaldu, eta erabakiaren aurka errekurtsioa jarri zuen. Urte berean, irailan, Erkidegoko komisioak arrazoia eman zion, eta udalak, alondegizain berriaren kargua baliogabeturik, aurrekoa izendatu behar izan zuen.

1900ean, Arinetxe Berriko I. Barandiaran Agirre izendatu zuten, ordura arte burdingile nahiz koplari zebilena, 1,50 pezetako soldatarekin, eta karguan egon zen harik eta 1921ean hil zen arte. Uztailean, hutsik geratu zen lanpostua betetzeko, baldintza hauek ipini zituen udalak:

- Arduradunak urteko 1.200 pezetako (7,21 euro) soldata izango du, eta hiru hilabeteka ordainduko zaio.
- Eskaera honako dokumentu hauekin osatu behar da:
 - Norberaren agiriak
 - Jokabide zuzenaren egiaztapena, alkateak izenpetuta
 - Alondegizain lanetan aritu izanaren egiaztapena.
 - Atxilotuta egon ez delako agiria, herriko epaileak egiaztatuta.
 - Soldaduska egindako agiria.
- Euskaraz dakitenek eta 23 urte betetako herritarrek izango dute lehentasuna.
- Aukeratuak hamabostetik zergak bildu behar ditu.
- Hileko hirugarren egunean, haragiaren, ardiaren, txerriaren, pisatzearen eta hiltegia ibiltzearen zergak bildu behar ditu.
- Arratetako herribidea ibiltzeagatik ordaindu beharreko bidesariaren berri agertuko du hiru hiletik.
- Etxe bakoitzeko kontsumoa hilero kobratu behar du.
- Alondegiairen ordutegia:
 - Maiatzetik irailera: goizetan 06:00etatik 12:00etara eta arratsaldetan 14:00etatik 20:00etara.
 - Urritik apirilera: goizetan 07:00etatik 12:00etara eta arratsaldetan 13:00etatik 19:00etara.
 - Zerbitzu hobeak emateko, udalak hartzen zituen erabakiak bete beharko ditu alondero berriak.

1921ean Upategiko M.M. Imaz Peña izendatu zuten alondegiko zereginetarako zein herriko danbolinterotako. Horrez gain, udaletxeko bigarren solairuko bizitza eman zitzaion, bere guraso eta sendiarekin bizitzeko, urtean 75 pezeta ordainduz. Bere eginkizuna betetzen saiatu zen, eta horren adierazgarri da 1925eko irailaren 28an udalari aurkeztu zion salaketa. Bertan aipatzen zuen Ordiziako azokatik zetorren autobusa miatzeko denborarik utzi gabe joan zela. Izan ere, herrira sartzen ziren jangaiengatik herriko zergak ordaindu behar zirenez, autobusa itxaron egin behar zuen, alondegizainak hura miatu bitartean. Baina Lazkaoko autobus gidari batek legea hautsi, eta bost pezetako isuna ezarri zion udalak. Jesusa Barandiaranek gogoan du Ordiziako azokan erosketak egin eta etxera bueltan zetozenean Alondegian zerbait ordaindu behar izaten zutela.

1927ko uztailaren 18an, Foru Aldundiak baimena eman zion Atauni txabola bat eraikitzeke Umarki deritzon gunean, eta bertan zergak biltzeko, baina asmoa ez zen gauzatu, eta alondegian jarraitu zuten zergak kobratzen.

1936an Espainiako gerra hasi zenean, herria hankaz gora jarri zen, baita bertako udal-antolamendua ere. Ordura arte Euskal Nazionalisten esku zeuden udal-karguak frankistek hartu zituzten eurentzat, eta horrek udal-langileei ere eragin zien. Estatuko Gobernadore orokorraren aginduz, 1937ko martxoaren 18an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, ohar bat agertu zen, Aldundiaren menpe zeuden funtzionario batzuk lanik gabe geratuko zirela Euskal Nazionalista izateagatik.

Ataungo udal-ordezkarri berriek ohar hori irakurri eta herriko langileen espedienteak aztertu ondoren, aho batez onartu zuten hainbat funtzionario euren karguetatik kentzea; tartean, M.M. Imaz Peña alondero eta danbolintero. Haren ordezkari F. Arana Navarro jarri zuten urteko 1.400 pezetako soldatarekin, baina. urte asko baino lehen, 1942ko maiatzean, Aldundiak ezarritako espediente politikoak bertan behera geratu zirenez, 1937an nazionalista izateagatik kargutik kendu zuten alondero berririo izendatu zuten alondero eta danbolintero.

1949ko ekainean izendatu zen azken alondero, Sariarteko P.J. Imaz

Zurutuza. Hainbat urteren buruan, zerga-kobrantza aldatu, eta alondetia itxi egin zuten. Eraikuntza itxirik, 2002an, bota, eta komunak eraiki zituzten bertan.

Argindarra

Elizalde errota

Etxe hori San Martin auzoan zegoen, elizaren inguruan. Gaur egun, desagertuta dago etxearen zati bat (errota izandakoa). Hari buruzko aipuak dokumentuetan XV. mende hasieratik ageri dira. 1894an berritu zuten, eta, harrezkero, Errotazar esaten diote.

Errota eta okindegia izan zen. Errotarriak mugiarazteko presa txiki bat zeukan Agauntza errekan, eta ura bide ertzetik bideratzen zuten kanal batean barrena aldaparoraino. Presa gainean ur putzu ederra sortzen zenez, ardi larruak eduki ohi zituzten beratzen, gero garbitzeko.

Aldaparoko uraren bidez mugitzen zituzten errotarriak gari- eta arto-irina ehotzeko, eta bide batez, Francis markako turbina mugitzen zuten 15 kilowatzen argindarra sortzeko. Inguruko etxeetara banatzen zuen elektrizitatea, baina bakoitzak ezin zituen piztuta eduki aldi berean bi bonbilla baino gehiago. Sabino Auzmendi

SABINO AUZMENDI ARRATIBEL (1926, *Urdangarin txiki*)



San Martinen, bi errota zeuden, Errota Zaharra (plazan) eta Errota Berri. San Gregorion eta Aian ere baziren beste bana.

Espainiako gerraren garaian, errotak itxi zituzten, eta, norbait erabiltzen harra-patzen bazuten, isunak jartzen zituzten.

Gerra garaian, errotak itxi zituztenez, egunerokorako behar zuten irina errazionamenduan banatzen zieten. Hura gastatutakoan, ordea, garia etxean bertan ehotzen zuten, kafe aleak txikitzeko erabiltzen den makinaren antzekoa erabilia. Errotakoa baino lodixeago geratzen zen irina.

San Gregorioko jendea Nafarroara joaten zen, bizikletaz nahiz zaldiz, garia eho eta irina ekartzera. Gizon nahiz emakume ibiltzen ziren estraperloan. Patata ere ekarri ohi zuten gisa berean Nafarroatik Atauna, gure aurrekoek ez baitzuten patatarik egiten, edo ez behar beste; hala, gaztaina-trukea egiten zuten nafarrekin. (*Ahotsak.eus*)

Arratibelek esan digunez, XX. mendearen erdi aldera arte ez zuten argindarririk ezagutu etxean.

1900. urte inguruan negozio hark urrestillar bat zuen arduradun, eta gerora, Miraballesko M. Altolagirre Arrese jarri zen.

1960-1970eko hamarkadan elektrogailuak ugaritzen ari ziren, eta indar gehiagoren beharra sortu zen; alabaina, errota ez zegoen horretarako prestatuta; besteak beste, indarra banatzeko hariak aldatu behar ziren eta. Azkenean, inbertsio berritan sartu ordez, zerbitzua bertan behera uztea erabaki zuten.

Errota berri

Lehenago *Jostundegi* esaten zioten etxe honen arrastoak XVI. mendean geroztik agertzen dira. Udal Artxiboan 1818ko agiri bat dago, erai-kin honetan errota bat irekitzeko baimen eskatzeko. Udalak eskaera onartu zuen, eta agindu zitzaion erreka ura Bitarte Txiki aurrean harrezatela eta bide barrenetik eramanez. Eskaeran presaren ezaugarriak ere aipatzen dira. Besteak beste, aipatzen da Agauntza errekan 14,50 metroko pareta bat eraikiko zutela herri-bidearen barrenetik errotara urak bideratzeko eta beste 240 metroko kanal bat egingo zutela urak berriro errekaratzeko. Horrez gain, aldaparoaren ezaugarriak zirela eta, 10 zaldiko indarra lor zitezkeela ere aipatzen da.

1825eko agiri batek dakarrenez, lau errotarri zituen errotak.

1833tik 1890 bitartera hainbat jabe edo arduradun izan zituen, eta, 1890ean, jabe berri batek erosi zuen errota 7.500 pezetatan (45,08€). Gaur egunetik begiratuta, huskeria bat ematen du, baina kontuan izan behar dugu XIX. mendean diruak zuen balioa eta gaur egungoa ez direla inondik inora berdinak. 1888an alondegiko arduradunari, esaterako, eguneko 0,50 pezetako soldata ezarri zioten, eta errotariaren irabaziak ere ez ziren askoz handiagoak izango; ehotakoaren arabera izaten baitzen haien soldata.

1927an publiko egin zuten errota, eta, handik bi urtera, 1929an, ur publikoaren aprobetxamendurako erregistroan sartzea eskatu zuten.

1944an jabez aldatu zen berriro, J.A. Aiestaran Loinazek erosi baitzuen, eta, Ataungo gainerako erroten antzera, hainbat urtez, 1963ra arte,

argindarra sortzen jarraitu zuen. Sortzen zuten argindarra ez zen handia, baina bai errotaren inguruko etxeetara iristeko lain. Zeregin horretan jardun zuen harik eta 1963an itxi zuten artean. 1965ean, Espillako J. Eskisabel Etxeberriak erosi, eta berak eduki zuen 1983ko abenduan itxi zuen arte. Irina ehotzera eramaten zuten baserritarrei, ehotakoaren %10 kobratzen zien hasieran, eta azken urteetan kiloko bost pezeta.

Arrondo

1805eko abuztuaren 25ean, Ataungo Udalak errota bat erai- kitzeko baimena eman zuen Aiatik Arrondora datorren erre- karen ondoan, Arrondo-Saletxe eta Espilla inguruan (Aiako erre- pide ertzean). Gaur oraindik, bertan daude txabola, aldapa- roa eta auzoarentzat argindarra sortzen zuen zentraltxoa.

XX. mende hasieran, Estrada Berri baserriko S. Imaz Apalategi zen errotaren jabea. Artxiboko agiriei esker, badakigu errotak argindarra sortzen zuela 1906an. Izan ere, nagusiak Aldundiari baimena eskatu zion auzoan argindarra banatzeko kableak jartzeko, errotatik auzoko etxeetara iristeko kableek errepidea gurutzatu behar baitzuten.

TIBURTZIO AGIRRE ARRATIBEL *Aiako errotatik ekartzen genuen irina taloak egiteko, artoa eramanda. Errotako arduradunak bostera arte kontatzeko eskatzen zidan, eta gero karameloa eman. Arrebak nahita eramaten ninduen.*
(Ahotsak.eus)

Arratetako errota

Don Juan Arinek zioenez, 1806an eraikitako errota horri 1915ean hainbat berrikuntza egin zizkioten. Urte horretako BOE batean agertzen da nola J. Goikoetxea Urdangarin jabeak baimena eskatu zuen Bedama errekatik segundoko bi litro ur hartzeko eta Imazenea aldekatatik beste zortzi. Bi erreketako urak kanalean bideratu nahi zituen aldaparora, gero desnibelari esker eta urak hartutako indarrarekin Arratetan ipinitako turbina mugitzeko.



Iturria: guregipuzkoa.eus

Errotatxo

XVIII. mendean sortua da San Gregorioko errota hori. Bertan erro-tarrirentzako ura berrito erabiltzen zuten argindarra sortzeko.

Arratibel azpiko bizilagunak ardu-ratzen ziren, 1900. urte inguruan, erro-taren ustiapenez, eta hortik lortutako argindarra —550 watt inguru— San Gregorion eta Ergoienan banatzen zuten. Negozioari jarraipena eman zion

beraien seme N. Garaialde Zurutzak.

1945ko urtarrilaren 26ean, Aiako auzotarrek etxeetan argindarra jartzeko eskatu zioten udalari. Udalak erabaki zuen dirutan 1.000 pezeta (6 euro) eta 80 egurrezko poste ematea auzotarrei, gastuei aurre egi-teko; argindarra San Gregoriotik Aiara eramateko lanak auzolanean egin zituzten.

Aleak ehotu eta argindarra sortzeaz gain, 1900. urtearen bueltan, eraikinari eranskin bat egin zioten bertan zerrategi hidrauliko bat mon-tatu eta auzoko beharrei erantzuteko. Herrian errota gehiago bazeudela-eta errota zerbitzua lehenago alboratu bazuten ere, zerrategia, behintzat, martxan egon zen 1978-1980 ingurura arte.

Urkuola

Urkuolako P. Aierdi Irazustak beraien etxe inguruan argindarra sortzeko zentral bat eraiki nahi zuen. Horretarako, 1903an baimena eskatu zion udalari, instalazioaren ezaugarri nagusiak zein izango ziren zehaztuz.

Agautza erreka urak hartuko zituzten, Barretxe baserria baino 50 metro gorago, eta beraien etxe ingurura eramango kanal batean. Horretarako, urtegi edo presa bat eraiki beharra zegoen. Makina edo turbina jartzeko, etxetxo bat eraiki zuten Urkuolako etxea baino 32 metro beherago, eta gela bat jarri zioten zaintzailearentzat. Presatik urak bideratzeko, 475 metro inguruko kanal estalia egingo zuten Barre-

txe baserrira zihoan bide barrenean, baita turbinatik pasa ondoren urak errekaratzeko 90 metro inguruko kanal ireki bat ere. Instalazio horren bidez, auzoko dozena-erdi etxetara argindarra eramatea zen asmoa, 17,43 zaldi potentzia sortuta.

1940 ingurura arte aritu zen argindarra sortzen, baina gaur egun ez dago bertan jarri ziren tresnen arrastorik, aldaparoa izandako lekua bakarrik ikus daiteke.

Elektra Arrateta, SA

1921eko maiatzean, *Dirección General de Obras Hidráulicas del Norte de España* erakundeak baimena eman zion Tolosar bati segundoko 80 litro ur hartzeko Aitzarteko zenbait iturburutatik (Alegi, Garramiola, Okarizti, Bedama). Kanalizatu ondoren, Loiben eraikitako depositura bildu zuten ura, beheko turbina eta makinak mugiarazteko.

1922ko irailaren 30ean, P. Letek baimena eskatu zuen Ataungo Yta-aundieta harrobiaren gainean Loibe izeneko parajeen eraikitako urtegitik zentral etxera 179 metro luzeko tuberia ipintzeko. Tuberia errepide ertzean jartzeko baimena onartu zuen udalak baldintza hauetan:

1957an Elektra Arrateta SA salatu zuten lehergailuen gehiegizko erabilera zela eta. (AUA, 411-29)

- 1) Aitzarteko errepidean, hoditeria lehertu edo bestelako kalteak sortzen baziren, Pedro Leteren gain izango ziren.
- 2) Hodiek hartutako lurzorua, egoera onean eduki behar zen.
- 3) Estolda zegoenez, urak joan zitezen garbi eta zainduta egon behar zuen.
- 4) Udalak izendatutako arduradun baten aginduetara atera edo kenduko zen harkaitza, metro kubikoko 0,50 pezeta ordainduta.
- 5) Arratetako errepidean ibiliko ziren ibilgailuek zerga edo ordain-sari bat ordaindu behar zuten, eta beraiek adierazi behar zuten zenbat aldiz igaro ziren.



Olea errota, 1988
Iturria: *Guregipuzkoa.eus*

Nonbait ez zuen sortzen behar hainbat indar, eta 1927an Lazkaotik zutikako posteak jarri zituzten argindar gehiago ekartzeko. Lan-tegiek ere pairatu zituzten argindarra sortzeko arazoen ondorioak 36ko gerra amaitu zenean. Hala, generadoreak mugitu eta argindarra sortuko bazuten, besteren artean,

gasogenoarekin eta ikatzarekin mugitzen ziren motorrak jarri behar izan zituzten, ez baitzen makinak mugitzeko lain indar sortzen.

1945ean, *Dirección General de Obras Hidráulicas* erakundearen baimenarekin, nagusiz aldatu zen zentrala. Ordura arteko nagusiak, P. Letek enpresa saltzeko nahia azaldu zuen, eta hainbat pertsona agertu ziren sozietatean enpresaren ardura hartzeko prest; tartean, Ayerbe Hnos. SL-ko kideak, harrobia ustiatzen zutenak.

1935ko ekainean, goi tentsioko linea San Gregoriora luzatzeko asmoa agertu zen, eta udalari baimena eskatu zioten transformadore bat jartzeko “*Errebenzileku*” inguruan. Udalak eskaera onartu, eta urteko 10 pezetako zerga ezarri zien. Ataun osoarentzako sortzen zuten argindarra, baina kontsumoa ugaritu zen neurrian, denei zerbitzua eman ezinda geratu ziren, eta Iberdrolak banatzen zuena sartu behar izan zuten. Horretarako estatuaren *Plan de Electrificación Rural* izeneko planaz baliatu ziren, eta Iberdrolak bere gain hartu zuen Ataun osora argindarra banatzeko konpromisoa. Hala ere, ez dugu pentsatu behar 1930eko hamarkadetan etxeetan zuten argia eta gaur egungoa gauza bera direnik. Argiaren hastapenak ezagutu zituztenek kontatzen dutenez, juxtuko argia iristen zitzaien alanbre zaharretan barrena. Ondorioz, haize pixka bat atera orduko argirik gabe geratzen ziren. Ez zuten ez telebistarik, ez eta irratirik ere, eta bonbillak, berriz, bi logeletarako bakarra erabiltzen zuten; paretan zuloa egin eta bi gelen artean jarrita. Askotan, argia piztuta izanda ere, toki ilunean egonez gero, ez zuten elkar ikusten. Telebista edo irratirik ez bazuten ere, munduan zer gertatzen zen jakitun

izaten ziren. Nola? Bada, Sabino Auzmendi Arratibelek kontatu digu horren berri. Itxura denez, Espainiako gerraren ondorengo urteetan, igandeetan egunkaria erosten zuten, eta bi etxetako lagun denak etxe aurrean elkartzen ziren. Denek ez zekiten irakurtzen, baina bizilagunetako batek bai, eta hark irakurtzen zizkien egunkariko albisteak, beste guztiek haren inguruan eserita adi-adi entzuten zuten bitartean.

Zentral-etxearen ardura hainbat ataundarrek izan zuten. Batzuk aipatzearren, bi pertsonaren kasuak gogorarazi nahi izan ditugu orduko bizimoduaren gogortasuna erakusteko. Batetik, A. Arteaga herriko maisuarena. Herriko haurrei eskolak emateaz gain, bizimodua

LUISA DORRONSORO *Gure ume garaian ura errazionamenduan botatzen zuten.*

Danbolinteroak danborra jotzen zuen jendeak jakin zezan ura noiz eman behar zuen, bila joan zitezten. Etxeetan ez zen nahi adina ur egoten; baserrietan ere gerora jarri ziren deposituak. Komunik eta labadorarik ere ez zen izaten. (ahotsak.eus)

aurrera aterako bazuen, bigarren lanbide bat behar izan baitzuen. Eta, bestetik, ez dugu ahaztu nahi Arzate Berriko J.M. Munduate Mujika, lanean ari zela elektrokutatuta hil zena. Bi kasuak ere, orduko lan-baldintza gogorren lekuko.

LUISA DORRONSORO

Argia bi alanbre elkarri kateatuta iristen zen etxeetara. Ondorioz, haize pixkat ateraz gero, argirik gabe geratzen ginen. Etxe barruko kableak koloretako papelekin forratzen zituzten, itxura polita goa emateko.

Etxe denek zuten argia, baina argi txikia. Maiz ez zuten elkar ikusten. (ahotsak.eus)

JOSEFA AIERBE ALDASORO

Argia geroztik ezagutu genuen; tabikean bonbilla bat jarri eta bi geletarako balio zuen. San Martinen jendea etxeetan argia pizten zuen heinean, indarra galtzen joaten zen.

Telebista eta irratia lehen aldiz ikusi zituenean, sinetsi ezinda egon zen.

Anaia batek gramofonoa ekarri zuen etxera. Kordari emanda ibiltzen zen. Inguruko etxe guztietako jendea gerturatu zen beraie-nera zer ote zen ikustera.

JESUSA BARANDIARAN

Argia dezente beranduago sartu zen etxera. Horren aurretik, kinkea izaten zuten. Horrek petrolioarekin egiten zuen argia, eta ez zuen argi handirik egiten.

1965 inguruan, Lazkaoko, Beasaingo eta Ordiziako biztanle kopuruak gora egin zuenez, ur arazo handiak izan zituzten. Horri irtenbidea emateko, Aia auzotik ura eramateko, Aiaiturri mankomunitatea sortu zuten, Ataun ere barruan zela. Dirudienez, iturburu hark ez zuen izango behar hainbat ur, eta 1973ean, Elektra Arratetako zentrala geldi zegoela ikusita, bere iturburu, etxe zein instalazio osoak mankomunitateak erosi zituen.

Arrandegiak

XX. mendetik aurrera, jateko ohiturak nabarmen aldatu ziren. Inguruko herrietan bezala Ataunen ere, arrain bakarra jaten zen urte haietan, bakailaoa. Baina, denborarekin, garraiobideek ere hobera egin zuten, eta horrek erraztu egin zuen itsas ertzetik barruko herrietarako garraioa. Ondorioz, arrainaren kontsumoak gora egin zuen barnealdean.

1928ko maiatzaren 4an, Ordizian bizi zen arrain-saltzaile batek honela adierazi zion Ataungo Udalari eskutitz bidez: *“Inguratzen ari zaizkigun egun beroetan arraina bere freskotasunean saldu nahi dudanez, herrira sartzean eta ateratzean alondegian egin behar izaten ditudan pisaketen ordez, beste herrietan bezala, etortzen naizen bakoitzeko zerga jakin bat izendatzea eskatzen diot Udalari”*. Udalak eskaera aintzat hartu, eta maiatzean eta ekainean etortzen zen egun bakoitzeko bi pezetako zerga ipini zion.

1940 inguruan ageri da Ataungo lehen arrain-saltzailea, emakumea, gainera, I. Goena Zurutuza. *Iñaxi peskadora* esaten zioten arrain-saltzaile hari, eta egunero egiten zuen San Gregoriorainoko bidea, zaldi bati arrain freskoz betetako gurdia erantsita.

1942an, Lazkaoko T. Arrutik ekin zion arrain-saltzeari; lau urtez jardun zuen lan horretan. Hark bizikletari eransten zion erremolkea arraina Atauna ekartzeko. Aipatutakoekin batera, bolada batez, zaldia eta karroa hartuta, San Gregorioko E. Arratibel Baztarrika *Txilin* ere ibili zen. Adelita Apalategi Arratibelek (1922) gogoan du nola etortzen zen gizon bat Lazkaotik gurdiarekin arrainak saltzera. Batez ere sardina eta legatza jaten omen zituzten. Baina beraien etxean zortedunak omen ziren: Donostian familia zutenez, haiek ekarritako arrain asko jaten omen zuten etxean.



Adelita Apalategi Arratibel

1952an, Ordiziako B. Irastorza arrain-saltzailea hasi zen Atauna etortzen. Horrez gain, 1955 inguruan, udaberrian Nafarroatik fruta saltzera etortzen ziren kamioietakoek ere antxoak saltzen zituzten etxera bueltan zihoazenean. Ambrosio eta Jazinta izeneko senar-emazteek “*¡Que colean, que colean!*” deiadar egiten zuten. Kamioi haiek herrian sartzean, danbolinteroarengana joaten ziren, bando bidez herritarrei etorri zirela adierazteko.

Arrizabalaga baserriko J.R. Beltran ere zenbait urtez etorri zen Ordiziatik Atauna arraina saltzera 1950 urtearen bueltan. 1958tik 1970era bitartean, berriz, ikaztegiatar batek eman zuen zerbitzu onena bere furgonetarekin, I. Artano Zubiarrainek. 1970ean utzi zion arraina saltzeari, eta, herrian geratu zen gabezia ikusita, E. Aldasorok arrandegia ireki zuen Upategi etxean. Negozioaren arduradunek, ordea, denda irekitzeaz gain, ordura arteko auzoz auzoko salmenta zerbitzuarekin jarraitu zuten, harik eta 1979an dena utzi zuten artean.

Zenbait urtez arrandegirik gabe egon ondoren, 1983ko urrian, denda ireki zuen P. Galparsoro Arruabarrenak, Altzanipen, eta dendaren ardura izan zuen harik eta 1994an eskuz aldatu arte. J. Barandiaran lazkaotarrak hartu zuen bere gain arrandegia, eta 11 urtez jarraitu zuen negozioarekin, 2005eko apirilean dendako atea betirako itxi bitartean.

Artzaintza

Abeltzaintzari nahiz artzaintzari buruzko aipamenak aspaldikoak dira Ataungo artxiboko agirietan. Historian zehar ageri diren aipu gehienak ganaduen bahiketa kasuei buruzkoak dira, Idiazabalekin zein Sakanako herriekin izandako istiluak, hain zuzen ere. Bahiketa haiei aurre egiteko lehen hitzarmenak 1559 (Idiazabal) eta 1695 (Etxarri-Aranatz) urteetakoak dira.

1788an, Ataungo Udalaren erabakiz, artzaintzaren errolda egin zuten, eta, bertan ageri denez, 60 artzain txaboladun zeuden, eta beste hamar, aterperik gabeak. Urtetik urtera, gora egin zuen Ataungo artalde kopuruak. XIX. mendearen bigarren laurdenaren hasieran, esaterako (1826), 10 bat mila buru zeuden; gehienak artalde txikietan banatuta, baserri, saletxe nahiz horien inguruko itxituretan bilduta. Horietatik batzuk etxe-ardiak ziren, eta besteak, mendi-ardiak.

Itxiturei dagokienez, badirudi XV. mendean egunez ardiak nonahi ibil zitezkeela larrean, baina 1507rako Intxaustin itxiturak egitea onartu zen. Gerora, asko ugaltu ziren, bai itxiturak eta bai horiek egiteko teknikak ere: elorriz, harriz eta alanbrez egiten ziren. Alanbrezkoak ari dira gailentzen orain.

Horrez gain, bazen beste berezitasunik ere: ganadua erdira gobernatzea. Hau da, batek abereak erosteko dirua ipintzen zuen, eta bigarrenak horiek zaintzen zituen, eta gero, etekinak erdibana banatzen zituzten. Ohikoa zen ardiez gain behiak zerriak eta ahuntzak ere modu horretan gobernatzea.

1718ko apirilean, Hermandadeak salaketa jarri zion adin txikiko artzain bati, larre batzuei nahita su emateagatik. AUA, 154-02



JUAN ZEBERIO AGIRRE
Artzainen bizia gogorra zen.
(ahotsak.eus)

Artzaintza gaur eguneraino iritsi da, eta orain ere ugari dira artaldeak izan eta gazta egiten duten ataundarrak. Teknologiaren aurrerapenei esker lanbidea asko arindu bada ere, oraindik ere oso zeregin lotua da. Dena den, nahiz eta orain ere gogorra izan, ez du duela 50-60 urtekoaren antzik. Juan Zeberio Agirrek (1938) dioenez, orduan artzaintza lan gogorra zen. Negu partean, artalde handiak zituztenak Bizkaia aldera joaten ziren klima leunagoaren bila. Etxe-ardiak zituztenek, berriz, ahal zuten moduan egiten zuten aurrera, ardiak etxe ondoan zituzten bordetan sartuta; jaten emateak nahiko buruhauste sortzen zien. Izan ere, ez zegoen gaur beste zelai, lur gehienetan soroak baitzeuden. Halaber, esan behar da soroetan gariak gain, animaliei jaten emateko artoa ere lantzen zutela.

Gazta ere egiten zuten, baina gutxi, ez baitzuten hozkailurik. Behi edo ardiak jetzi ahala, sukaldeko leiho kanpoan uzten zuten esnea, eta, pare



FELISA ARZA 8-9 urterekin hasi nintzen artzain, baita gazta egiten ere. (ahotsak.eus)

bat-hiru egunekoak jaso ondoren, gazta egin. Behar zutena baino gehiago egiten zutenean, Ordiziako feriara joaten ziren gazta saltzera. Ez gazta bakarrik, baita etxean zituzten oilas-korik onenak ere.

Artzaintza mundu mistoa izan da, etxeko gizonek nahiz emakumeek jardun izan dute ofizio horretan, bai behinik XX. mendearen hasieratik ona. Felisa Arza Urdangarini (1912-2010) jaso da 8-9 urterekin etxean zituzten 120-140 ardiekin artzain ibiltzen zela eta gazta ere egiten zuela. Ardiak mendian jez-

ten zituzten, eta gero makilaren punta banatan marmita bana jarrita jaisten zuten esnea etxera gazta egiteko. Lehenbizi esnea garbitu behar izaten zuten, eta horretarako osinak erabiltzen zituzten iragazki gisa; gero, gatzagia eman, esnea lotu zedin, eta gaztandegian gordetzen zuten ontzeko. Azkenik, gatzari kolorea emateko, altzaren egurra erretzen zuten, haren keak gazta kolorezta zezan. Gaztak onduta eta jateko prest zeudenean, anaia Ordiziako azokara joaten zen saltzera. Bidaia zein irabaziak aprobetxatuz, bueltakoan, etxean behar ziren jeneroak ekartzen zituen. Felisa bera ez omen zen inoiz joan azokara gazta saltzera. Are gehiago, 18 urte izan arte ez zen Ordiziara inoiz joan.

Aurrezki-kutxa

Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialaren zuzendaritzak, 1902ko otsailaren 14an, bulego bat irekitzeko baimena eskatu zion Ataungo Udalari, baina, Ataunen Mikeleteen etxerik ez zegoenez, udalak eskaera ez onartzea erabaki zuen. 1906rako, ordea, badirudi herritarren ikuspegia aldatu egin zela. Izan ere, urte horretako maiatzean hainbat herritarrek udalari aurrezki-kutxa irekitzeko eskaera egin baitzioten. Bertan ziotenez, onuragarria eta beharrezkoa zen herrian Aurrezki Kutxaren bulego bat irekitzea. Horretarako, herriko diru-mugimenduez arduratuko zen mikelete-bikotea izendatu behar zen.

Ataungo Udalak eskaria egin zutenen arrazoiak bidezkoz hartu zituen, aurrezki-kutxa eta mikeleteak herrian ezarzteak Atauni onurak ekarriko zizkiolakoan. Baina bulegoa ez zen berehala ireki. Agirietan ikus daitekeenez, 1919an udalak aurrezki-kutxa irekitzeko eskatzen jarraitzen zuen oraindik, eta Kutxaren zuzendaritzak apirilean berriro ukatu zuen ataundarren eskaera, Beasainen eta Ordizian bulegoak bazirela eta behar zen zerbitzua bertan ematen zutela argudiatuz.

Udalak eskatzen jarraitzea erabaki zuen, eta horregatik, Aurrezki Kutxaren bulegoa irekitzeko egokia iruditzen zitzaion etxean Mikelete postua jarri zuen. Horrela, bada, Ordiziako mikeleteen kapitainari galdetu zioten Mikelete etxea jartzeko egokiena zein ote zen, Arrondo auzoko Aranburuenea edo Kamio etxea. Kapitainaren iritziz, biek betetzen zituzten baldintzak, eta kontuan eduki beharreko bakarra arkitektoak haiek egokitzeko egindako aurrekontua zen. Aranburuenea konpontzeko, 2.484,60 pezetako inbertsioa behar zen (14,93€), eta, Kamio etxea berritzeko, berriz, 90 pezetakoa (0,54€). Hori ikusita, Ataungo Udalak Kamio etxea erostea erabaki zuen. Gaur



Iturria: guregipuzkoa.eus

egun, diru kantitate horrek hutsaren hurrengoa dirudi, baina kontuan izan behar dugu duela 100 urteko kontuez ari garela eta diruaren balioa orduan eta orain oso ezberdina da. Orduko balioen zenbatekoaz jabetzeko, taula batean bildu dugu elikagai batzuk 1917an zein preziotan saltzen ziren Ataunen.

1917. ELIKAGAIEN PREZIOAK ATAUNEN	
PRODUKTUA	PREZIOA PEZETETAN
Litro olioa	2,80
Oilo pareta	18
Oilasko pareta	12
Azukre kiloa	117
Bakailao kiloa	165
Caracasko kakaoa, 100 g	542
Kafea	3,16
Litro bat ardo	1,32
Litro bat esne	0,60

Horrela, bada, etxearen jabe ziren *Herederos de Jose Cruz Bazterrika*-koekin hartu-emanetan jarri zen udala, eta berehala erosi zuen 7.750 pezetatan (46,58 euro), bertan Ertzain-tokia eta aurrezki-kutxaren bulegoa irekitzeko.

Ataungo Udalak argudio hauek bidali zizkion Kutxako zuzendariari aurrezki-kutxaren bulegoa irekitzeko:

- Herri txikiagoetan ere ireki dituzte bulegoak.
- Ataunek Nafarroarekin ere hartu-emanak ditu.
- Eta, irekita dagoen errepidea dela eta, mugimendua dago herrian.

Alkateak eta P. Zurutuza Elizalde zinegotziak eskaerarekin aurrera egitea erabaki zuten 1919ko uztaileko udalbatzarrean, eta bertan Kutxako lehendakariak bidalitako txostena⁸ irakurri zuten. Zioenez, Kutxako kontseilua ekainaren 30ean bildu zen, eta erabaki zuten Ataunek hainbat aldiz egindako eskaera aintzat hartu eta bulegoa irekitzea. Horretarako, udalak eskainitako gela lehenbailehen prest egon behar zuela agindu zieten. Azkenean, 1920ko urtarrilaren 1ean ireki zen Kamio etxean Aurrezki Kutxaren bulegoa⁹, eta berehala, erkidegoko Telefonicako zuzendariari telefonoa jartzeko eskaria egin zitzaion.

Aurrezki-kutxak Mikeleteen ardurapean funtzionatu zuen 1945eko urtarrilaren 29an berriz inauguratu zen artean. Guztira, inguruko herrietako hamabi mikelete egon ziren postuan. Inaugurazio-ospakizunak goizeko meza nagusiaren ondoren egin ziren, eta arratsaldean, kontzejupean, pilota partida. Kutxako bi ordezkari ere etorri ziren ekitaldira. Zegamar bat izendatu zuten bulegoaren arduradun.

1951n, Juanikonea izeneko etxera aldatu zen Kutxaren bulegoa, eta ondoren, gela hartan, auzoko eskola ireki zuten.

1978ko otsailaren 1ean, San Martingo Angulonean Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipalaren bulegoa ireki zuten, eta bertako ardura-duna R. Eskisabel Zurutuza izan zen.

1990ean, erkidegoko bi Kutxak —Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala eta Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipala— elkartu egin zirenez, 1992an Munizipalaren bulegoa itxi egin zuten; geroztik, Kutxak bakarrik jarraitzen du

8. AUA, 492-13

9. AUA, 399-4

Barberuak eta ile-apaindegiak

Barberuek, ilea mozteaz gain, beste hainbat lan ere egiten zituzten; besteak beste, petrikilo- nahiz erizain-lanak: hortzak atera eta erditzeak artatu. Joxe Bikuñak kontatu digunez, etxeak estrategikoki kokatuta zituzten: bat San Martinen, bestea Astigarragan eta hirugarrena Arinen.

Ile eta bizarrak mozteko ez bezala, baimen berezia behar zuten hortzak ateratzeko nahiz erditzeak artatzeko. Baimen haiek zirela eta, zirujau eta barberuen artean liskar ugari sortzen ziren, eta, ondorioz, baita salaketa ugari ere.

Beste hainbat ogibidetan bezala, barberuenean ere ofizialak ofizioa erakutsi behar izaten zion ikasleari. Ez hori bakarrik, baita lane-rako prest utzi ere. Hots, jakintza transmititzeaz gain, lanean hasteko material guztia ere eman behar zion. Ikasketa-prozesua 3 urtekoa zen, eta denbora horretan zehar, irakasleak ikasleari behar zituen arropak, materiala, lo-lekua eta mantenua eman behar zizkion. 3 urteak pasatutakoan, azterketa bat egin behar izaten zuten ofizial bihurtu eta soldata kobratzen hasteko; horrela lortzen zuten lanean hasteko baimena. Proba gaindituta, negozio propioa irekitzeko moduan geratzen ziren; hori bai, maisu izan zutenarengandik urrun¹⁰.

Noski, izenak dioen moduan, gaur egun medikuei dagozkien zereginenez gain, ile-bizarrak moztea ere haien eginbeharra zen. Gaur egun ez bezala —oso ohikoa, behintzat, ez da—, antzina gizonezkoak bizarra moztu eta txukuntzera barberuarengana joaten ziren; hortik datorkio ofizioari izena.

1634tik 1963ra, Ataunen hamabost bizargin edo barberu egon ziren, eta emakume ile-apaintzai

10. Rondero Gaitán, P (2010).

IZENA	KOKALEKUA	IREKIERA URTEA	INFORMAZIOA
	San Martin	1956an hasi zen lanean aurrez irekita zegoen ile-apaindegi batean eta 1991ra arte aritu zen bere etxean, Graziñe Berrin.	<p>Txaro Barandiaran 14 urterekin hasi zen ofizioa ikasten Ordiziako ile-apaindegi batean. 16 urte zituela, 1956an, Atauna itzuli eta beste neska batekin batera ordurako irekita zegoen ile-apaindegi batean hasi zen lanean. Bertako nagusiak, ezkondu egin behar zuela eta, negozioa uzteko asmoa zuen, eta orduan Txarok eta haren lagunak jarraitu zuten ile-apaindegiaren martxarekin. Izan ere, garai haietan behin ezkonduz gero ezin zen etxetik kanpo lan egin. Urte batzuen buruan, lokalaren nagusiak lokala behar zuela esan zien, eta, orduan, Txarok eta lankideak bakoitzak bere etxean ireki zuten ile-apaindegia. Txarok esan digunez, bera lanean hasi zenetik gaur egunera asko aldatu dira ohiturak; baina orduko moda batzuk, bueltan-bueltan, bueltatu ere egin dira berriz.</p> <p>Bueltatu ez dena moñoa egiteko ohitura da. Lehen emakumeek, behin ezkonduz gero, moñoa erabiltzen zuten egunero. Emakume mordo bat izaten omen zituen ile-apaindegiak ilaran zain moñoa egiteko. Gaur egun, berriz, okasio bereziatarako bakarrik biltzen da ilea; ezkontzak eta abar.</p> <p>Galdu egin da, hala berean, ile-apaindegira astero joateko ohitura.</p>
Jone Mendizabal	San Martin	2007ko iraila	<p>Negozioari izena ematen dio ile-apain-tzaileak: J. Mendizabal</p> <p>Emakume batzuk, 50 urtetik gorakoak denak, astero joaten dira orraztera; gazteek ez dute horrelako ohiturarik.</p>
G.A.U.	Altzanipe, San Martin	2014	G. Aierbe Urrestarazuk ile-apaindegia izateaz gain, etxetzeko zerbitzua ere ematen du.

Basogintza

XVIII. mendera arte, abeltzaintza eta nekazaritza izan dira gure arbasoen lehenengo eginkizun eta bizi-bide nagusiak, baina Ataungo herritarrek betidanik zaindu izan dituzte bere baso eta oihanak, eta



**Martin Aldasoro Begiristain (1929;
Praixkune baserria, Aia)**

Mendian basozain ibiltzen zen. Oso gustuko zuen mendian ibiltzea, eta Aralarren asko ibiltzen zen. Haren lana izaten zen Ataungo eta Aralarko lurrak, itxiturak eta ganaduak zaintzea, baina markesaren lurretan ez zen sartzen. Landareak zaintzeaz ere bera arduratzen zen, inork egurrik botatzen ote zuen kontrolatuz, besteak beste. Izan ere, Aralarren aizkolariek txikizioak egiten baitzituzten. Horrez gain, Goierrin barrena pizten ziren suak itzaltzen ere jarduten zuen, ohikoa baitzen, inbidiak direla medio, gauetan pinudiei su ematea. Horiek itzaltzeko, gomazko tresneria erabiltzen zuten.

(Ahotsak.eus)

1745ean, Gipuzkoako Batzar Nagusiak kezkatuak zeuden zuhaitz ugari atera zirelako, eta baso-ustiapenak gutxitzeko neurriak hartu zituzten. Eginbehar hori arautzeko, 1749an Aranjueztik Errege Dekretua

garaian garaiko neurriak eta legeak aplikatu izan dituzte basoei eusteko. Joxe Bikuñak esan digunez, Ataunen gehien iraun duen enpresa ikazkintzako izan da, 500 bat urte.

Udalak 1550ean harturiko erabakietan ageri da garrantzia ematen zitzaioela zuhaitzak aldatzeari; udalak, esaterako, diruz saritzen zituen aldaketak egiten zituztenak. Udalak bere maizterrei ere, baserrien errenta diruz ordainarazteaz gain, urtero hainbat zuhaitz aldarazten zizkien.

Gipuzkoan, apurka-apurka, industrializazioa zela medio —batez ere gerrateetarako itsasontziak egiteko— zuhaitz asko erabili zen, basoetan landaredia urritu egin zen. Hasiera batean, itsaso inguruko basoetatik ateratzen zuten egurra, baina berehala barrualdeko lurretako zuhaitzen beharra ere sortu zitzaien. Ondorioz, Gipuzkoako basogintzan herririk oparoenetako bat bihurtu zen Ataun.

bidali zuten, eta bertan agertzen zen zuhaitzen ustiapena egiteko garaian lehenetasuna Erregearen zerbitzuek zutela eta Itsasoko Ministerioaren baimenik gabe ezin zutela zuhaitzik ustiatu ez udalak, ez komunitateak ez eta partikularrek ere.

Gure herriko basoetatik ateratako egurrak askotariko erabilerak zituen: barkugintza, upelgintza, altzariak, armagintza, trenbidetako trabesak, ikazkintza eta abar. Besteak beste, honako herri hauetara eraman zituzten Ataungo zuhaitzak: Tolosa, Eibar, Hernani, Pasaia, Soraluze, Olazti eta Zumarraga. Halaber, herrian bertan ere izan ziren basotik ateratako egurra lantzeko zerrategiak.

Egurraren garraioa, berriz, mandazainek eta itzainek egiten zuten. Bertakoak nahikoa ez zirenean, Olaberritik eta Lazkaotik etortzen ziren lanera. Hala ere, esan behar da Ataunen itzain asko egon zirela. XVIII. mendearen amaierako eta XIX.aren hasierako urteetako agirietan 40 itzain ataudarren datuak aurkitu ditugu (izen-abizenak, jaiotze-urteak...), eta beste horrenbeste edo gehiago ere ageri dira modu anonimoagoan.

Ataungo basoetatik ateratako egurra ez zuten eraikuntza lanetarako bakarrik erabiltzen. Sukaldeetarako nahiz karobietarako su-egurra ere bertako zuhaitzen egurrekin egiten zen. Hala berean, mendiko txondorretatik ateratzen zuten gerora labe zein sutegietan erabiliko zen egur-ikatza. Horrez gain, oholak, taulak eta arraunak ere egiten zituzten. 1754ko uztailean, esaterako, herriko itzain batek tratua egin zuen Anoetako merkatari batekin Ataungo basoetan egindako arraunak abendurako Anoetara eramateko. Donostiako merkatari batek, berriz, hiru urte geroago, 1757an, honako tratua egin zuen gure herriko beste itzain batekin: 200 orga arraun, Mantirano mendian prestatzen ari zirenak, Anoetara garraiatu behar zituen, eta, gurdikada bakoitzeko,



Arrondo auzoa, 1915
Iturria: guregipuzkoa.eus

30 erreal ordainduko zitzaizkion¹¹. Ez dira era horretako hitzarmen bakarrak, notario aurrean horrelako hitzarmen ugari sinatu baitziren XVIII. mendean.

Egurra ateratzeaz gain, basoko zuhaitzetatik lortzen zituzten beraiek jateko edo animaliei emateko erabiltzen zituzten gaztainak eta ezkurak. XX. mendean etxe gehienetan izaten zituzten sagarrondoak, gereziak, udareak, aranak eta mizpirak ere. Joxe Bikuñak eta Sabino Auzmendik esan zigutenez, sagarrondoak, gehienetan, lursailaren barrenaldetan egoten ziren, lur gehien bertan egoten zelako. Bide batez, etxe batekoen eta bestekoen lurren arteko muga egiteko ere erabiltzen ziren.

Jarraian duzuen taulan¹² ikus daiteke XVIII. mendearen bigarren erdian eta XIX.aren hasieran Ataungo basoetan zenbat zuhaitz aldatu ziren, bai eta zenbat atera ziren ere.

ATAUNGO BASOETAKO ZUHAITZ-MUGIMENDUAK					
URTEA	ALDATUTAKOAK				ERAMANDAKOAK
	HARITZAK	GAZTAINAK	PAGOAK	GUZTIRA	
1.750	239			239	1.949
1.751	1.150	569		1.719	137
1.752	900			900	1.469
1.753	1.031			1.031	664
1.754	815			815	971
1.755	2.000			2.000	800
1.756	1.593		140	1.733	1.694
1.757	1.300			1.300	2.009
1.758	2.696			2.696	977
1.759	2.168			2.168	2.711
1.760	2.467			2.467	2.720
1.761	2.290			2.290	1.658
1.762	1.277			1.277	1.760
1.763	1.261	178		1.439	728
1.764	2.421	377		2.798	2.377
1.765	2.406	126		2.532	2.441
1.766	2.682			2.682	3.264
1.767	2.768	122		2.890	2.967
1.768	2.935	67		3.002	2.855

11. AGG/GAO-PT. 1916-239 orria.

12. AGG/GAO-PT-1890-57 orria.

1.769	2.709			2.709	
1.770	2.432	606		3.038	2.369
1.771	2.234			2.234	1.864
1.772	1.922	98		2.020	1.792
1.773	2.258	183		2.441	2.685
1.774	1.372			1.372	1.863
1.775	1.721			1.721	1.719
1.776	1.144			1.144	979
1.777	1.064			1.064	1.261
1.778	1.041			1.041	1.375
1.779	761			761	578
1.780	655			655	503
1.781	182			182	
1.782	329			329	546
1.783	883			883	434
1.784	1.242	235		1.477	173
1.785	1.509	190		1.699	299
1.786	2.187	290		2.477	723
1.787	2.692	508		3.200	1.254
1.788	3.100			3.100	1.141
1.789	2.342	272	1.919	4.533	3.226
1.790	1.196	5		1.201	2.176
1.791	1.680	337		2.017	2.277
1.792	1.301	139		1.440	9.543
1.793	550	60		610	1.111
1.794	792	100		892	1.635
1.795	1.840			1.840	1.344
1.796	1.469	114		1.583	696
1.797	1.951	204	250	2.405	548
1.798	1.704	176	261	2.141	1.497
1.799	2.049	311	701	3061	1.488
1.800	3.430	613	1.630	5.673	2.413
1.801	1.860	665	2.971	5.496	1.383
1.802	1.482	605	335	2.422	2.740
1.803	910	130	1.274	2.314	3.125
1.804	1.860		480	2.340	2.064
1.805	2.309	350	700	3.359	2.299
1.806	3.751		340	4.091	7.565
1.807	1.290		1.020	2.310	6.768
1.808					3.800
Guztira	99.602	7.630	12.021	119.253	113.407

Jabetza pribatua eta industria agertu zirenean, ordura arteko lanbideak, hots, abeltzaintza eta nekazaritza, albo batera utzi eta beste era bateko ogibideetan jardun beharrean suertatu ziren herritarrak. Hala nola basogintzan.

Sasoiko gizonak etxeko lanak sendiaren gain utzi eta udaberritik udazkeneraino mendiko lantegietara joaten ziren. Lan-kuadrilla ugari sortu ziren, eta herriko basoetatik kanpora ere joaten ziren; hala nola Aizkorrira, Arantzazura, Urbasara, Iratira... Nahiz eta denak basotik bizi, denek lan ezberdinak egiten zituzten. Batzuk trontzalariak ziren, hauek altzaritarako pago egurrezko oholak ateratzen zituzten; zerralariek bilgarriak eta armak bidaltzeko kaxak prestatzen zituzten; trabeslariek, berriz, trenbideetan erraila lotzeko zeharka jartzen diren egurrak egiten zituzten Renferentzat. Azkenik, ikazkinak zeuden; horiek Bigarren Karlistaldiaren ondoren agertu ziren lehenengoz Ataunen; gehienak Azpeitia, Urrestilla eta Nuarbe aldekoak. Harrezkero, ikazkin ugari izan dira. Tartean-tartean, lan-istripuz hildakoak ere izan ohi ziren¹³.

XVIII. mende erdian Soraluzeko *Real Fabrica de Armas* lantegiak bi ataundarri eman zien egurra lortzeko ardura. Haien zeregina zen bai Ataunen eta bai Nafarroako Arakilgo eta Araizko haranetan ere egur lantegiak topatzea. Horrez gain, bietako batek upelak egiteko pago zein haritzeko ohol kurbatuak prestatu behar zituen, Ataungo Udalak Igoniz basoan zeukan lantegian. Ohol haien lanketaz beste bi arduratu ziren. Besteak beste, haien zeregina zen egur-lantegietan landutako oholak astero menditik beraien etxe aurrera jaitea. Garraiorako, zaldiak erabiltzen zituzten.

1779ko maiatzean, beste ataundar bat arduratu zen infanteriako mila fusilen egurrezko piezak egiteaz Soraluzeko *Real Compañia de Armas* lantegiarentzat.

XVIII. mende amaierarako, arotz ugari zeuden Ataunen oholak egiten zituztenak: etxeetako zoruetan jartzeko, teilatuetarako, itsasontzigintzan erabiltzeko, trenbideetarako, eta abarretarako. Denboraren poderioz, ordea, gutxitzen joan zen basogintzan aritzen ziren ataundarren kopurua. Beharakada horretan, zerikusia izan zuen XIX. mendean industrializazioak indarra hartu izanak, lantegiko lana basokoa baino erosoagoa

13. AUA, 164-05

baitzen. Izan ere, aukera ematen zien egunero etxera bueltatzeko eta lantegiko lanak baserrikoekin uztartzeko. Basogintzan zihardutenean, ordea, aste osoa mendian igarotzen zuten, egunsentitik iluntzera arte lanean; igandeetan soilik jaisten ziren kalera, meza entzutera.

Langileen datuak aipatzearen, mendeetan ataundarrentzat ia ogibide nagusia izan zen hartan, 1924an, 113 herritar bakarrik zebiltzan. Ia beste horrenbeste langile zebiltzan ordurako Beasaingo eta Ordiziako lantegietan; lanerako eskuak asko gutxitu ziren Ataungo basoetan; ez, ordea, lana. Hori dela eta, kanpoko langileek etorri behar izan zuten herriko lantegietara. Hasiera batean Nafarrak (Arano, Goizueta, Lesaka, Igantzi eta inguruetakoak); gerora, ordea, Santandertik eta Asturiastik etorritakoak batik bat.

XX. mende hasieran, basoak egurrez hain aberatsak zirenez, erabilgarritasuna atera nahian aroztegi eta altzaritegi bat sortu zuten Astigarraga auzoko Dornarinean. Negozioa handituz joan zen heinean tailerra txiki geratzen joan zitzaien. Gauzak horrela, 1940an tailer handiagoa eraiki zuten egun Ubarrieta etxea dagoen tokian. Lantegiak lanpostu dezente sortu zituen. Arotz altzari-egileez gain, bernizatzaileak, lixadoreak, baso-mutilak, zerrariak eta makinariak ere aritu ziren lanean.

Ataungo basoetan gaztainondo ugari zegoen, baina, betidanik eza-gututako zuhaitzak ez zirenez berritu, gaitzak jo eta hondatu egin ziren, batere baliorik gabe geratuz. Beste hainbat arrazoirekin batera, gaitzak jo izanak zerikusi handia izan zuen 1950-1960ko hamarkadan gaztainadiak izan zuten beherakadan. Gaztainondoak hondatuta zeudenez, kendu eta beraien orde z pinuak aldatu zituzten. Kendu zituzten zuhaitz zaharren egurra ikatza egiteko baliatu zuten, eta egindako ikatz kilo bakoitzeko 2,10 pezeta inguru atera zituzten.

Manuel Olaizola Urbietta *Uztapidek* Ataunen basolanetan ibili zeneko oroitzapenak bildu zituen 1975ean argitaratutako liburu batean: *Uztapide, lengo egunak gogoan*¹⁴. Antzaenez, 1951ko uda pasa zuen Ataungo Markesane basoan trabesak egiten beste zortzi lagun eta nagusiarekin.

Uztapide lantegira iritsi zenerako, zuhaitzak botata zituzten, eta berehala zerran trabesak egiten hasi ziren. Eguna argitu orduko hasten omen zuten lan jarduna, eta iluntzera arte bertan aritzen ziren buru-

14. Uztapide, 1975

Basagizonak uda mendian lanean pasa eta udazkena iristean bueltatzen ziren etxera, Santu guztien egunean. (Aranburu Ugartemendia, P.J., 2003)

belarri, bikoteak nor baino nor gehiago, nor lan gehiago egin; eguneko berrogeita hamar trabes egitea izaten zuten helburu¹⁵. Haiek egingakoan, mandazainek mandoekin ateratzen zituzten errepidera. Horrez gain, haien zeregina izaten zen mendian zeudenentzat egin beharreko enkarguak egitea ere. Langile haiek, uda lanean pasa, eta udazkenean joaten ziren etxera, Santu guztien egunaren bueltan (azaroak 1).

Ataungo basagizonak, basoko lanak egiteaz gain, beste lan batzuk ere egin zituzten. Hala nola *Quimica Forestal SA* lantegian; alkohola eta beste zenbait produktu kimiko egiten zituzten. Hori lortzeko, Ataungo basoetako pago egurra galdara batzuetan egosten zuten, eta, ondoren, likidoa Lizarrustitik Beasaina eramanez, horko lantegian azken produktuak egiteko. Egunerokoan egur ugari behar izaten zuenez, *Quimica Forestal SA*-k Ataungo Udalaren pago egurren enkante gehienetan parte hartzen zuen. Maizi, Iraio eta Alleko inguruetako basagizon taldeek prestatu eta garraiatzen zizkieten egur loteak.

Kimika lantegi horren egunerokoaren arrastoek gaurdaino iraun dute. Ordukoa baita Lizarrustitik Lareora bidean dagoen tunela, basotik lan-lekura bagoneta pasatzeko eta egurra jaisteko irekia.

Aipatutakoez gain, ikazkintzan ere jardun zuten Ataungo basoetan, ikazkintzak garrantzia handia izan zuen herriko ekonomian. Batik bat, baserririk ez zuten herritarren artean; bizia aurrera aterako bazuten, zerbitzuetan edo baso-lanetan jardun beste erremediorik ez baitzuten. Oletarako izaten zen Ataungo basoetako ikatza, bertako nahiz inguruko herrietako oletarako.

Ofizio hark herrian zer-nolako garrantzia izan zuen jabetzeko, *lantegi* hitza toponimian zenbat agertzen den begiratu besterik ez dago: *Lantegieta, Lantegi-zaharra, Lantegizaharreko erreka, Tirio lantegia, Pello lantegia...*

Dirudienez, lurralde hauetan erromatarren garaian jada ikazkintza erabiltzen zuten meategietatik ateratako materiala burdinoletan eralda-

15. Uztapide, 1975

tzeko. Ataunen ere badira garai haietan ustiatutako meategiak: Askaeta (Iturriotz baserriaren inguruan), Ustatxo Aitzekoa, Andurioko Peazulo, Ararstozko eta Agaozko Maukulok, eta abar. Ofizioaren antzintasuna adierazten dute artxiboko agiriek ere. Hona hemen aurkitu ditugun bi aipu, 1566koa eta 1568koa hurrenez hurren:

“... a un benaquero que vino desde Mondragón para ver las mineras de Urrestarazu y Gorostiza...”¹⁶.

“... se dieron cuatro reales a un benaquero de Mondragón por la relación que les dió donde dexaron bena unos benaqueros de Mondragon...”¹⁷.

Meategi oparotasun horrek argi uzten du, ataundar ugarik jardun zutela haietan lanean. Datuak ziurtatu nahian, artxiboko agiriak aztertu ditugu, baina datu zehatzak ateratzeko zailtasunak izan ditugu. Izan ere, XVIII-XIX. mendeko biztanleen langintzak ez daude zehaztasunez jasota; askok *labrador* edo *jornalero* aipamena dute, baina tarteka *carbonero* ofizioa izendatzen zitzaizen batzuk ere topatu ditugu; 120 bat, hain juxtu. Hala ere, dudarik ez dago ikazkintzan jardun zuten ataundarren zerrenda luzea dela. Datu pare bat ematearren, jakina da 1880an zortzi ikazkin kuadrilla zeudela, eta 1900ean, berriz, hamabi. Gehienak Aia, Ergoiena eta San Gregoriokoak.

Baina zergatik egiten zuten ikatza mendian eta ez herrian, menditik egurra jaitsita? Bada, 1.000 kilo egurrek sortzen duten beroa eta egur hori ikatz eginda ateratzen diren 200 kiloeak, bero kantitate bera ematen dute; ikatza egiteko orduan egurra erre partez egosi egiten baita. Gauzak horrela, ikatza mendian eginda garraioan izugarri aurreratzen zuten.

Ikazkintzan hastera zihoazenean, lehen egitekoa basoaren markaketa izaten zen. Hau da, gero egur-ikatz bihurtu beharreko zuhaitzak seinatu egin behar ziren, bota beharreko bakoitzari marka edo ezaugarri bat ipini enborrean. Lan hori normalean azaro inguruan egiten zuten. Horretarako, lantegiko jabeek izendatuta izaten zuten, aurrez, ikazkin maisua, eta hark oihana ikusi ondoren aukeratzen zituen bota beharreko

16. AUA, 1566

17. AUA, 1588

zuhaitzak. Haren eginkizuna bete ondoren, hots, zuhaitzak markatu eta haren ustez zenbat karga ikatz aterako ziren adierazi ondoren, zinezko aitormena sinatzen zuen eskribauaren aurrean. Jabegoa udalarena zenean, berriz, ikazkin maisuarekin batera herri ordezkari bat joan ohi zen basora. Markaketa egin eta berehala, udalak enkantea prestatzen zuen. Igandeetan izaten zen beti, goizeko meza ondorenean.

Enkante egunean, udal-ordezkariak aurrean zirela, aguazilak kandela



TIBURTZIO IZAGIRRE ARRATIBEL
(Sarteazpi)

Ikazkin lanetan aritu zen, gaztainadietan txondorak egiten. Txondorra egiteko neurri jakin bateko egurrak erabiltzen ziren. Egurrak prestatu, eta lepoka eramaten zituzten. Txondorra egiteko, egurrak pilatu, eta gainera lurra botatzen zitzairen. Hiru bat egunez sua eman, eta hura zaintzen egon behar izaten zuten gero bertatik ateratako ikatza saltzeko.

(ahotsak.eus)

baldintzak, epeak, soldatak, mantenua eta beste zenbait xehetasun adosten zituzten.

1940-1950eko hamarkadetan, esaterako, normalena zen eguneko 50 pezeta inguru kobratzea (0,30€), baina izan zen ataundarririk egunean 6 pezeta kobratu zituenik ere (0,004€). Soldataz gain, eguneroko mantenua ere nagusiaren kontu izan ohi zen. Kuadrilla batean edo bestean jardun, nagusi batentzat edo beste batentzat lan egin, menua beti bera izaten

bat pizten zuen, eta interesdunek hura itzali bitartean egiten zituzten beren diru-eskaintzak. Kandela itzaltzean bukatzen zen enkantea, eta diru-eskaintzarik handiena egiten zuena izendatzen zen lantegiaren ustiatzaile. XIX. mendean, ordea, enkantea egiteko modua aldatu egin zen. Diru-eskaintzak jendaurrean ahots gora egin ordez, kartazal itxi batean aurkezten zizkieten udal-ordezkariari aurrez izendatutako egunerako eta enkante egunean denen aurrean irekitzen zituzten. Diru kopuru handiena eskaintzen zuenari egokitzen zitzaion lantegiaren ustiapena.

Enkantea egin ostean, bi edo hiru ikazkin nagusi eta profesional elkar-tzen ziren lantegia hartu zuenarekin eskribauaren aurrean lan-hitzarmena sinatzeko. Horretarako, aurrez, lan-

zen: gosaltzeko, bazkaltzeko eta afaltzeko baba handiak edo babarrunak olio pixka batekin goxatuta, ogia eta ardoa. Hortik aparte nahi izanez gero, okela, urdaia, gazta, txokolatea eta abar, norberak eraman behar izaten zituen.

Otorduez gain, ikazkinak berak eraman behar izaten zituen oherako mantak, euritatik babesteko ahuntz-narruak, *txalie* izeneko egurrezko platera eta koilara bat. Arropetan ere ez zegoen gaur egungo aukerarik, eta denek bi aldagarri baino ez zituzten eramaten, bat egunerokorako eta bestea jaiegunetarako. Biak kalitate berekoak izaten ziren, baina jaiegunetakoak egunerokoak baino berriagoak. Horrez gain, lanerako tresnak ere beraiek eraman behar izaten zituzten: eskuare bat, hasieran egurrezkoa eta gero burdinazkoa; egurrezko pala; saski bat, bi aizkora eta labana.

Egin beharreko markaketak egin eta ikazkin-kuadrillak osatuta, maiatzeko pazko hirugarrenean abiatzen ziren ikazkinak mendira lanera. Atsedetik hartu gabe jarduten zuten uda osoan, argitik argira lanean: egurrak bota, moztu eta puskatu, eta txondorra egiteko dena prestatu; eta, txondorrak sututa zeudenean, gainera, gauean ere lan egin behar izaten zuten, txondorzain.

Sututa egun batzuk igaro eta egurrak behar beste egositakoan, gaineko lurrak kendu eta eskuare batekin ikatza ateratzeari ekiten zioten. Eginkizun hura gehienetan gauez egin ohi zuten, surik zegoen edo ez egiaztatzeko. Ikatza atera ondoren, garbitzeko galbahe handi batean pasa eta zabalean uzten zuten, eta, hoztu eta gero, zakuetan sartu eta menditik errepidera jaitsi.

Ikatza, trenbideetarako trabesak, arraunak... Ataungo basoetako materialak menditik errepidera eta trenbidera jaisteak lan ugari sortzen zuten; itzain eta mandazain askok jardun zuten horretan. Artxiboko agirietan, 1689-1855 urteen bitartean itzain ugariren aipuak ageri dira. Horrez gain, kablea¹⁸ ere baliatzen zuten mendian landutako materiala behera jaisteko, errepidez garraiatzeak baino zailtasun edo oztopo gutxiago baitzuen. Izan ere, ez zegoen gaur egungo errepiderik eta zegoena oso kaskarra zen; itzainak askotan kexatzen ziren errepideen egoeraz. Ez

18. Kableari buruzko azalpen gehiago dagokion atalean

itzainak bakarrik. 1727an, esaterako, itsas agintariek ondorengo kexa adierazi zieten eskualdeko agintariei:

“En vista del mal estado de los caminos, El Ministro de Marina, Sr. Espiritu Pascali, solicitaba a la Provincia que ordenase a las Villas el arreglo del camino Real, pues de Tolosa a Hernani había algunos pasos en los que la calzada estaba descompuesta y hacía muy difícil el acarreo de las quillas que se estaban transportando de Ataun a Pasajes”¹⁹.

Gerora ere izan ziren horrelako kexak, errepidearen egoera kaskarrari buruz. 1884ko ekainean, esaterako, Markesaneko eta Igonizko baso edo lantegitik ikatza eta materiala ateratzen ari ziren itzainek udalari esan zioten Kaxetatik Lizarrustira irekitako errepide berria oso txarra zegoela, aurreko egunetan egindako eurien ondorioz gurpilak lokatzetan sartzen zitzaizkiela eta ezin zutela hor ibili.

Errepide eraiki berria altxor bat balitz bezala zaintzen zuten herri-tarrek, eta egoera onean izateaz arduratzen ziren. 1889ko urtarrilean, udalari errepidean “*harrijoa*” botatzeko eskatu zioten, bestela mendian lanean hasten zirenean gurdiekin errepidea hondatuko zutela eta. Horrez gain, Gipuzkoako Aldundiak ezarritako gurdi-kargen muga ere aldatzeko eskatu zuten. Izan ere, ez zen zilegi gurdi bakoitzak 140 arroba (1.613 kg) baino gehiago garraiatzea, eta itzainek zioten karga-muga horren ondorioz lansari txikiak irabazten zituztela. Gauzak horrela, Ataungo Udalak helarazi zizkion Gipuzkoako Aldundiari herritarren kexu eta eskaerak, adieraziz ibilgailuak hobetu ahala pisu gehiago garraiatzea posible zela. Baina Aldundiak ez zuen eskaera begi onez ikusi, eta erantzun zuen ezingo zutela idi pare batek tiratutako gurdian 240 arroba (2.765 kg.) garraiatu. Hala egin nahi bazuten, karga hori 7 zentimetro zabaleko gurpilak zituzten bi gurditan banatu beharko zutela, horrela lurzorua gutxiago hondatuko zutelakoan. Azkenik, garraiolari kontratistaren gain joan beharko zuten errepidean egin beharreko berrikuntza-gastuek.

Ataungo basoetan ekoitzitako ikatz guztia ez zuten kanpora saltzen; oso preziatua zen herriko sutegetan ere.

19. AGG/GAO. JD.im.2/12/37

Nekazaritzari eta basogintzari estuki lotutako herria izanik, herri-tarrek lanabes behar handiak zituzten, eta, horri aurre egiteko, San Martingo eta San Gregorioko etxe askotan (Aiako aipamenik ez dugu aurkitu) sutegiak eraiki zituzten. Litekeena da sutegi gehiago egotea, baina guk hona dakartzagun aipamenak aurkitu ditugu:

San Martinen: Bonea etxean eta mataderoaren aurrean; Arrondon: Lizarmuntegi, Estrada, Estrada Berri, Mantxitonea, Zubiaurre txiki eta Zubiaurre etxeetan; Astigarragan: Andietxe eta Etxagoran; eta, azkenik, San Gregorion: gaur egun Etxe Zuri dagoen parean eta Sutegin. Denak ez ziren aldi berean martxan egon. 1730etik 1965era bitartean martxan egon zirenak ekarri nahi izan ditugu lerro hauetara.

Arestian esan bezala, sutegiak nekazarien eta basagizonen beharrei erantzuteko sortu ziren, eta, materiala egin ez ezik (aizkora, aitzur, iltze, kate, borra, mailu...), konpondu eta zorroztu ere egiten zituzten. Horrez gain, izan zen pertzak egin eta gurdiak konpontzen zituenik, bai eta Lizarrustiko *Quimica Forestal SA* lantegian beharrezko zituzten kobrezko galdarak konpontzen jardun zuenik ere. Lan haiek herriko beharrak ziren, baina bazegoen aizkorak egin eta inguruko herrietako azoketan saltzen zituenik ere.

Ataungo basoetan egindako ikatza ez zen soilik herriko sutegiak martxan jartzeko; bolbora nahiz gasogenoa egiteko eta inguruko herritako fundizioak martxan jartzeko ere erabiltzen zen. Dakigunez, Ataundik eramaten zuten ikatza Altsasuko *Fundiciones de Alsasua SA* lantegira.

1920 inguruan deskubritu zuen Georges Christian Peter Imbert izeneko frantziarrak gasogenoaren bidez gasa sortu ondoren kamioien motorrak mugi zitezkeela. Horretarako egur-ikatza galdaretan erre eta lurruna sortzearekin batera gasak sortzen ziren; tartean, karbono monoxidoa. Horrekin kamioien motorrak mugiaraztea lortzen zuten, gasolinazko motorren karburadoreetan aldaketa txiki bat egin ondoren.

1936ko gerrak eta ondorengo II. Mundu Gerrak gabezia larria sortu zuten Espainian; hala, produktu askoren eskasia zegoen; tartean, gasolinarena. XX. mendearen lehen erdian zeuden kamioi eta autobusak ugari ez izan arren, ez zegoen denentzako lain gasolinarik, eta erregai asmatu berri hori irtenbide egokia izan zen.

Aipatu bezala, ibilgailuen motorrei aldaketak egin behar zitzaizkien gasogenoarekin ibiliko baziren. Kamioiek lekua sobran zutenez, motorraren ondoan bertan jartzen zitzaaien galdara, baina autoei ez zitzaenez kabitzen, erremolke bat erantsi eta bertan jartzen zieten.



**Legazpiko Patrizio Etxeberria
industriagizonaren merzedesa,
gasogenoarekin**

Danbolinteroak

Antzinakoa da danbolintero ofizioa Ataunen. 1692an, jada, udalak pertsona bat kontrataturik zuen herriko musikari lanez arduratu zedin, 330 errealeko soldatapean. Zeregin hauek zituen²⁰:

- Alkatearen eta udalaren aginduak herrian zabaltzea.
- Hiri-agintariak elizkizunetara zihoazenean bere doinuarekin laguntzea.
- Elizako prozesioetan, eta egunari zegozkion doinuak adieraziz, partaide izatea.
- Hiru auzoetako jaiak eta elizkizunak alaitzea.
- Igandero gazteentzat dantza-saioa egitea.
- Herriko edozein ospakizun, herriaren nahiz elizaren bueltakoak, alaitzea.
- Urtebetetze edo nagusiaren santu-egunean, etxez etxe ibiltzea bere doinuarekin etxeokoak alaituz eta diru pixka bat lortuz.

1725ean danbolintero karguan zegoenak ez zituen lanpostuari zegozkion baldintzak behar bezala bete, eta ez zen herriko jaietara azaldu. Ondorioz, udalbatzarrak erabaki zuen soldata kentzea eta etxez etxe diru-eskean ibiltzea debekatzea.

Danbolinteroek beraien jardunari buruzko arauak ez zizkien udalak bakarrik jartzen; zerbitzu publikoa zenez, Espainiako korrejidorearen aginduak ere bete behar izaten zituzten. Itxura denez, 1733ko azaroan, hainbat herritan *Ave Maria* (Aimaritakoa) ondoren ere danbolinteroak nahiz dantzariak kaleetan jarraitzen zuten, eta Diego Sierra Cienfuegos korrejidoreak herrietako alkateei eskatu zien neurriak har zitzatela hura geldiarazteko²¹.

Udal-kargua zenez, 1809an izendatutako danbolinteroari urteko soldataz gain, atabala ere ordaindu zioten. Udala, ordea, ez zen hain

20. AUA, 192-07

21. AUA, 039-13

eskuzabala izan danbolintero guztiekin. 1812an herria doinuaz alaitzeko ardura zuena kexu zen ez ziotela bere zeregina betetzeagatik zegokion soldata ordaindu. Urte batzuk geroago, 1818an, urteko 220 errealeko soldata ipini zioten.

1830ean danbolintero kargua hutsik geratu zen, eta Tolosan ofizioa ikasten ari zen herritar batek²² bere burua aurkeztu zuen posturako; udalbatzarrak onartu egin zuen. Karguan 56 urte igaro ondoren, osasun-arazoak zirela medio danborra jotzeari utzi behar izan zion, eta bere eginkizunekin ezin jarraiturik, udalari diruz laguntzeko eskatu zion, baina horrek erantzun zion egindako lana eskertu besterik ezin ziola egin.

1900etik 1921era hainbat danbolinterok izan zuten herria danborsoinuaz alaitzeko zeregina. Postuak hainbesteko ezegonkortasuna zuenez, udalak danbolinteroaren soldata 300 pezetara igo zuen. Horrez gain, baldintza hauek ezarri zituen:

- 1) Bere jardunean euskal doinuak jo behar zituen, eta, danbolinteroan oharu gabe bikoteran batek dantza lotuari ekiten bazion, berehala gelditu edo isildu beharko zuen.
- 2) Jo behar zituen piezak sueltoan dantzatzekoak izan behar zuten.
- 3) Igande eta jaiegunetako arratsaldeetan arituko zen. Urritik apirilera 16:00etatik 18:00etara, eta maiatzetik irailera, 17:00etatik 20:00etara.
- 4) Familietako dolua gordetzeko inguruko etxeetan hildakoren bat zegoenean ez zuen joko.
- 5) Herriko plazan egingo zuen bere saioa, eta, euria ari zuenean, udaletxeko arkupeetan. Saioa hasi aurretik, dantzara dei egiteko, kalejira bat jo behar zuen.
- 6) Igande eta jaiegunetan, 09:00etan egin behar zuen birlilketara, edo 08:00etako mezaren ondoren.
- 7) Herriko jai guztietara agertu behar zuen.

22. AUA, 007-15

- 8) Herritarren urtebetetzea edo eguna zenean, bere etxe aurrean nahi zuena jo zezakeen.
- 9) Herritik kanpora danbolina jotzera ateratzeko, aurrez alkatearen baimena lortu behar zuen.
- 10) Jai edo igande berezietan, herri-batzarrari elizara lagundu eta prozesioan ibiliko zen.

Baldintzak ezarri ondoren, lehen danbolinteroak urte luzez herriko alondero izan zena hautatu zuten, M. M. Imaz Peña. Aukeraketan, kontuan izan zuten txistularitza oso gogokoa zuela eta txisturako egindako partiturak ere bazituela.

Espainiako gerra etorri zen gero, eta ordura arteko udal-ardura-dunak kargutik kendu zituzten herriko karlistek, eta, aurrekoen ordez, beraien buruak izendatu zituzten karguetarako. Ondorioz, hainbat udal-funtzionario, Euskal Nazionalistak zirelakoan, kargutik kendu zituzten, eta, beraien ordez, herriko karlistak ipini.

1937ko apirilean espediente politikoa ireki eta kargutik kendu zituzten artean zegoen M. M. Imaz Peña ere. Hainbat urtez kargutik kenduta egon ondoren, ordea, 1942an berriro izendatu zuten. Danbolinteroaz gain, 1936an atabalero-laguntzaile izendatu zutena ere, F. Mujika Zeberio, kargutik kendu zuten arrazoi berengatik.

Danbolinteroak 1942an berriro kargurako izendaturik, hainbat atabal-jotzaile izan zituen laguntzaile, eta, ondoren, 1951n bere seme J. Imaz Urkia izendatu zuten atabal-jotzaile. Aita-semeek urte askoan jarraitu zuten herriko jaietan eta jaiegun berezietan giroa alaitzen beste bi txistulari lagun zituztela, D. Barandiaran eta S. Auzmendi.

Dendak

Ataungo janari-denden lehen aipamenak 1761ekoak dira, udalak dendariei erresuma arrotzetatik ekarri eta herrian saldutako jeneroen aitorpena eskatu zienekoak. Udalaren aginduak jarraitu eta urteko lehen egunetik saldu zituzten produktuen aitorpena egitera hamabi emakume agertu ziren (bikotekiderik gabeak, ezkonduak nahiz alargunak). Donostian, Tolosan eta Bilbon erosi omen zituzten azukrea, kanela eta hainbat espezia (besteak beste, iltzea eta piper-hautsa)²³, gero herrian saltzeko.

1762an, Madrilgo Ogasunaren aginduz, udalak beste ikerketa bat egin zuen. Kasu hartan estatuak zera jakin nahi zuen, Ingalaterratik eta haren menpeko lurraldeetatik zein salgai ekartzen zituzten. Agindua bideratzeko ardura *Aduanilla*-ko administrariari eta zaintzaileari eman zieten herriko agintariak.

Taula honetan jaso ditugu Ataunen izan ziren denden datuak:

23. GAO.PT.1920-329 orria.

DENDAREN IZENA	KOKALEKUA	AIPAMENEN URTEA	PRODUKTUAK	OHARRAK
Oteizarene ²⁴ . Teresanea eta Dominikanea ere esan izan zaio. Gaur egun, Barriola-enea deitzen zaio.	Astigarraga auzoa	1754	Oihalak	Senar-emazte bikote batek kudeatzen zuen denda. 1755ean herritar bat auzitara eraman zuten, erosketak egin eta ez zituelako ordaindu; 86,11 errealeko zorra utzi zuen.
Donjuanenea		1762	Oihalak	<i>Aduanilla</i> -ko zaintzaileak 11 kana artile urdin sendo eta bi kana eta erdi oihal beltz aurkitu zizkion. Etxekoandreak aitortu zuenez, bi oihalak salduta zituen.
Donjuanenea		1760	Oihalak Argizariz egin-dako produktuak Txerrikia Produktu txikiak Tabakoa* ²⁵	Dendaria ezkondu zen arren, 1760rako gazterik alargunduta zegoen, eta bere gain zuen dendaren ardura. <i>Aduanilla</i> -ko zaintzaileak hiru kana eta erdi oihal aurkitu zion, eta etxekoandreak aitortu zuen bere haurrak janzteko zuela oihalaren erdia eta beste erdia salgai zeukala. Aipatutako urtean testamentua egin zuen, eta bertan ageri da herriko hainbat herritarrek zorrak zituztela haren dendan.

24 AGG/GAO.PT.1921-102 orria.

25 *XVIII. mendetik XX.era bederatzi tabako saltzaile edo estankero egon dira Ataunen. Artxiboko agirieta ageri denez, gainera, emakumea izan zen tabako-saltzen jardun zuen lehena (XVIII. mendearen bigarren erdian), Ospital etxeko J.M. Zabala. Hark tabakoa Donostian erosten zuen, eta alkate zegoenari baimena eskatu behar izaten zion tabako hostoa eta hautsa erosi eta Donostiatick Atauna garraiatzeko.

Iturralde ²⁶	Arroondo auzoa	1762	Janaria Haragia Ardoa	Senar-emazteek kudeatzen zuten 1762an ikuskatzaileak bisita bat egin zionean; ez zuen ezer salagarririk aurkitu.
Zaindegi		1762 eta 1843	Balea-olioa	1843an plazan balea-olioa eta -haragia saltzeko baimena lortu zuen. Errejidoreek ezarritako prezioan saldu beharko zuen.
Sariarte garakoa	Ergoiena auzoa	1765	Janari-denda Tabakoa ²⁷	Emakume alargun bat zen dendaren arduraduna. Tabakoa ere saltzen zuen, eta Donostiatik lau arroba hosto eta arroba bat hauts ekarri behar zituenez, eragozpenik eta enbarazurik inork jar ez ziezaion, 1765eko irailan, Ataungo Udalari baimena eskatu zion
Peñanea Jatorrizko izena: Antonione garakoa. Arlausa berri izena ere ageri da		1776	Janzteko arropak Ehule-gauzak Bitxiak XIX. mende amaieran Janari-denda	1776an eraiki zuten etxea, eta urte horretan bertan denda ireki. Peña abizeneko gizon bat eta haren emaztea bizi izan ziren etxe horretan, eta hortik datorkio gaur egungo izena. XIX. mendearen amaieran, senar-emazte haien semeak eta haren emazteak janari-denda ireki zuten. 36ko gerraren ondoren errazionamendua banatzen zutenetako denda izan zen. Sendian jarraipenik ez eta, adinean aurrera eginda, denda itxi zuten.
			XX. mendea Estankoa	Janari-denda itxi ondoren, estankoa ireki zuten. Etxearen bigarren solairuan lokutorioa edo telefono publikoa egon zen

²⁶ AGG/GAO. PT.1921 – 102 orria.

²⁷ AUA, 198-04: Artxiboko agiriak arakatuz, 1759an bi gizonekz kori tabakoarekin kontrabandoan ibiltzeagatik ipinitako salaketa bat aurkitu dugu. Ez ziren ordea ezkututaka tabakoa herrira sartu zuten bakarrak. 1759-1760 urteetan zehar oso jarduera ohikoa izan zen. Horren adierazle dira herriko kartzelan ipinitako salaketak.

Astigarraga ²⁸	Astigarraga auzoa	1810	Edaria saltzeko denda	Agirietan ageri denez, senar-emazte bikote batek edariak saltzeko denda zuen, eta 1810ean udalak salatu egin zituen, arauak hautsi eta pattarra edo aguardienta saldu zutelako.
Santiagoenea		1844	Balea-haragia eta balea-olioa saltzeko balimena zuen. XIX. mendean gozogle bat ere egon zen. Baita Arratibel azpikon, Paskiñanen eta Ospitalen ere.	Etxe horretan bizi zen gizonekoak Arrondo zein Astigarraga auzoetan balekia eta balea-olioa saltzeko balimena eskuratu zuen urte hartarako. Errejidooreek ezarritako prezioetan saldu behariko zituen salgaiak, eta beste hainbat baldintza ere bete jarri zizkieten. Baldintzak beteko zituela ziurtatzeko, gainera, fidantza bat ordaindu behariko zuen.

28. AUA-004-01

Kooperatiba	Graziñe zaharra etxean	1850	Ardi-ileea eta abereen larruak	1850 urte ingurutik ardi-ileea eta abereen naruuen salerosten zuten seinar-emazte batzuek, eta, gero, seme batek jarraitu zuen ofizio horretan.
		1924	Janari-denda	Beasaingo CAF lanategiak langileentzako ekonomatua edo janari-denda irekitzeko baimena eskatu zion udalari. <i>Kapafie</i> aritzen zenak (kapagin: kapak egin eta artile garbitu gabeekin lan egiten zuena) hartu zuen ekonomatoaren ardura, T. Kerejeta Etxeberria semeak. CAFek denda utzi ondoren ere, negozioarekin jarraitu zuen horrek.
	Taberna berri etxea	1929	Janari-denda Artilea	Graziñe-zaharra izeneko etxea txiki geratzen zitzaieela eta, 1929an Taberna Berri erosi zuten T. Kerejeta Etxeberriak eta emazteak, eta negozioa etxe horretara mugitu zuten. Aralarako artzainek ekarri ohi zioten artilea, baina arkume, untxi eta beste zenbait piztiairen narruak biltzera semeak bidaltzen zituen.
		1940	Janari-denda	Herritarrentzat janari-eskasia etorri zen urteetan, gerrako errazionamendua banatzen zuten dendetako bat zen.
		1956 (gutxi gorabehera)	Tailerra	1956an Iztator baserriko estalpean nekazaritzako tresnak egiteko tailerra sortu zuten, baina berehala lekuz txiki geratu zitzaenez, janari-denda kendu eta horra eraman zuten tailerra. Urte batzuen ostean, tresneria hori egiteari utzi zioten, eta burdinoletarako edo fundizioetarako piezatxoak egiten hasi ziren.
		1964	Elkartea	Tailerra lekuz aldatu zuten, eta lokala Aitzkoate elkarteari alokatu zioten.

Anguloenea XIX. mende erdira arte Antonetxe				Emakume alargun bat ageri da bere senarraren familiakoa izandako denda horren arduradun.
	XIX. mendearen erdia	Janari-denda		
	1900	Txokolatea Artilea		M. Zubizarreta Agirrek hartu zuen dendaren ardura, eta txokolatea egin eta saltzen hasi zen. Horrez gain, artilea salerosteko negozio bat ere ageri da haren izenean.
	1935etik 1963ra	Janaria Bitxiak eta kinkileriak		Donostiako Foru Aldundian telefonista zegoen emakume ataundiar batek hartu zuen dendaren ardura, P. Etxeberria Munduatek. Izan ere, Aldundiko karguan zegoela senargai nazionalista zuelako kargutik kendu eta herriz herri ibilarazi zuten. Egoerarekin nazkatuta, berriro jaioterrira itzultzea erabaki zuen. Denda alokatu eta bertan ekin zion bizimodu berriari.
	1978	Aurrezki-kutxa Galtzerdi- konponketa		Bi gela zituen etxe horrek. Batean, Aurrezki Kutxa Muzizipalaren bulegoa ireki zuten, eta, bestean, emakume bat aritzen zen emakumezkoen kristalezko "galtzerdi" edo sareztatutak konpontzen, Etxebeltzeko J. Agirre.

Sindikatoa	Graziña berri etxea (San Martin)	XIX. mendearen bigarren erdian	Janari-denda Bitxi-denda	Janariak eta bitxiak saltzeaz gain, sastrearen ere bazen dendako ardura zuten gizona.
Artillazpikoa ²⁹	San Gregorio	XIX. mendearen bigarren erdia	Abereratsuen Haziak Ardoa Janaria	<p>Herriko baserritarrek ireki zuten almazen hori, egunerokoan beharrezkoak zituzten produktuak ahalik eta preziorik egokienean eskuratzeko. Partaide izateko, baserritarrek bazkide egin behar zuten, eta dendaren gestioaz arduratzeko junta osatu zuten, urtero aldatzen zena. Dendara zetorrena hartzeko, berriz, pertsona edo familia bat aukeratzeko zuten, irabazien araberako soldatarekin. 1955-1975 urteen bitartean, esaterako, saltzen zenaren %2 jasotzen zuten saltzaileak.</p> <p>Txokolatea eta janaria saltzen zituzten denda horretan, eta, gerraren ostean, errazionamendua banatu zuten.</p> <p>1910. urtean salaketa ipini zioten dendako arduradunari. Zortzi kaxatan 288 litro petrolio zituelako eta horren berri ez zuelako eman alondogian. Hala, zergak ez zituztenez ordaindu, auzi administratibo bat ireki zitzaion. Dendariak esan zuten alondogian berri ematea ahaztu egin zitzaiola. Epaiketa egin ostean, epaileak erabaki zuten dendaria ab-solbitzea, baina zergak ez zizkion barkatu, 288 litro petrolioren zergak ordaindu beharko zituen³⁰.</p> <p>1950ean Dorronsoro-Goikoetxea familiak hartu zuten dendaren ardura, eta, 2003an itxi zen arte, beraiek eraman zuten dendaren martxa.</p>

29. AUA-344-3

30. AUA, 3-44, 3

Imaz Berri edo Ezkalune	San Gregorio	XIX. mendearen bigarren erdia	Goxo-denda	Gozokiak egiten zituen konfitero bat ageri da.
Taberna Etxe Berri		1930	Pentsuak Janaria Ardoa	1930ean ireki zuten San Gregorioko baserriarrek beraien sindikatua, "Alkartua" izenekoa. 1936an, Nafarroatik etorritako erreketeeek bertan zegoen jenero guztia bahitu eta eraman egin zuten. 1929ko irailean, <i>El Dia</i> egunkarian sindikatu horri buruzko artikulua bat argitaratu zuten.
Taberna Etxe Berri		1870	Janaria Ardoa	
Taberna Etxe Berri		1944	Janaria Ardoa Zapatilak eta oinetakoak	J. Munduate Imaz eta F. Aierdi Goikoetxea senar-emazteek janari-denda ireki zuten. Eskaintza aidetik ez zuten besteekiko ezberdintasunik, baina erosketak egindakoan kupoiak eskaintzen zizkieten bezeroei eta hori berria zen Ataunen. Hau da, egindako erosketaren arabera, hainbat puntu ematen zizkieten bezeroei, liburuxka batean pegatze-ko. Liburutxo puntuz betetzear, bezeroek hainbat opariren artean aukeratzen zuten. 1950ean Lauzturrieta Berriko J.M. Aierbe Barandiaranek hartu zuen negozioaren ardura denbora laburrez. Jarraian, Munduate-Aierdi senar-emazteek hartu zuten, eta bertan jardun zuten 1957ra arte.

<p>Kaxeta</p>	<p>Aia</p>	<p>1888</p>	<p>Taberna Janari-denda Abereentzako pentsu-almazena</p>	<p>1940ko hamarkadan, errazionamendua banatzen zen, eta etxejabe bakoitzak, bere karta etxean eduki ordez, dendan bertan eduki ohi zuten.</p>
<p>JOXE BIKUÑA AGIRRE 1945ean <i>olioa izugarri kobratzen zuten.</i> <i>Gogoan dut egun batean bizikletan</i> <i>Kaxetara joan nintzela eta olio</i> <i>litroa 80 pezeta ordaindu nuela.</i> <i>Gaur egungo diruaren balioetara</i> <i>pasatuta, milaka pezeta izango</i> <i>ziren.</i></p>				<p>A. Apalategi eta senarra ziren arduradunak. Ostatu hartu ohi zutenen artean ziren basagizonak, mandazainak eta Nafarroatik etorri edota Nafarroara zihoazen garraiolariak. 1999ko abenduan ibi zituzten taberna eta janari-denda.</p>
<p>Sakristauenea</p>	<p>Elbarrena</p>	<p>1891</p>	<p>Txokolatea Elizarako kandelak eta argizaria³¹</p>	<p>Sakristau lanaz gain, etxe honetako aitak, eta ondoren semeak, txokolatea egin eta saltzen zuen, baita elizarako kandela argizari eta abarrak ere. Salmenta haiek egiteko, sakristau jaunak baimena eskatu zion udalari 1891ko irailean. Horiez gain, ardoak eta likoreak ere saltzeko baimena eskatu zuen. Gero, arduradunaren alabak hartu zuen negozioa, eta, orduara arte saltzen zituzten produktuez gain, janaria ere saltzen hasi zen.</p>

31. *XVIII eta XIX. mendeetan Ataunen saltzen ziren kandelak herrian bertan eginak ziren; tarte horretan lau gizonek, behimik, jardun baitzuten zeregin horretan.

Kerejetaenea	Elbarrena	1900 XX. mendean dearen erdi aldera	Janari-denda Ardoa	Etxea eraiki zuena ofizioz barberua zen, baina sendagile, dentista eta oinetakoak konpontzen ere lanak egiten zituen. Horrez gain, barberutza eta oinetako konpontzen erakusten ere aritu zen. Aita jubilatua eta etxe azpiko lokala hutsik geratu zenez, J.B. Kerejeta Izagirre etxeko semeak janari-denda eta ardo-almazena ireki zituen M.F. Izagirre Galparsoro emaztearen laguntzarekin. 2002ra arte irekita egon zen.
Mantxintonea		1900	Ardoa	Urte horretan Idiazabalgo emakume baten izenean ordaintzen zen ardoa saltzeko baimena.
Txomiñonea		1944	Janari-denda Estankoa	Negozioa J.A. Barandiaran Barandiaranen izenean zegoen. Janari-dendaz gain, estankoa ere bazegoen eta argia egiteko kinkearen zat petrolioa ere saltzen zuten. 1969 inguruan itxi zuten denda.
		1925	Ardoa saltzeko almazena	1925ean F. Arana Navarro eta J. Barandiaran Imazek etxea erosi eta ardoa saltzeko almazena ireki zuten. Gerora, taberna ere ireki behar izan zuten. Horrez gain, senarra arotza zen, eta hildakoen kutxak ere egiten zituen. 1995ean, etxe bat eraikitzeke asmoz, etxe zaharra bota egin zuten, eta denda ere orduan itxi zuten.

Tabla	1944 1960	Janari-denda Harategia	Etxe horretan bizi ziren F. Etxeberria eta M. Begiristain senar-emazteak, eta haiek ireki zuten denda, 1944an, baita berehala itxi ere, 1948an. Gerora, J. Sukia Izaskunek harategia ireki zuen lokal berean, baina hark ere ez zuen asko iraun.
Hirubide	1953	Janari-denda	K. Dorronoro Zabaleta eta I. Dorronoro Goikoetxea senar-emazteek ireki zuten janari-denda hori, eta horrez gain, okindegia ere bazuten. Bi negozioak 1977an itxi zituzten ³²
Antonione Azpikoa	1955	Janari-denda	Etxe horretan bertan bizi zen L. Goikoetxea Munduate andrea, eta udalak baimena eman zion janari-denda irekitzeko. Dendaz gain, hainbat urtean taberna ere izan zuen, baina denda baino lehenago itxi zuen. Taberna itxi eta tabemarekin jarraitu zuen 2007ko San Martin egunaren bezperara arte.
Etxe alai	1956	Janaria Ardoa Pentsua	1956an lazkaotar batek ireki zuen denda hori. Handik bi urtera, negozioaren ardura A. Munduate Usabiagak hartu zuen, eta hark izan zuen ardura 1968ra arte. Garai haietan, lokalaren alokairua hileko 500 pezeta ordaintzen zituen (3€).

32. Luisa Mujika Zurutuak gaztetan 14 urte igaro zituen etxe horretan neska, eta produktu ugari saltzen ziren dendan: garbantzuak, babarrun zuria, kafea, azukrea, ardoa, irina, xaboi, mertzeriako produktuak, alpagatak, sukaldeko ontziak, animalientzako pentsuak... Ez zen, ordea, 1940ko hamarkadan San Gregorion zegoen denda bakarra, parean Artillazpiko etxean ere antzeko produktuak saltzen zuten denda zegoen, eta bien artean konpetentzia handia omen. Hirubideko nagusia, inoiz, Artillazpikora zein sartzen zen begira egoten omen zen, kontrolatzen, eta kasu batzuetan, gero, baita bezeroei esan ere beste dendan sartzen ikusi zituela. Aipatu bezala, bietan antzeko produktuak saltzen zituzten, baina Hirubiden, Artillazpikon ez bezala, animalientzako pentsuak ere saltzen zituzten. Hori horrela, auzoko hainbat baserriar elkartu eta "baserriarren sindikatua" sortu zuten. Animalientzako janak edo baserriarako behar zituzten produktuak (garia, artoa, garagarra) handizka erosten zituzten, eta hartara, merkeago ateratzen zituzten. 36ko gerra hasi eta naparrak herrian sartu zirenean, San Gregorioko Hirubide etxean ere sartu ziren, eta bertatik baliozko gauzak kendu zituzkien sindikatuko.

Rafaelenea		1957	Janari-denda	Etxeko alaba Pilarrek tabernaren ondoan janari-denda ireki zuen, baita berehala itxi ere.
Aranburuenea		1958	Janari-denda	J. Inazio Aierbe eta M. Urdangarin senar-emazteak izan ziren dendaren arduradun, baina ez luzaroan, berehala itxi zuten eta.
Upategi		1963	Janari-denda	Janari-denda D. Barandiaran Albisu eta T. Agirrek ireki zuten. Aurrez, emakumeen ile-apaindegia egon zen, eta haren aurretik, oinetakoak konpontzeko tailerra (M. M. Imaz Peña).
Troskaeta	San Martin	1966	Janari-denda	Aurrez taberna egon zen lekuan, M. Sukia Izaskunek janari-denda ireki zuen.
Patxi	Gure Izarra etxea	1975	Janaria Aberentzako pentsua	Denda irekitzeko baimena eskatu zioten udalari P. Erauskinek eta B. Barandiaranek 1975ean. Senar-emazte horiei gerora alabak lagundu zien dendaren martxa eramaten; 1996an itxi zuten.
Erosle	Alzanipe	1983	Janari-denda	1983ko uztailetik 1999 ingurura eduki zuen irekita M.K. Araneta Goikoetxeak.
Lizardi		1985	Janari- eta fruta-denda Bitxi-denda eta mertzeria	Bata bestearen ondoan ireki zituzten bi denda horiek. Batetik, S. Yol-di Mujikaren janari- eta fruta-denda eta, bestetik, M.K. Auzmendiaren mertzeria.

<p>Hizki</p>	<p>Arzubia</p>	<p>2014ko ekainean ireki zuten, eta 2018ko urte amaieran ixtekoak dira.</p>	<p>Estantkoa da, baina, tabakoaz gain, loteria, eskolako materiala, paper-dendako gauzak, gozokiak eta beste saltzen dituzte.</p>	<p>I. Esnaolak ireki zuen denda, eta gaur egun, J. Galparsoro bertako langilea da. Jendeak autoa hartu eta Lazkaora eta Beasaina joateko ohitura du; herrian kontsumitzea kosta egiten zaie askori. Ahaztutako gauzak erosteko denda da. Ostiral arratsaldetan umeez gozokiak erosten dituzte.</p>
---------------------	----------------	---	---	--

Ehungintza eta zapatagintza

Ehungintza eta zapatagintza, industria gisa, 1850eko hamarkadaren bueltan hasi ziren sortzen, baina horrek ez du esan nahi aurrez ez zenik existitzen. Industria-aroaren aurretik, ohikoa baitzen landa-inguruneetan eskuzko ehundegiak izatea, etxean oihalak egin eta gero arropak egiteko, baita oinetakoak egiteko larrua lantzen zekien jendea egotea ere, izan ere, gaur egungo arropa aukerarik ez da egon duela 30-40 bat urtera arte. Historian zehar aurrerapenak garatzen joan ahala, dendetako arropa nahiz oinetako eskaintza ugartzen joan da. Duela gutxira arte, 1980ko hamarkadara arte gutxi gorabehera, ordea, normalena zen dendan edota herriz herri oihal saltzen ibiltzen zirenei oihalak erosi eta norberak arropak etxean egitea. Telak bizkarrean hartu eta bate-tik bestera haiek saltzen ibiltzen zirenei *bizkartzaleak* esaten zieten.

Lihoaren industria

Ikazkintzarekin batera, lihogintza izan da Ataunen langintzarik hedatuena, eta zaharrenetakoa. Herria sortu zen garaian jada lantzen zuten lihoa, eta gero hamarrenak ordaintzeko erabiltzen zuten. Halere, lihoaren erabilera nagusia arropak egiteko haria egitea zen; landarearen fibrak erabiltzen zituzten horretarako. Lihogintzari

FELISA ARZA

Etxean ez genuen urik, eta auzoko iturritik eramaten genuen etxerako nahiz gauduentzat behar genuena.

Lixiba egiteko, 15 minutuko bidea egiten genuen animaliekin errekarara. Han arropak harrian jo, tinan pare bat orduz arropa egosi eta gero errekan astintzen genuen. Tinan sartu aurretik, arropei jaboia ematen genien, eta trapu batean sutako hautsa ere jartzen genuen. Gero, etxean alambrean zabaltzen genituen.

LUISA MUJIKAZURUTUZA

Baserrian lixiba egiten zen, gehiena hariko arropa zelako. Arropa egiteko kua-drilla juntatzen ziren. Neguan beste lanik ez zegoenean emakumeak elkartzen ziren haria egiteko.

Iturria: ahotsak.eus

buruzko aipamenak ere goiztiarrak dira, artxihoan jasota dago 1691 urtean emakume bat mendian lihoa lantzen ari zela³³.

Lihoa lur malkartsu eta altuetan ipintzen zuten; lur emankorra-
goak zirenez, kalitate hobeko lihoa lortzen baitzuten, finagoa. Gunerik
altuenetan linasoro asko egon dira, eta horren adierazgarri asko topa
daitezke toponimian.

Bi liho mota ereiten ziren Ataur: *axamea* edo *lino txikie* izenekoa
eta *agorlinoa* edo *naparlinoa*³⁴. Lehenaren barnean ere bi motatakoak
bereizten ziren: maiatzean lantzen zen liho fina eta martxokoa, arrun-
tagoa. Agorlinoa zen ugariena, eta izen horiek hartzen zituen irailaren
azken aldera ereiten zelako eta, dirudienez, Nafarroatik ekarria zelako.

Uztail amaieran jaso ohi zuten lihoa normalean, baina batzuetan
bilketa maiatzera aurreratzen zuten, gero artoa egiteko. Kasu horretan
lihoa gero hamabost bat egunez izaten zuten larrainean (ate aurrean)
bigundu zedin.

Lihoari gero haziak kentzen zizkieten. XIX. mendean haziak farma-
zeutikei³⁵ saltzen zizkieten. Juan Arinen arabera, 1850-1900 urteetan,
lihoaren hazia 10 pezetan saldu zieten.

Haziak kendu ondoren, liho landareak uretan sartzen zituzten 15-20
egunez. Tarte horretan, tinta urdina eta izan zitzakeen zikinkeriak solta-
tzen zituen, eta gero uretatik atera eta hamar bat egunez atarian izaten
zuten, lehortu eta bigundu zedin.

Antzina, urtero, abuztu erditik urri hasierara, hogeinaka neska joaten
ziren Nafarroara lihoa biltzera. Egunean liho libra bat eta eguneko mante-
nua irabazten zituzten. Igandeetan nahiz lanik egiten ez zuten egunetan,
janaria beraiek ordaindu behar izaten zuten. Neska haiei *trankariak*³⁶
esaten zieten. Udara Nafarroan lanean pasatu eta herrira itzultzen ziren
egunean, herrian festa giroa sortzen zen. Bi astoren gainean ekartzen
zituzten lanabesak eta ordain gisara irabazitako liho-fardoak.

Liho-soroak erein, bildu eta prestatzeaz gain, liho hori landu ere
egin behar izaten zen gero ehun bihurtzeko. Lan hori emakumeen esku
egon ohi zen, gazteenen esku batez ere. Taldean lan egitea gustatzen

33. Arin Dorronsoro, J., 1961

34. Arin Dorronsoro, J., 1961

35. Aranburu Ugartemendia, P.J., 2003.

36. Arin Dorronsoro, J., 1961

zitzaien, eta horretarako aurrez etxe bat izendatzen zuten, eta bertan elkartzen ziren tertulia atseginean. Maiz gauerdira arte ere aritzen ziren. Horrelakoetan, gaztaina erreak eta taloa esnearekin afaltzen zuten, eta batzuetan, mutilak ere joaten ziren. Egun horietan pandero soinu eta dantza artean luzatzen zitzaien gaua. Festa giro horretan, neskak dantzari eta abesten aritzen ziren. Horren adierazle dira Don Juan Txikik jaso zituen kanta, *Suasle kantak*³⁷, hona dakartzagunak. Hori bai, festa haietan ezkondu gabeko emakumeek soilik parte hartzen zuten, ezkondukoan etxeakoandre bihurtu eta senarrari baserriko lanetan laguntzera pasatzen baitziren.

	1	2	3
	<i>Asunaren ondoan</i>	<i>Otean-otear lorari</i>	<i>Sagarraren</i>
	<i>Perejille jayo</i>	<i>Txorie gañean kantari</i>	<i>Adarraren</i>
	<i>Juliana presentekoa</i>	<i>Sagar eder ondoan</i>	<i>Gorde piñe beltza</i>
	<i>Bentanan oi dago.</i>	<i>Julianan zankoa</i>	<i>Bart amarretan</i>
S U A S L E	<i>Sortu dedi barruna</i>	<i>Ederra ta bapoa</i>	<i>Ostu diate</i>
	<i>Zer egiten dago</i>	<i>Arentxen miñek</i>	<i>Juliana hermosa</i>
	<i>Juliana presenteari</i>	<i>Igarten dago</i>	<i>Zein ote zan</i>
	<i>Begira omen dago.</i>	<i>...(Jose Barretzekoa)</i>	<i>Nor ote zan</i>
			<i>Alako lapurre?</i>
	3	<i>....(----)....</i>	
	<i>Larre berritan</i>	<i>Begira-begira nago</i>	<i>Pikaro zalolume</i>
	<i>Eperrak dira</i>	<i>Zein geran ederrago</i>	
K A N T A K	<i>Pagadietan</i>	<i>Emen dan ederrena</i>	
	<i>Usoa dantzan</i>	<i>...dago... (...Mikelatxo...)</i>	
	<i>Ontxo txiki</i>	<i>Orren konponiturik</i>	
	<i>Pausua lagun</i>	<i>Emen iñor eztago</i>	
	<i>Nik alegere</i>	<i>Orrentzat konponitue</i>	
	<i>Gogoa.</i>	<i>...en dago... (..Barandiaranen..)</i>	
	<i>Julianak ere bear emen</i>		
	<i>do</i>		
	<i>Bera dan</i>		
	<i>Bezelakoa</i>		
	<i>Bea ona ta</i>		
	<i>Obea ...(...Josantonio...)</i>		

37. Arin Dorronsoro, J., Don Juan Arinen II. liburukia

Lihoa ondu eta samurtu ostean, findu egiten zen, eta gero txarran-txatu (kardatu). Prozesu hari esker lortzen zuten lihoa mehea ateratzea.

Etxarriko alkateak ohar bat bidali zuen Atauna, animaliak liho-sailetan sartu eta triskantzak egiten zituztela eta neurriak hartu beharko zirela. AUA, 74-64

Horretarako tresneria ere bazuten eta agirietan ageri denez, 1559an Santiago Ospitalean bazen karramarro bat (lera, eskuarea edo *rastrilloa*). Findutako haria erabiltzen zen gero haria egiteko.

Haria eginda zegoenean, zuritu egin behar izaten zen. Horretarako, haritz- edo pago-egurrez egindako tinak erabiltzen zituzten. Tinen ipurdian lastoa jartzen zuten; gero, liho sortak, eta, azkenik, sukaldeko hautsa erramu hosto batekin, usaina emateko. Etxean ez bazuten nahiko errauts, auzokoei eskatzen zieten. Prozesua amaitzeko, ur beroa botatzen zuten tinara, gero eta beroagoa. Ura bota ahala, ur hori azpitik ateratzen zen, eta hura jaso eta berrerabili egiten zuten. Garbiketa lan horri *lixiba* deitzen zitzaion.

Haria zurututa eta prest zegoenean, oihala egiteko prozesua hasten zen. Horretarako, *eultegiak* edo *euletxeak* zeuden. Antzina, ehungailu propioa zuten etxe batzuk zeuden, eta haietan egiten zituzten emakumeek etxerako behar zituzten arropa zuriak.

Erabilera partikularreko ehundegiez gain, herritarren zerbitzurako zeudenak ere egoten ziren, eta ehungile profesionalak aritzen ziren beraietan oihalak egiten. 1799an, esaterako, Juan Arinen *Industrias rurales en Ataun; la del lino y la del carbón* artikuluan ageri denez, 16 ehungile zeuden Ataunen; 15 emakume eta gizon bat. XIX. mende amaieran, ehundegiak zeuden Urdantxulon, Antonione Garakoan, Larratze Txikian, Elizalde-etxean, Ugalde Txikin, Iturritza Berrin, Denda Berrin, Loidin eta Aranberrin. Azken horretan 1916ra arte lan egin zuten.

Lihozko oihal zatien balioa aldatu egiten zen kalitatearen arabera. XIX. mendean, esaterako, apaindurak egiten zizkietenak gari lakari batean saltzen zituzten (3,6 kilo), eta apaindurarik gabeak, lisoak, 3 errealetan³⁸.

38. Arin Dorronsoro, J., Don Juan Arinen II. liburukia

Liho-oihalarekin egiten zituzten alkandora, galtzak, ohazalak, toallak, eta abar. Orduan ere, gizon eta emakumeen artean baziren ezberdintasunak eta hori arropetan ere nabaritzen zen. Besteak beste, kalitatean. Izan ere, gizonezkoen alkandora edo atorrak egiteko kalitate oneko hari meheak erabiltzen zituzten, eta, beraienak egiteko, kalitate eskasagoko hariak. Horrez gain, nolako arropa motatarako zen, material bat edo bestea aukeratuko zuten. Pertsonen azala ukitzen zuten arropak egiteko, liho-ehunak erabiltzen zituzten, eta azala ukitzen ez zuten prendak egiteko, berriz, artilea edo larrua.

Besteentzat arropak egiteaz gain, neska gazteek beraien arrea ere prestatu behar izaten zuten. Hau da, ezkondu ondoren etxean beharko zituzten izarak, toallak eta abarrak. Ohiturak zekarren etxean eginak izan behar zutela, etxeko lihoarekin. Etxean nahikoa oihal ez eta norbaitek azokan erosten bazuen arrea osatzeko behar zuen oihala, auzotarrek kritika gogorak egiten zizkieten.

XIX. mende amaierara arte Ataungo ia baserri guztietan lantzen zen lihoa. Hala ere, ez zen herriko beharrak asetzeko lain ekoizten, eta Nafarroatik ekarri behar izaten zuten. XIX. mende amaieran, Frantziatik zetozen oihalak indartsu hasi ziren sartzen, eta, gainera, oihal-industria ere garatuz joan ahala, fabrikak ugaritzen hasi ziren. Frantziatik ekarritako lehen alkandorei *lapur* alkandorak deitzen zieten. Izan ere, kolore iluna zutenez, gutxi ikusten ziren³⁹. Kanpotik ekartzen zituzten oihalen aurka, ezin izan zuten ezer egin lihoa egiten zuten baserritarrek, lantegietan oihal oso merkeak egiten baitzituzten. Ondorioz, lihoa lantzen zuten baserritarrak poliki-poliki zeregin hori albo batera uzten joan ziren.

Artilearen industria

Artilearen industriak garrantzi handia izan du Ataunen historian zehar. 1771n korrejidoreari esan ziotenaren arabera, imajina daiteke Ataungo ardien ilea ez zela kalitate oso onekoa, marregak egiteko baka-rrik balio omen zuen. Baina badirudi urtez urte kalitatea ere hobetzen joan zela. Juan Arin Dorronsorok dioenez⁴⁰, 1787an sortutako artile

39. Arin Dorronsoro, J., Don Juan Arinen II. liburukia

40. Arin Dorronsoro, J., Don Juan Arinen II. liburukia

kopuruak gora egin zuen, eta Tolosara, Bilbora eta Antzuolara saldu zituzten. Herrian ardi-moztaile profesionalak egoten ziren. Badakigu 1793an hiru behintzat bazeudela.

Artilea egiteko maratilik erabiltzen zituzten, eta gero puntuzko oiha-lak etxeetan egiten zituzten. Zailtasunen bat zutenak, berriz, *kapaindegi* izeneko ehundegietan egiten zituzten. 1828an zazpi etxe edo baserritan zeuden kapainak: Lazkautegin, Arbotonetan, Matxintxun, Arin-etxeberrian, Txetañenean, Goetxean eta Elizkanbaran.

Artilez egiten zituzten kapusaiak, txartesak, *alprojak* (alforjak), galtzerdiak eta abarkak lotzeko lokarriak, goaita izenekoak. Lehenak kapaindegietan egiten zituzten, eta artilezko galtzerdiak eta abarken lokarriak norberak egiten zituen etxean. Horiez gain, ehundegietan, burusiak (manta), kapak eta mantarrak (abarken azpitik janzen zituzten) ere egiten zituzten.

Jostunak eta sastreak

Esan bezala, ehunaren industria aspaldikoa da Ataunen, XVII. mendea ezkerro ageri dira lihoarekin zein artilearekin haria egiten zuten zantzuak. Hari hori gero ehun bihurtu behar zen, eta arropa forma eman, arropak eginda saltzen zituen dendarik ez baita izan duela 100 bat urtera arte, baina orduan ere normalena arropak etxean egi-tea zen; joera berria joan deneko 30-40 urtetik honakoa da. Ordura arte, oiha-lak dendetan edo herriz herri oiha-lak bizkarrean hartuta tela saltzen ibiltzen zenari erosten zitzaizkion, eta gero arropak etxean egin. Horrez gain, gaur egungo aukerarik ez zegoenez, arroparen bat apurtu-takoan konponketak egiten zitzaizkien, iraunarazteko. Mahonezko gal-tzak, esaterako, etxean bertan egiten zituzten. Hala dio Sabino Auzmendi Arratibelek, eta gehiago iraun zezaten “atze-aurre berriak” ematen zi-tzaizkien. Hau da, ipurdi zein belaun pareetan tela zati gehiago josten

1778an eta 1779an, Karlos erregeak hainbat produktu sartzea debekatu zuen bere lurretan, Gipuzkoa tartean: lihozko jantziak, txapelak, eskularruak, josteko haria, artilezko lokarriak, aurreko mantalak, mediak, poltsak, oheko koltxak... AUA, 12-16

zitzaien gehiago iraun zezaten. Beraienean, izebak egiten omen zituen lan horiek.

Beste zenbait ofizio bezala, beharrezkoa zen josten ikastea eta neskei, eskolan, josten erakusten zieten. XX. mende gehienean zehar neskei esaten zieten ezkontzerako josten eta sukaldean aritzen jakin behar zutela.

Norbere etxerako egin beharreko konponketez gain, kanporako josten zutenak ere ugari izan ziren; emakumeak gehienak. 1702tik 1947ra bitartean jaiotako 38 emakumek

jardun zuten joskintzan; gizon-nezkoetan, berriz, zortzi. Aipagarria da zortzi horietako bost etxe berekoak zirela, aitarengandik semeetara pasatzen baitzen askotan ofizioa.

Aipatu bezala, janzteko behar zituzten arropak etxeetan egiten zituzten, eta, gaur egunetik ikusita, arropek zein janzteko ohituek

aldaketa handiak pairatu dituzte denboran zehar. XIX. mendera arte, emakume zein gizon, denak atorra luzeak edo gonak jantzita ibiltzen ziren; lehen galtzak aipatu mendean agertu ziren. Hala ere, hainbat urtez, gizonak gona erabiltzen jarraitu zuten; batez ere, gaztaroan, eta, batzuetan, baita adinak aurrera eginda ere⁴¹.

Emakumeen janzkerak ere izan ditu aldaketak. Tradizionalki emakumeak

JEXUXA BARANDIARAN *Prakak jantzi zituen lehen emakumeari zigor gisa ilea moztuarazi zioten.*

beti gona luzeak jantzita ibili izan dira. 1950-1960ko hamarkaden bueltara arte ez zuen Ataunen inork galtzarik jantzi. Jexuxa Barandiaranek aipatu zigun galtzak jantzi zituen lehena neska gazte bat izan zela eta,

oso kritikatu izan ondoren, hurrengo neguan-edo emakume ezkondu batek jantzi zituela. Ezkondua egotearena bereziki nabarmendu zuen. Horrez gain, gerruntzea, alkandora zuri mahuka-luzeak, buruko zapia

MARIA SUKIA IZASKUN *Goizeko hiruretan oraindik askotan arropak garbitu eta lehortzen aritzen nintzen. Orduan ez zegoen orain beste aldagarri eta umeak hurrengo egunean eskolara arropa garbiekin joatea nahi izan ezkerro, gauean egin behar izaten ziren garbiketa lanak.*

41. Arin Dorronsoro, J., Don Juan Arinen II. liburukia

**MARTIN ALDASORO
BEGIRISTAIN (1929)**

Alpargatak erabiltzen genituen gehiena; zapatak ere bagenituen, baina pare bakarra.

(iturria: ahotsak.eus)

**TIBURTZIO IZAGIRRE
ARRATIBEL**

Egun gehienak oinutsik pasatzen genituen, oinetakoak ez hausteko; garotan ere hala ibiltzen ginen.

**SABINO AUZMENDI
ARRATIBEL (1926)**

Gomazko zatak eta abarkak erabiltzen genituen. Gomazkoen aurretik, larruzko abarkak ere erabiltzen genituen, baina horiek bustiz gero oso irristakor bihurtzen ziren.

JOSEFA AIERBE ALDASORO

Arropa eta oinetako onak behar ziren festara joateko, eta, guk ez geneuzkanez, ezin joan.

Iturria: ahotsak.eus

eta sorbaldak tapatzeko zapia koloreduna ere erabiltzen zituzten XX. mendearen hasierara arte, behinik behin.

Norberaren egoera zibila azpimarratzearena ez da azken urteetako kontua. XV. mende amaieran eta XVI.aren hasieran, emakumeek janzkerarekin adierazten zuten ezkonduak ziren edo ez. Izan ere, urte haietan itxurak garrantzi handia zuen, eta, ezkondu ondoren, oso garrantzitsua zen itxura ona ematea. Hala, esamesak saihesteko, beraien egoera erakusten zuten oihalezko txano puntadunak jantzita. Ezkongaiak, ostera, ilea motz eta belarri gainean ile-mototsa eraman behar izaten zituzten⁴².

Larruaren erabilera

Oihalez gain, larrua ere erabiltzen zuten jantzi eta osagarriak egiteko. Ahuntzen narruak, esaterako, aurreko mantalak edo *aurre-narruak* egiteko erabiltzen zituzten, eta ardienak sorbaldan jarri eta euritik babesteko. Artzain zaharren zorroak (edo morralak) egiteko ere larrua erabiltzen zuten. Baina ez ziren larruz egindako jantzi bakarrak, abarkak egiteko ere erabiltzen zuten eta. Normalean behi-larruz egiten bazituzten ere, tarteka zaldien zein behorren narruarekin ere egiten zituzten. Liho-haria erabiltzen zuten punta josteko, eta gainerakoa josteko larruzko tira meheak.

42. Torregarai Pagola, E.; Aragón Ruano, A., 2017

Jai egunetarako abarka finagoak egin nahi bazituzten, larrua esnetan sartzen zuten biguntzeko.

Larrua biltzearena ere lanbide bat zen. Joxe Bikuñak kontatu zigunez, artzainei ardi nahiz arkumeen larruak eta ileak jasotzen aritzen ziren pertsona batzuk. Horri esker, artzainek urte onak izan zituzten, diru dezente irabazi zutenak. Gaur egun, ordea, inork ez ditu jasotzen, edota oso diru gutxiren truk, eta hainbat artzaintzat arazo bilakatzen ari dira larruak nahiz ileak; irtenbidea ematea zaila baitago.

Zapatagileak

Abarkez gain, zapatak ere aspalditik ezagutzen zituzten, nahiz eta XIX. mendearen amaierara arte Ataunen ez asko erabili. Hala ere, artxi-boetako agiriei esker, badakigu 1511n jada bazela zapatari bat herrian. Urte hartako maiatzean, Valmedianoko markesa eta Ataungo udal-ordezkariek elkartu ziren, erdibana zuten errotaren alokairua zela eta, eta odol-ordezkarien artean, zapataria ageri da.

XVI. mende amaierako artxibo agirietan, “Zapatari” izeneko etxearen aipamena egiten da, eta horrek pentsarazten digu bertan bizi zenak oinetakoak egingo zituela. 1793an, berriz, hiru zapatari etxe ageri dira: Antonenea, Paskiñane eta Urreta.

Beste hainbat ofizio bezala, zapataginena ere gaizki ikusia zegoen boteretsuen artean. Horren adibide da 1783an *Real Cédula de S.M.* eta kontseiluko partaideek zabalduriko honako agiri hau:

“Se declara que no solo el oficio de curtidor sino también las demás artes y oficios de herrero, sastre, zapatero, carpintero y otros, son honestos y honrados y el uso de ellos no envilece la familia ni la persona que los ejerce, ni la inhabilitan para obtener los empleos municipales de la República en que estén avecindados los artesanos o menestrales que los ejerciten”.

Boteretsuenek ez ezik, gizarteak ere, oro har, ez zituen aintzat hartzen langintza hau ikasteak behar dituen gaitasun eta ezagutzak, baina, hala ere, gurasoetatik semeetara bideratzen joan da. Ez beti, ordea. Zenbait kasutan aitek uko egin izan zioten ofizioa semeari erakusteari. Horren adibide da zapatari batek semeari esandako esaldi hau: *ni nahikoa naiz besteen izerdi usainak jasan eta eskuak sartzeko, zuk ez duzu behar horrelakorik.*

Beste sendi batzuetan, aldiz, familia ugarikoetan, batez ere, irtenbide gisa ikusten zuten. Zapatak egiten ikasteak prozesu luzea zen, eta seme-alaba ugariko gurasoek semeetako bat ofizioa ikastera bidaltzen zuten, mantenu- eta jantzi-gastuak gutxitzeko. Izan ere, ofiziodunak ikaslearen mantenuaren kargu egin behar izaten zuen ikasketa-prozesuak irauten zuen bost urteetan. Aurrez, ofiziodunak eta ikaslearen aitak itun bat izenpetzen zuten eskribauaren aurrean bi parteek bete beharreko baldintzak eta eskakizunak zehazteko. Ikasleak ituna apurtu eta alde egiten bazuen, gurasoek, tratua amaitzeko falta zen denboran, urteko urrezko ontza bat ordaindu behar izaten zuten.

Oinetako gehienak bakoitzaren neurrira egiten zituzten. Horretarako, hankak kartoi baten gainean jartzen zizkieten, eta arkatzarekin inguruak markatu, gero beharko zuten moldeak sortzeko. Horrez gain, beste hiru puntutako neurriak ere hartu behar izaten ziren, eta hanka bakoitzaren formari ere erreparatzen zieten.

Hankako neurriak hartu ostean, oinetakoa osatuko zuten narru zatiak prestatzea izaten zen hurrengo pausoa; horretarako, narrua moztu zuten moldearekin. Zatitutako narru puskak josi aurretik, pixka bat leundu egiten zituzten, elastiko edo malgu gelditu zitezela. Zatiak batu eta jostea zen hurrengo eginkizuna, eta segidan, zola egiteko moztutako narru zatia uretan hamar minutu inguru eduki, eta mailukada batzuekin biguntzen zuten. Zoruko eta gaineko narru zatiak josi ondoren, iltze txiki batzuekin batzen zituzten, lehen ereduak prestatuz. Zapata neurri egokian zegoenean, ezten batekin zulatu eta pikarekin igurtzitako hariarekin josten zituen zituzten zorua eta goiko zatia.

Zapata egiten 1744-1931 bitartean hogeita bederatzita gizonen aritu ziren. Gehienak Ataunen bertan jaioak, baina Gaintzan, Azpeitian eta Zaldibian jaiotakoak ere izan ziren tartean. Atauna ezkondu zire-

lako inguruko herrietatik hainbat zapatari etorri ziren modu berean, hainbat ataundar zapatagile ere joan ziren inguruko herrietara; besteak beste, Donostiako Martutene auzora. Batzuek ofizioa etxean bertan ikasi zuten, eta beste batzuek Ordizian, Nafarroako Amezkoa herrian eta soldaduskan.

Aurrez esan bezala, maiz ofizioa aitek transmititzen zieten semeei, eta anaien artean pasatakoak ere bat baino gehiago izan dira, eta, hala, zapatagintzari lotutako hainbat etxe edo baserri izan dira Ataunen historian zehar; esaterako: Bidarte Txiki, Izarre, Ainberri eta Garaialde (Galde).

Lantegiei dagokienez, zapatagile gehienek beraien tailerrak San Martinen izan zituzten:

- Dorronsoroenena
- Donjuanene Txiki
- Barriola-enea (Teresanea)
- Zaindegi
- Santiagone Txiki
- Arin Barbetxe
- Etxe Alai
- Upategi
- Graziñe Zaharra
- Kerejetaenea
- Taberna Berri
- Antonione Garakoa (Petrane)
- Bidebieta
- Zapatari Zahar (Rafaelenea)
- Arresene (Iztator)

Zapatagileek gazteei ofizioa erakusten zietenean, lehenbizi, tratua egiten zuten gurasoekin. Horren adibide da 1795eko abuztuan Barandiaran Txikin jaiotako zapatagileak Paskiñeneko nagusiarekin eskribauaren aurrean sinatutako hitzarmena.

Hitzarmen haren bidez, zapatagileak zin egin zuen Paskiñaneko semeari ofizioa erakutsiko ziola. Horrela, bada, bost urteko konpromisoa

hartu zuen gaztea behar zen bezala langintzarako prestatzeko eta behar zuen mantenua emateko. Mantenuaren barruan sartzzen ziren egunero otorduak eta urtero atorra bat, behar zituen oinetakoak, epealdi osorako (5 urterako) larruzko galtza pare bat eta bizkarra babesteko “bedana”, edo ardi larrua. Gazteak bost urteak amaitu aurretik uzten bazuen ikasketa prozesua, ordura arte emandako otorduak ordaindu beharko zizkion maisuari.

XIX. mende amaieran taberna ireki zuten Zapateri Zahar izeneko etxean, gaur egungo Rafaelenean, baina, Rafael nagusia zapatagilea zenez, bere ofizioari ekin zion. Oinetako berriak egiten zituen, baita konponketak ere. Baina garai haietan dirua urri zen, eta askotan aletan ordaintzen zizkioten konponketak; hala, bere gauzak ordaintzeko gaizki ibiltzen zen maiz. Egiten zituzten zapata kopuruari dagokionez, 1923an, mikeleteei egindako aitorenaren arabera, 93 zapata pare egin zituen.

Zapatari lanetan aritu ziren ataundarren artean, egon zen ezbehar baten ondorioz ofizioari ekin zionik. M. Galparsoro Etxeberriak, San Martin auzoko Etxe Alain zapatari aritu zenak, mendian lanean ari zela istripua izan eta eskuineko hanka moztu zuen. Ondorioz, bizitzan aurrera egiteko bizibide bat aurkitu behar eta zapatagin lanbidea ikasi zuen. 1950 bueltan ireki zuen narruzko zein gomazko oinetakoak konponitzeko tailerra. Aldi berean bizikletak konpontzen ere jardun zuen. Hiru urtez bertan egon ondoren, San Gregorioko Elizondo etxera mugitu zuen tailerra, eta bertan jarraitu zuen urte luzez ogibidearekin.

Ez zen izan bakarra beste erremediorik ez zuela-eta bizimoduarekin aurrera egiteko zapatagintzan hasi zena. Upategiko M.M. Imaz Peñak gaztetan zapatagile ofizioa ikasi bazuen ere, urte askoan herriko alondero eta txistulari izan zen. Haren zeregina zen igande eta jaiegun berezietan udal-ordezkariei Meza Nagusira lagundu eta arratsaldez herriko gazteei saio alaiak eskaintzea.

36ko gerra bete-betean zela, 1937ko apirilean, Euskal Nazionalista zela eta, alondero kargutik kendu zuen udalbatzar frankistak. Hainbat urtez espediente politikoagatik alonderotzatik kenduta egon ondoren, 1942ko maiatzean berriro onartu zuten eginkizun hura betetzeko. Beste diru sarrerarik ez zeukanez eta oinetako konponketan aditua zenez, zapatagile langintzari ekin zion Upategi Etxean. Ez zuen denbora

asko egin bere kontura: 1944an, Taberna Berriko zapatariak, J. Munduate Imazek, alonderoa lanik gabe zegoela ikusi zuenean, lana eskaini zion bere etxean, eta harekin jarraitu zuen erretiroa hartu bitartean.

Espainiako gerrak ere markatu zuen Ataungo zapatagileen bizia. Ergoiena auzoko Arbeldizar baserriko M. Arratibel Baztarrikak, esaterako, zapatari ofizioa ikasi zuen Ordizian, baina lanean hasterako Oriamendi tertzioko hirugarren kanpainan izena eman zuen, eta 1936an gerrara joan zen erreketeeekin. Avilesen (Asturias) belaunean zauritu zuten, eta, osatu arte, erietxean egon behar izan zuen.

Ainberriko F. Munduate Imazek zorte txarragoa izan zuen. Ofizioa Zumarragan ikasi zuen, eta 1934an, Kerejetaenean bere kabuz negozioari ekin aurretik, zapatari laguntzaile jardun zuen etxe horretan bertan. 1936an gerra etorri zenean, ordea, frankistek gerrara joateko deitu zioten, eta, bere langintza utzita, joan egin behar izan zuen.

Joan joan zen, baina sekula ez itzuli, 1938an Teruelgo borrokaldian zebilela hil baitzen. Berak hasitako lanak jarraipena izan zuen, ordea. Ordura arte bizargintzan edo ile-mozten aritu zen J. Munduate Imaz anaiak hartu zion erreleboa; anaiak zuen tresneria hartu, eta Taberna Berri etxean ekin zion ofizio berriari. Aurrez bizartegia, korreetza eta estankoa ere bazituen, eta, langintza berri hura hartu zuenean, laguntza beharrean suertatu zen. Horrela, bada, 1944an, Gerra ostean nazionalista izateagatik alondegizain-kargutik kendu zutena hartu zuen laguntzaile; adinean aurrera egin arte aritu ziren biak elkarrekin lanean.

Zapatagileez gain, espartingileak ere izan ziren Ataunen. Artxi-boetako paperetan ageri denez, 25 espartingile izan ziren 1816tik 1904 bitartean; horietako bi emakumeak.

Garraioak

1900. urte ingurura arte oinez ibili ziren arren, aipatutako urtetik aurrera, inguruko herrietan lanean hasi zirenak bizikletak lortzen hasi ziren. Garai hartan ez zen bizikletarik gabeko etxerik; autoak, aldiz, oso urriak ziren. 1953an, esaterako, 536 bizikleta zeuden Ataunen, eta autoak, 1958an, zazpi bakarrik. Hainbeste bizikleta zeudenez, udalak zerga ezartzea erabaki zuen; 1953an, urteko 10 pezeta ordaindu behar zituzten bizikleta-jabeek. Neurri hari lotuta, 1958tik aurrera motorrik gabeko ibilgailuak ere (bizikletak, karroak...) derrigorturik ziren identifikazio-plaka⁴³ jartzera.

Bizikletak ugaritu ahala, behar berriak sortu ziren, eta hala, alkileristen ofizioak indarra hartu zuen. Bizikleta-jabe gehienak beraiek moldatzen baziren ere, eguneroko konponketak eta txukunketak egiteko piezak edo osagaiak behar bazituzten, tailerrera joaten ziren. Tailerrean, bizikletak konpontzeaz gain, berriak saldu eta alokatu ere egiten zituzten; hortik datorkie izena ofizio horretan jardun zutenei.

Bizikleta kopurua handitzen ari zela-eta hortik bizimodua ateratzeko

MARTIN ALDASORO BEGIRISTAIN
(1929) Gaztetan gehiena oinez ibiltzen ginen, ez zegoen bizikletarik. Lazkaokoek bazeuzkaten, baina guk ez. Motorrak ere apenas zeuden eta autoa, egotekotan, bakarra... (ahotsak.eus)

aukera ikusita, bost alkilerista, behintzat, izan ziren Ataunen aurreko mendearen erdialdean. Saletxeko J.R. Barandiaran Imazek batek Eibarko txirrindu-lantegi batean ikasi zuen ofizioa eta gero bere jaiotetxean hasi zen bizikletak konpontzen eta margotzen. Konponketa-tai-

lerrak ireki zituztenak ere izan ziren. Lehenak, Urresuko J. Arza Urdangarinek, 1948an eskatu zion udalari baimena Kotxera izeneko etxean tailerra irekitzeko. Urte pare batez bizikleta-konponketan jardun ondoren, eskaria handitzen ari zenez, beste bi lankiderekin elkartu eta Izta-

43. AUA, 411-59

torko Auzmendi etxean (Biktorrenea) tailer handiagoa ireki zuten. Hainbat urtez lanean aritu ziren, eta, gero, bakoitzak bere bidea hartu zuen; hala, beste lanpostu batzuentatik ordezkatu zuten alkilerista lana.

San Martingo Etxe Alain ere, hainbat urtez aritu zen Sabiagako M. Galparsoro Etxeberria gomazko oinetakoak egitearekin batera bizikletak konpontzen. Gerora, San Gregorioko Elizondo izeneko etxean jardun zuen ofizioarekin. Marijo Galparsoro Auzmendik (alabak) esan digunez, haren aita izan zen San Gregorion irratia izan zuen lehenengoetarikoa, eta auzoko jendea, lanetik bueltan, aitaren tailerrean geratzen omen zen irrastian txirrindulari-lasterketak entzuten. Garai hura ezagutu zutenek esaten dute izugarritzko saltsa sortzen zela.

Gure herrian Arrateta gunean den ITA izeneko harrobitik eta basoko lantegietatik sortutako materialak garraiatzeko, idiek mugitutako gurdiez baliatzen ziren. Lan hori herriko hainbat itzainen esku zegoen. Badakigu XIX. mendean gutxienez zazpi aritu zirela.

XIX. mende amaieran eta XX.aren hasieran, Ataunen oraindik autorik ez zegoenez, pertsonen garraiorako zerbitzua antolatu zuen Miravalles ostatuko M. Altolagirre Arresek. Esan bezala, hasiera batean motordun ibilgailurik ez zegoen, eta zerbitzua emateko zaldiz tiratutako kotxez baliatzen zen. Gerora, motorrez eragindakoak agertu zirenean, horietako bat sortu zuen, eta, hura gordetzeko, gaur egun Urbieta edo Peione taberna dagoen tokian, garajea egin zuen 1920 inguruan. Autobus hartan hiru lagun aritzen ziren gidari; M. Altolagirre bera eta beste bi langile.

M. Altolagirre ez zen izan, ordea, bakarra, XX. mende hasieran gidari lanetan jardun zuena. Emakumeek etxetik kanpo lan egitea oso ohikoa ez zen garai haietan, zaldiz mugitutako kotxearekin jendea batetik bestera eramaten aritu zen Arizkorretaeneko Joxepa Goikoetxea Imaz. Aitzindari

MIGEL ESKISABEL ARIN (1930;

Arteritxulo baserria, San Gregorio)

Ataunen auto gutxi zen; lehenengoa gure aitak ekarriko zuen. Hasierako autoak gasogenoarekin ibiltzen ziren, gasolina gutxi baitzegoen. Auto haiek bi depositu izaten zituzten: bat aurrean eta bestea atzean. Bat karbonoarekin kargatzen zen, eta bestean sua egiten zen, horrela ematen zitzaion martxa. (ahotsak.eus)

izan zela esan beharra dago, duela oso gutxira arte erabat gizonezkoena izan den lanbide batean jardun zuelako batetik eta handik urte batzuetara —beste hainbat ataundarrek bezala— ozeanoa gurutzatu eta Argentinarako bidea hartu zuelako bestetik.

M. Altolagirrek garraio-zerbitzua utzi zuenean, Lazkaoko J. Sarasola

MARIA DORRONSORO DORRONSORO
(1921-2011; Etxe-Zuri, Ergoene)

Ataunen ez zegoen ezer, autobusik ere ez. "Estellesa" pasa behar zenean denok errepide ondora joaten ginen, hura pasatzen ikustera. (ahotsak.eus)

Zubeldiak eta haren koinatu J. Lasa Etxeberriak hartu zuten zeregin hori. Lasak, langintza berri hartan hastea erabaki zuenean, autobuse-tarako egokitu behar izan zuen *Internacional* markako bere kamioia. Autobusa gasolinarekin mugitzen zen, baina, erregaia urri zen garaietan, egur-ikatzaren gasarekin (gasogenoa) ibili zen. Egu-

nean bi aldiz joaten zen Beasaingo geltokira, goizean 09:00 ingururako eta arratsaldean 15:00etarako. Itzuli, berriz, 11:30ean eta 19:00 inguruan. Pertsoenez gain, postariaren gutun-zakua ekarri eta eramaten zuen, baita beste edozein fardel, zaku eta saski txiki ere. Asteazkenetan, Beasaina partez, Ordiziako azokara joaten zen.

1925eko irailean, udalak egindako batzarrean, alonderoak autobus gidariaren jokaera salatu zuen. Izan ere, herriko zergak ordaintzeko, alonderoak beharrezko zuen autobusean zetorren jeneroa ikustea, baina gidariak, behin baino gehiagotan, Ordiziako feriatik bueltan, alonderoari begiratzeko astirik eman gabe alde egiten zuen. Hori dela eta, udalak, joera hori behin eta berriz errepikatu zela ikusirik, bost pezetako isuna jarri zion⁴⁴.

San Gregoriotik Beasaina edo Ordiziara 3,30 pezeta ordaindu behar zen, eta San Martin auzotik, berriz, 1,55 pezeta. Autobusean fardelak garraiatzea ere ordaindu egin behar izaten zen, paketeko pezeta bat. 1958an, hitzarmena egin zuten Ataun eta Beasain lotzen zituen autobus-zerbitzua⁴⁵ ematen jarraitzeko. Autobus-zerbitzuaz gain, taxi-zerbitzua ere bazen herrian. 1957an, esaterako, emakume batek taxi-zerbitzua

44. AUA-507-03

45. AUA, 411-64

martxan jartzeko lizentzia eskatu zuen⁴⁶.

1932ko urtarrilaren 2tik aurrera, Ataungo Udalak beste zerga bat ezartzeko asmoz, herriko ibilgailuen zerrendak egiten zituen tartera. Aipatu behar da urte gutxian motordun ibilgailuen kopuruak asko egin zuela gora. 1932, 1957, 1958 eta 1968 urteetako datuak

daude jasota agirietan. Autoen kopuruan gertatu zen igoerarik handiena: 1932an lau bazeuden eta 1958an zazpi, 1968an 34ra igo ziren. Azken urte hartan *SEAT 600* autoak nabarmentzen ziren gehienbat. Motorren daturik ez zen jaso 1958ra arte; urte hartan, hirurogei pezetako zerga ordaintzen zuten 64 motorrek; *Vespa*, *Lambretta* eta *Guzzi* markakoak ziren ugarienak. Herrian zergak ordaintzen zituzten kamioien kopuruak, aldiz, goitik behera egin zuen: 1932an sei ziren, eta 1968an hiru. Azkenik, autobusei dagokienez, badirudi 1932ko hiru autobusez gain besterik ez dela egon⁴⁷.

Bitxikeria gisa aipatu nahi dugu 1957an emakume batek taxi-lizentzia eskatu zuela.

Garai hartan ez zen ohikoa emakumeek etxetik kanpo lan egitea. Gainera, agirian datorrenez, lizentzia eskatzeko, senarraren baimena zuen; hori ere beharrezkoa baitzuten etxetik kanpo lan egin nahi zuten emakume ezkonduak. (AUA, 411-25)

46. AUA, 411-25

47. AUA, 446-44

1932-2018 URTEETAN ATAUNEN ZEUDEN IBILGAILUEN DATUAK				
URTEA	BIZTANLEAK	GARRAIOA	MARKA - MODELOA	KOPURUA
1932	2462 (1935eko datua da, 1932korik ez dugu aurkitu) ⁴⁸	Autoak	Renault	3
			Terrot	1
			GUZTIRA	4
		Autobusak	Chrevrolet	1
			Fiat	1
			Citroen	1
			GUZTIRA	3
		Kamioiak	Berliet	1
			Fiat	1
			Dodge	1
			Chevrolet	1
			Citroen	1
			Renault	1
			GUZTIRA	6
IBILGAILUAK GUZTIRA		13		
1958	2752 (1955eko datua da, 1958korik ez dugu aurkitu) ⁴⁹	Autoak	Citroen	2
			Renault	2
			Seat	1
			Lloyd	1
			Fiat	1
			GUZTIRA	7
		Motorrak	Triumph	1
			Lube	1
			Guzzi	13
			Lambretta	16
			Vespa	11
			Narcla	1
			Lanch	6
			Derlan	2
			Ossa	2
			Especial J.V.	1
			Peugeot	1
			Montesa	2
		GUZTIRA	57	
IBILGAILUAK GUZTIRA		63		

48. AUA, 413-01

49 AUA, 416-2 eta 417-1

1968	2776 (1966ko datua da, 1968korik ez dugu aurkitu) ⁵⁰	Autoak	Seat	7
			Seat 600	7
			Citroen	4
			Renault	8
			Renault Dauphine	3
			Volkswagen	1
			Peugeot	1
			GUZTIRA	31
		Kamioiak	International	1
			Ford	1
			Ebro	1
			GUZTIRA	3
		Motorrak	Ducatti	2
			Montesa	3
			Lambretta	4
			Motobic	1
			Peugeot	1
			Lube	1
			Vespa	4
Bultaco	1			
GUZTIRA	17			
	IBILGAILUAK GUZTIRA		51	
2018	1669	IBILGAILUAK GUZTIRA	1300	

Poliki-poliki, motor kopuruak gora egin zuen herrian, eta haien konponketa lanak egiteko eskaria ere handitzen joan zen. Horrela, bada, 1960 inguruan, Taberna Etxe Berri edo Kooperatiba esaten zaion etxean, motorrak konpontzeko tailerra ireki zuen I.M. Arteaga Izagirrek.

Harginak

Hargin-ofizioa aspalditik ezagutzen dute Ataunen. 1511n, Valmedia-noko markesak eta Ataungo udalbatzarrak erdibana errotak alokatzeko egindako hitzarmenean, lau hargin ageri dira jada. Eta, handik aurrera, ugariak dira batean edo bestean lanak egiten ari ziren harginen aipamenak artxiboko agirietan.

Seguran, 1708ko apirilaren 10ean, eraikuntza-maisu bat eta Ataungo emakume bat elkartu ziren. Emakumearen semea bost urtez maisuaren esanetan egongo zen hargin-ofizioa ikasten. Amak zin egin zuen semeak bere ardura beteko zuela eta hala ez bazen familiak ordura arte sortutako gastuak bere gain hartuko zituela. Horrez gain, maisuak ikasleari beloizko ehun erreal eta guraize pare bat emango zion bost urteak igaro ondoren, eta, ikasten ari zen bitartean, berriz, behar zituen oinetako eta arropez hornitu beharko zuen.

Hargin haiek Ataunen eta Ataundik kanpo ere lan egin zuten. 1752an, adibidez, Galiziako Ferrol del Caudillo hirian portua eraikitzen ari zirela, hargin eskaera egin zuten, eta Ataungo hamabost hargin prest agertu ziren hara joateko. Ez dakigu Ataundik Ferrolerainoko bidea nola eta zenbat denboran egin zuten, baina pentsa dezakegu bidaia ez zela samurra eta laburra izan; oinez edo zaldiz lagundurik egingo baitzuten ziu-rrenik, artean trena eta ibilgailu motordunak asmatu gabe baitzeuden. Horrela, bada, oinez 40-50 kilometro baino gehiago eta zaldi, mando edo idiek tiratutako gurdiekin 100 kilometro baino gehiago egitea ia ezinezkoa zenez, Ataun eta Ferrol banatzen dituzten 600 kilometroak egiteko, 6-12 egun behar izango zituzten, oinez egin edo gurdiz egin.

Agirietan, harginek izandako gorabeherak eta hartutako konpromisoak ere ageri dira. Besteak beste, 1772ko gorabehera batzuk: San Martingo parrokia eraikitzekeo lantegia hartu zuenaren eta lanak amaitu aurretik hildako haren langile baten semeen artekoak. Esan bezala, elizaren eraikitzekeo ardura zuen langilea zereginak amaitzerako hil zen. Ondorioz, nagusiak langilearen bi semeei ordaindu behar zien aitak ordura arte egindakoaren ordaina. Horrez gain, semeek izango zuten

aurrerantzean aitak hasitako lanari bukaera emateko ardura. Baina, hori bai, hasierako forma, baldintzak eta amaiera-epea errespetatu behar zituzten. Horren truke, obraren arduradunak agindu zien inolaz ere ez ziela bi anaiei obra hura kenduko.

Ataunen bertan ere egin zituzten lanak, noski. XVIII. mendean, gainerako herrietan bezala, Ataunen ere hildakoak elizan bertan lurperatzen ziren, aldare aurrean. 1787an Karlos III.a erregeak debekatu egin zuen hori, higiene nahiz osasun-arazoak sor zitezkeela eta. Izan ere, hobien gaineko tapak egurrezkoak izaten ziren, eta, elizetako hezetasuna zela medio, egurra usteldu egiten zen, baita lurra ere. San Martingo parrokian ere hala gertatu zen, eta 1774an aldare aurreko zoruko zein erdiko bideko egurra kendu eta harlauzeekin egiteko erabakia hartu zuten. Horretarako gorpuak eta haiek estaltzeko erabilitako lurra atera zituzten hobietatik, zuloak lur lehorrez bete eta gainean harrizko losak jartzeko. Lan hura egiten zazpi hargin aritu ziren, eta 6.027,54 erreal kostatu zen.

XIX. mende bukaeran eta XX. ean ere, izan ziren harginak Ataunen; beste hogeita zazpi bat gutxi gorabehera.

1847ko azaroaren 8an, Beasaingo San Martin de Loinaz elizako hormak egiteko, honako hitzarmen hau sinatu zuten Jose Frantzisko Arana eraikitzaileak eta Ataungo hiru harginak:

- 1) Harginak euren kabuz prestatu behar zuten hormak altxatzeko masa edo morteroa. Hori bai, arkitektoaren aginduei jarraituta.
- 2) Zimenduetatik hasi eta harlan osoa egin behar zuten harginak, baina materiala eraikitzaileak eskuratuko zuen.
- 3) Eraikin zaharrak zituen armarrria eta kanpai-horma eraikin berrian ezarri beharko zituzten.
- 4) Egindako lanak neurtutakoan, harlan "*estado*" bakoitza, beloizko 11 erreal ordainduko zitzaaien harginei.
- 5) Harlanduzko harri berri bakoitzeko, bi erreal ordainduko zitzaaien.
- 6) Aldamioak Arana jaunak egingo zituen, eta horiek finkatzeaz harginak eurak arduratuko ziren.

Harrobiak

Harginek lan egingo bazuten, materiala ere behar zuten, eta, lanerako harriak ateratzeko, hiru harrobi, behintzat, egon dira martxan Ataunen historian zehar:

Umarki

Lantegi txiki hori, Lazkaora doan oinezko bidearen ertzean zegoen. Bertatik hareharria ateratzen zuten. San Martingo eliza nagusia eraikitzeke erabili omen zuten.

1890ean, harrobia ustiatzen zuenak Foru Aldundiari baimena eskatu zion ibaiaren beste aldea ustiatzeko. 1895ean, harrobiaren ardura eskuz aldatu zen.

Urkuela

Izen bereko baserriaren atzean zegoen hareharria ateratzeko hobia. Materiala gurdiarekin garraiatzeko, lehenik kablez jaisten zuten harrobitik Urkuola ondoko zubira. San Martin eliza eraikitzeke, gehienbat horko harria erabili zuten. 1925-1930 inguru arte jardun zuten lanean, eta azken arduraduna Kalakaseneko J.M. Arruabarrena Barandiaran ataundarra izan zen.

Arrateta

San Martin auzoan, Aitzarterako bidean, bi aldetara dauden harkaitzetan zeuden lantegi edo harrobi horiek. Herriko eraikuntzetarako eta karea egiteko, antzinatik erabiltzen zen horko harria.

Alde bateko mendia (gora goazela eskuinekoa), Yta Haundieta edo Arrateta aldea esaten zitzaion, eta Agerre baserrikoek zuten haren jabetza. Lurrak eta belarrak erabiltzeko eskubidea zuten bakarrik, ordea; zorupea publikoa zen.

Horregatik, harrobia ustiatzen hasi zirenean, udalak ateratzen zuen enkantera haren ustiapena, baina, harkaitzeko zuhaitzen bat (arteak) botatzen zuten bakoitzean, Agerrekoei ordaindu behar izaten zieten; azken urteetan, 2 pezeta zuhaitzeko.

Beste aldeko harkaitzean, Aiztondo aldekoan ere gauza bera. Hamahiru baserritarrena zen, eta bakoitzak bere zatia izendatuta zeukan, baina barne-lurra edo zorupea guztiena zen. Enkantetik ateratzen zuten dirua, hamahiru bazkideen artean banatzen zuten.

Herriko nekazariak Arratetan ateratako harriarekin egindako kareaz baliatzen ziren euren lurrak garbitzeko edo ontzeko.

Lanbide orotan bezala, harrobietan ere izaten ziren gorabeherak eta adostasunera iritsi beharreko uneak ere.

1910eko otsailaren 27an, esaterako, hor elkartu ziren Ordiziar bat, Beasaingo kontratista bat, Arrateta harrobiko F.M. Irastorza Eskisabel harri-ateratzailea eta Ataungo Udaleko ordezkariak, zertarako eta "Urres-tarazu zaharra" edo "Ita aundieta" harrobirako arauak eta baldintzak izendatu eta onartzeko.

Honako akordio hauetara iritsi ziren:

- 1) Kontratistek karea egiteko ateratzen zuten gurdi bakoitzeko, 0,55 pezeta ordaindu behar zuten, eta, ateratako harria obretarako zenean, metro kubikoka ordainduko zuten.
 - 2) Beste edonork harria eskatzen zuenean, gurdiko 0,65 pezeta ordainduko zuen.
 - 3) Herritarrek harria atera behar zutenean, ez zuten eskubiderik euren kabuz aritzeko; harri-ateratzaileari soldata ordaindu behar zioten.
- Lan horren balioa edo prezioa ez zuten aldatu behar lau urtean.
- 4) Harria ateratzeko, Aitzartera zihoan bidetik gora har zitekeen, eta hori horrela egiten zela ziurtatzeaz udaletxeak izendatutako batzordea arduratuko zen.
 - 5) Ateratako harriengatik, 0,80 pezeta ordainduko zitzaion ateratzaileari tona bakoitzeko.

Hurrengo urtean, Foru Aldundiak errepideak hornitzeko Ataungo harriaren beharra izan zuen. F.M. Irastorza Eskisabel harri-ateratzaileak ituna urtebete gehiago luzatzea eskatu zion udalari; herriko agintariek aho batez onartu zuten eskaria.

Harrobi horren jabetza maiz aldatu zen eskuz. 1915eko apirilean, esaterako, bost urterako ustiapen-kontratua sinatu zuten Ermentariko J. F. Goikoetxea Urdangarinek, urteko 500 pezetan (3,01€). Zergatik ez dakigu, baina 1918an berriro atera zen enkantera, eta Goiazko gizon batek alokatu zuen, baina hark ere, baldintzak ez zituenetz bete, berehala ezerezean geratu zen udalarekin sinaturiko hitzarmena.

1925eko enkantean, berriz, beasaingar batek hartu zuen harrobia, eta 1928an, Azaolako Z. Mondaluze Arteburuk. Horrek udalari baimena eskatu zion harriak txikitzeo makina bat jartzeko, eta udalak onartu zion eskaera. Dirudienez, garai hartan ez zegoen makinak mugitzeko behar hainbat argindar, eta Lazkaotik ekarri nahi izan zuten argindarra; horretarako, bost poste jartzeko baimen-eskaera egin zion *Ayerbe y Cia* izeneko sozietateak udalari. Udalak baimena eman zion aho batez, eta, poste bakoitzeko, urtean pezeta bat ordainarazi zieten.

Harrobi hartatik materiala ateratzeko, idiek tiratutako gurdi handiak erabiltzen zituzten, eta, pisuaren ondorioz errepidea asko hondatzen zenez, udalak erabaki zuen itzain bakoitzari ordainsari bat ezartzea. 1943an, ordea, *Aierbe Hnos., Dorronsoro, Mondaluze y Cia* izeneko sozietateak uko egin zion errepideko ordainsaria ordaintzeari. Udalak berehala jakinarazi zien zerga legez ezarria zela eta ordaindu ezean zigortu egingo zituztela.

Ondoren, lau aldeak elkartuta, *Canteras Arrateta SL* izeneko enpresa sortu zuten, eta urte askoan ustiatu zituzten bi alderdietako harkaitzak. Harrobian, lanerako makinaria gutxi eta aurrerapen eskasak zituzten, eta, haiek berritzeko, inbertsio handiak egin beharrean zeuden. Enpresa hark bi harrobiak zituen alokatuta, eta, jabeak urtero errenta igotzeaz aspertuta zeudenez, negozioa transferitzea erabaki zuten. Horrela, bada, 1964ko martxoaren 25ean ustiapenaren eskubideak aldatu zizkioten *Canteras Misan* izeneko enpresari. Sozietate berri hark zailtasun ugari aurkitu zituen harrobian, eta aspertuta, 1965ean *Hormigones Goiherri* lantegiari saldu zion. *Canteras de Ataun SA* izena hartuta, eta 1977 inguruko errausketak eta Arrateta etxekoekin zituzten arazoak zirela medio, etxea erosi beste erremediorik ez zuten izan lanean jarraitzeko. Handik gutxira, Jentil-Baratzako gailurrak sortzen zizkien arazoak saihestu ezinak izan, eta harrobiaren ustiapena bertan behera utzi zuten.


Kablegintza

Kablegintzaren historian ez dugu asko sakonduko, Lurdes Altuna Jauregik luze eta zabal aztertu baitzuen *Kablea Ataunen* liburuan. Hala ere, hainbat aipamen eta bitxikeria ekarri nahi izan ditugu lerro hauetara.

Nekazaritza eta basogintza lanek aldaketa nabarmenak izan dituzte historian zehar; industria garatu ahala aurrerapen nabarmenak izan dira lanabesetan, kablea horien artean. Asmakizun hark aurrerapen handia ekarri zuen. Izan ere, ordura arte idi edo mandoek tiratutako gurdien bidez edota bizkarrean jaitsi behar izaten zituzten mendian landutako materialak. Aiako Juliana Begiristain Auzmendiri (1928; Txuloa baserria, Aia) *Ahotsak.eus* proiektukoek jasoa da kablea sortu aurretik belar sortak sokarekin lotu eta bizkarrean jaisten zituztela ia 20 minutuko bidean, idi edo mandoekin ibiltzeko biderik ez zegoela eta.

Ataungo basoetan lan ugari egin izan dira historian zehar, bai egurrarekin eta bai belarrarekin. Basoko zuhaitzak betidanik ustiatu

MIGEL ESKISABEL ARIN
(1930, Arteriitxulo baserria)



Gure aitak ekarri zuen kablea Atauna.

Belarra zelaitik baserrietara eramateko erabiltzen zen. Horretarako, kableak aldapa behera egon behar zuen, eta belar piloa bi sokarekin lotu eta txirrika bat kablean ipinita, mendian behera botatzen zuten.

Hasteko, mandoak hartu eta kablea mendira igo behar izaten zuten, eta gero, enpalmeak eginez, beheraka zabaldu. Kableak elkarri lotutakoan, ezinbestekoa zen puntak barruraka sartzea, bestela txirriek airean alde egiten baitzuten. Lan hau nekeza zen.

Belarrarekin kable bakarra erabiltzen zen. Behean, belarra eta txirrikak hartzeko pertsona bat egoten zen, eta haiek, gero, txirrikak astoekin mendian gora eramaten zituzten.

Mendiko kableak ezberdinak ziren. Enborrak jaisten zituzten. Horretarako, enborrak bi katerekin lotzen zituzten, eta hiru bat pertsona behar ziren horiek kargatu eta gero behean kamioira kargatzeko.

Tximistak jotzen bazuen, arrisku-tsua izaten zen; kablea kargatu egiten baitzen.

Kable batzuek motorra ere izaten zuten, eta horiek gasolinarekin funtzionatzen zuten.

badira ere, XVIII. mendetik aurrera gudarako itsasontzigintzak eraginda, izugarrizko indarra hartu zuten baso horietako baliabideek. Horrez gain, itsasontziak egiteko mastak eta arraunak ere hemengo pago-egurrarekin egiten ziren. Basoetatik materiala garraiatzea, ordea, lan nekeza zen.

Belar-lanak ere ez ziren samurrak; soroak lur malkarretan eta garaie-tan egoteak garraio-lanak zailtzen zituen. Animaliek tiratutako gurdiekin edo zama bizkarrean hartuta garraiatzen zuten belarra goiko larreetatik baserrietara. Gauzak horrela, imajinatu daiteke kablea asmatzeak aurre-rabide eta erraztasun handiak ekarri zizkiela Ataungo baserritarrei. Egurretarako zein belarretarako erabiltzen ziren kableez gain, harriak menditik behera jaisteko erabiltzen zirenak ere izan ziren. Ezberdintasun bakarra zen harriak garraiatzeko kaxa bat izaten zutela. Negu partean, berriz, orbela, gaztainak eta garoa menditik jaisteko ere baliatzen zuten kablea.

Kablea noiz sortu zen garbi esaterik ez badago ere, 1920ko hamarkada-ren bueltan sortu zen. Hamarkada horretan eta ondorengo 10-20 urteetan izan zuen garairik oparoena. 1950 bueltan jada, industria gero eta garatuago bihurtu zenez, inguruetak lantegietan gero eta lan-esku gehiagoren beharra zegoen, eta, ondorioz, baserriak ahultzen eta bizibide nagusi izateari uzten hasi ziren. Horregatik joan zen jaisten harekin batera kablearen erabilera.

Baserriko lanak errazteko sorturiko tresna horrek arrakasta handia izan zuen Ataunen; guztira, 197 kable inguru izan zirela jaso zuen Lurdes Altunak bere *Kablea Ataunen* ikerlanean. Gaur egun oraindik gelditzen dira horien aztarnak baserriren baten edo besten. Esan behar da Ataungo orografia oso lagungarria dela kable sistema ezartzeko. Izan ere, kableak funtzionatzeko baldintza bakarra altura ezberdintasuna baita; hots, garraiatu beharreko gaiak baserriak baino gorago egon behar dute, eta Ataunen horrelaxe gertatzen da, baserriak mendi magaletan daude eta.

Kablearen munduan, ospe handia irabazi zuen B. Eskixabel Urbiztondok. Gazte-gaztetatik egokitu zitzaion baserriko lanen ardura, baina, nekazaritzatik bizimodua ateratzea nekeza zenez, etxerako diru-sarrera bat ekartzeko, basora lanera joatea erabaki zuen uda batean.

1920. urtearen bueltan irabazi hots handienak Iratiko basoan zeuden, eta bertara joan ziren herriko hainbat mutil gazte: tar-tean, Bixente Eskixabel. Ordurako, kablea martxan zegoen Iratiko basoan, basoetatik ateratzen zituzten egurrak zerrategira jaisteko.



Kablea, 1987. Iturria: *Kutxateka.eus*

Bixente Eskixabel eta gainerako herrikideek El

Iraty zerrategian pasatzen zuten eguna lanean, eta, dirudienez, lan-eguna amaitutakoan, Eskixabel kablearen nondik norakoak aztertzen aritzen zen, haren funtzionamendua nolakoa zen jakin nahian. Uda Iratin pastua eta etxera bueltatuta, 1920 inguruan, kablea ipini zuen jaiotetxean; goiko soroetatik etxeko sabaira belar-ondua jaitsi eta ganaduari jaten emateko. Belar sortak “*kable ero*” edo kontrolik gabekoan bidaltzen zituen baserriraino.

Badirudi, 1940 inguruan, italiarrek El Iraty egur-zerrategiko enpresatik alde egin zutenean B. Eskisabelek hartu zuela lantegia ustiatzeko konpromisoa; kableak muntatzen iaioa zenez, ardura ondo betetzeko moduan izango zen.

Mendiko lantegi baten ustiapena hartzen zuen bakoitzean, lehenengo, kablea nondik nora bota behar zuen erabakitzen zuen, eta, gero, ikurrin txiki batzuekin markatzen zuen kablearentzat ireki beharreko ataka. Leku ugaritako mutilak aritu ziren harentzat lanean.

Ataunen ere muntaien bat edo beste egin zuen. Horren adibide da, 1931n, Aralegi Goiko baserria erre eta berriz eraikitzen hasi zirenean Arrastoz gainetik Aralegiko zelaira muntatu zuten kable-biratzaila. Haren bidez, baserria berreraikitzeko erabili zituzten materialak kaxetan sartuta jaisten zituzten, bai harriak eta bai egurrak.

36ko gerraren ondorengo urteetan, Espainian gauza asko falta ziren, eta Frantziara joaten zen beharrezko zituen hainbat produkturen bila.

Mandazain bat jartzen zuen zeregin horretan, eta hark, Eskisabelek lanerako behar zituen aparailuak inguratzeaz gain, kontrabando edo estraperloan ere jardun zuen urte askoan kablearen babesean.

1946-1947 inguruan, Bixente Eskisabel, Ansora Joan (Huescara), eta IFASA zerrategiko nagusiarekin hartu-emanetan jarri zen Zurizatik (Huesca) gora zegoen basoa ustiatzeko. Gaur egun, Zurizako kanpina dagoen tokitik gertu jarri zuen zazpi kilometro luzeko kablearen deskargalekua; handik behera, egurrak kamioiz garraiatzen zituzten.

Euskal Herrian ere jarri zituen beste hainbat kable; Ernion eta Izaiban, besteak beste. Ernion, esaterako, pagoz osatutako baso zabalak zeuden, baina malkar trakets haietatik ustiatzea, Pirinioetan bezala, ezinezkoa suertatzen zen. Gerraostea zen, eta, eskura halako aberastasuna izanik, irtenbide bat aurkitu nahi izan zioten biztanleek inguru hartako aberastasunari.

Ordurako Eskisabel ezaguna zen zenbaitentzat, eta Alkizar batzuek harengana jo zuten laguntza-eske. Horrela, bada, 1945ean ekin zion lau kilometro inguruko kablea muntatzeari, eta hiru urtez egon zen martxan.

Nafarroako Izaba herrian eta beste hainbat mendilerrotan ere muntatu zituen 14 eta 20 kilometro bitarteko kableak.

Denborarekin, kablearen funtzionamendua ere garatzen joan zen, eta goitik beherako garraiorako bakarrik izateari utzi, eta behetik gora ere gauzak bidaltzeko baliatzen hasi ziren. Inazio Munduatek jaso zuen testigantza honetan ageri da metodo hori:

Bizente Eskisabelek Quifosa lantegira arte jarrita zeukan kable bat egurra botatzeko. Quimica Forestal SA (Quifosa) lantegia, Beasaingo aranatarrena zen, eta Lizarrustin, Nafarroa aldetik zegoen kokatua. Bertan pago egurrari "izpiritua" kentzen zioten, eta, beste produktu batzuen artean, Beasaingo lantegian azetona eta metanola lortzen zuten. Gelditzen zen egurra, berriz, egur ikatza egiteko erabiltzen zuten.

Nire egitekoak izaten ziren anaiari otordua prestatzen laguntzea, ura ekartzea, mandatuak betetzea, herrira jaitsi eta den-

datik aurrez prestatuta egoten ziren janariak eta ardoa hartu eta kablera inguratzea gora bidaltzeko, eta horien antzeko lanak. Eguneroko hiru otorduetan, baba beltza egosita eta taloak jaten genituen. Kuadrilla handia aritzen zen lanean, baita ataundarrak ere. (Ezezaguna)



Agerre Handi baserria, 2012

Iturria: *Guregipuzkoa.eus*

Korreotza edo postagintza

1805eko abenduaren 25ean, aguazil edo txinelak urtean hamabi dukateko diru-laguntza eskatu zion Ataungo udalbatzarrari, idatzi baten bidez, bere lan gehigarria konpentsatze-aldera⁵¹. Izan ere, herriko aguazil edo txinel izateaz gain, karta-banatzen ere aritzen zen, eta, astero, gutxienez sei bidaia egiten zituen Ordiziako bulegora.

Erkidegoko gobernadoreak, 1862ko abuztuaren 3ko aginduaren bitartez, Gipuzkoa osoan posta-zerbitzua jarri behar zela adierazi zuen. Herriko lanpostu berriak 500 errealeko soldata izango zuen, eta, horrez gain, etxe bakoitzera banatzen zen eskutitz bakoitzagatik 0,25 erreal ordainduko zitzaion.

Lehenbailehen jakinarazi behar zitzaion gobernadoreari kargu hori nori egokituko zitzaion. Aukeraketa-prozesuan, aukeratuak idazten eta irakurtzen jakin behar zuen. Ez hori bakarrik, lehentasuna zuten gudari ohiek, armadako lizentziadunek eta Guardia Zibil ohiek. Luze eta zabal gaia eztabaidatu ondoren, Ataungo Udalak Bidarte Txiki etxean bizi zen gizonezko bat proposatu zuen kargurako.

1876an, Tabla etxean bizi zen postariak kexa helarazi zion gobernadoreari txosten baten bidez, herrian zeuden karlista izeneko agintariak postari-kargutik kendu zutela eta. Bidalitako txostenean, Ataungo Udalak edukitako jokabidearen berri agertzen zion, eta azpimarratu zuen 17 edo 18 urte zituen gaztea izendatu zutela posturako. Gobernadore jaunak arazoa ezagutu zuenean, Ataungo udalbatzarrari kontuak eskatu zizkion, eta horiek erantzun zioten jokabide moral errugabearekin jokatu zutela.

Bete behar zuten eginkizunerako, aipatutako biak nahiko berdintsu eta trebeak ziren. Bakoitzaren adina kontuan izanda, Mujika jauna ego-kiagoa ikusten zutela aitortzen zuten, eta erabakia gobernadore jaunaren "*esku zuzenetan*" uztea onartu zuen udalbatzarrak aho batez.

Itxuraz, liskarrak luze jo zuen, zeren, 1893an, Gobernu Zibiletik bidalitako beste zirkular batean, postari lanpostua etenda gelditzen zela adierazi zuten, eta Ataungo herriak soldata ordainduz, zegoenaren

51. AUA, 07-15

ordez, beste bat izendatzeko agindu zion udalari. Udal-ordezkariek aho batez, Kalakasenean bizi zen Felipe Auzmendi Barandiaran (1855-06-11) aukeratu zuten.

Postariak gutunak Ataun osoan banatu behar zituen baldintza hauetan:

- 1) Udalak, hiru postontzi, edo kutxa, jarriko zituen, bat San Martingo estankoan, bestea Arrondoko estankoan, eta hirugarrena San Gregorioko estankoan.
- 2) Felipe Auzmendik, egunero goizeko 07:30ean atera behar zuen etxetik, eta, inon gelditu gabe, Beasaingo administraziora joan.
- 3) Gure herrirako zeuden eskutitzak hartu ondoren, gelditu gabe, etxera etorri eta bazkaltzeko behar zuen denbora hartu ondoren, eskutitzak banatu behar zituen San Gregoria arte.
- 4) Banatutako karta edo eskutitz bakoitzagatik, bost zentimo kobratuko zuen, eta udaletxerako eta auzitegirako zirenak doan banatuko zituen.
- 5) Bazkalondoko ordubietan, San Gregoriotik beherakoan, gutu-nontzietako eskutitzak jasoko zituen, eta, hurrengo egunean Beasainera eraman arte, San Martingo postontzian gordeko zituen.

F. Auzmendik, eguneko 1,50 pezeta jasotzen zuen bere aguazil-karguagatik, eta eguneko beste pezeta bat, eskutitzak herrian banatzeagatik. Baldintza haietan jarraitu zuen Ataungo posta-zerbitzuak 1907ra arte. Urte hartan erabaki zuten Beasaindik gutunak ekarri eta berriro eramateko bi herriak lotzen zituen autobus-zerbitzua erabiltzea.

1914ko abenduaren 20an, *Union Ataunesa de Coches* sozietateak, M. Garaialde Zeberio eta haren bost sozioek, urteberrietatik aurrera posta-zerbitzua hobetzeko proposamena egin zuen, diru-laguntza bat eskatuz. Zerbitzuaren garrantzia kontuan izanik, udalak erabaki zuen 150 pezetako laguntza ematea (0,90 euro).

1916ko apirilaren 25ean, berriro eskatu zion laguntza *Union Ataunesa de Coches* enpresak udalari, eta batzarrak, eztabaidatu ondoren, 1916an eta 1917an, aurreko urteetan bezala, 150 pezetarekin laguntzea

erabaki zuen baina aurrerantzean estatuaren laguntzara jo beharko zutela.

M. Altolagirre Arrese, autobus-zerbitzuaren jabe zenez, aurrerantzean bera izango zen Beasaindik gutunak eta paketeak ekartzeko arduraduna. Behin herrian, F. Auzmendi Barandiaranek egingo zuen banaketa, harik eta 1925. urtean zeregin hori utzi zuen arte. 1925eko uztailetik 1926ko urrira arte, T. Kerejeta Zurutuza arduratu zen herriko banaketaz, eta, eginkizunaren ordainetan, 200 pezeta jaso zituen. Kerejetak utzi zuenean, M. Altolagirre Arresek eta haren seme Antoniok hartu zuten gutunak banatzeko ardura.

1926ko urtarrilean, J. Lasa Etxeberriak hartu zuen San Gregorioko posta banatzeko ardura, eta Ataungo Udalak lekuz aldatu zuen postontzia, Arrate etxetik, Lasa bizi zen Imaz Berri etxera. Haren ondoren, Etxe Zuriko M. Zurutuza Apalategi izan zen San Gregorioko arduradun, eta gero semeak jarraitu zion, J. M. Zurutuza Jauregik. 1959ko apirilean lana utzi zuenean, F. Etxeberria Galparsorok ekin zion San Gregorioko eta Aiako gutunak banatzeari, baina 1963ko martxoan, hark ere kargua utzi, eta, ordezko, J. Etxeberria Madariaga izendatu zuten, Olea baserrikoa.

San Martin auzoan, berriz, M. Altolagirre Arresek, urte askoan postari ibili ondoren kargua utzi zuen 1950eko abenduan, eta haren ordez, Julian Munduate Imaz (1913-02-26) izendatu zuten Madrilgo Direccion General de Correostik. 1951ko otsailean ekin zion lanari, urteko 2.044 pezetako soldatarekin (12,28 euro), eta, horrez gain, hilabeteko eskupeko bat ere ipini zioten.

1954ko ekainean soldata eguneratzean, 3.577 pezetara igo zioten (21,50 euro), eta 1956an, 5.760 pezetara (34,68 euro). Gainera, uztaileko eta abenduko hiletan gehigarri bat jasotzen zuen.

Mataderoa eta harategiak

Ataungo Udalaren esku egon ziren betidanik herriko ostatua, abere-hiltegia eta haragia saltzeko lekua. Udalak jarri ohi zituen baldintzak eta arauak, batzorde bidez. Hura arduratzen zen enkantea antolatzeaz, eta diru gehien eskaintzen zuenari ematen zitzaion zerbitzua kudeatzeko ardura.

Herriko ostatua udaletxean bertan zegoen, eta beheko solairuan zituen abereentzako ukuiluak. Hiltegia eta haragia saltzeko lekua, berriz, udaletxearen atzean, gaur egun Galde baserrira doan errepide barrenean zeuden. Eraikina 1955ean desagertu zen, baina arrasto batzuk ageri dira gaur egun oraindik.

1861eko maiatzaren 19an Ataungo Udalak egindako bileran, erki-degoko gobernadorearen agindu baten berri azaldu zuen. Agindu hari jarraituz, albaiteroa izendatu zuten abere-hiltegi haragizain. Hiltegiara joaten zen abere bakoitzagatik, bost erreal ordainduko zizkion ostatua enkantean harturik zuenak⁵².

1862an alkateak egindako idatzi baten arabera, hiltegia berritu baten beharrean zegoen. Besteak beste, zorua berritu beharra zuen, odola estoldetatik bideratzeko eta usain txarrak saihesteko⁵³. Izan ere, ordura artekoa latza zen, eta horrek odolaren bidea zailtzen zuen. Udal ordezkariak berritzeko proiektua onartu zuten, baina 1.200 errealeko muga ipini zieten lanei.

1869an bizimodua garesti zegoen, eta, ondorioz, harakinek ere asko ordaindu behar izaten zuten gerora dendan salduko zuten haragia. Hori dela eta, herrian zegoen haragi-saltzaileak baimena eskatu zion udalari, garestiago saltzeko libra-haragia (460 g), behinik behin salneurriak jaitsi arte. Baina udalak erantzun zion ezin zirela aldatu aurrez ezarritako baldintzak.

1872ko uztailaren 15ean, haragizaina kendu, eta arduradun berria izendatu zuten kargurako.

1876ko ekainaren 6an egindako bileran, enkante bidez izendatutako ostalari eta haragi-saltzaileak bete beharreko baldintzak ezarri zituen udalak:

52. AUA, 498-02

53. AUA, 498-02

Ostalari eta haragi-saltzaileek 1876an bete beharreko baldintzak:

- 1) Herriko etxearen maiztertza bi urterako izango zen.
- 2) Errenta, 3.000 erreal, urtean behin ordainduko zen.
- 3) Urtero etxea zuritu beharko zen.
- 4) Urtean behin, udalak agintzen zuenean, Nafarroako Sorlada herrian zegoen San Gregorio santutegitik ur-bedeinkatua ekarri beharko zuen (gurutze-jartzearen egunean ibiltzeko), eta meza-diru edo limosnatarako 20 erreal utziko zituen santutegian bere kontura.
- 5) Antzinako ohiturari jarraituz, San Joan egunean sei arrobako zahagi bat ardo bat emango zion udalari.
- 6) Bidelariak eta aberezaleak etortzen zirenean, ostatuak, sukaldeak eta ukuiluak irekita egon behar zuten, eta herriko etxearen estalpeak, garbi eta txukun.
- 7) Haragia Ordiziako, Lazkaoko eta Beasaingo prezio berean saldu behar zuen, eta haragi-aukera izan behar zuen. Horrela izan ezean, bi errealeko isuna ipiniko zitzaion.
- 8) Abereak hil aurretik, inspektoreak aztertu behar zituen.
- 9) Eguraldi beroak zirela eta, abelgorrien haragia saltzen ez zenean, Nafarroako ahari zikiratuen okela sal zezakeen, baina salneurria udalak ezarriko zion:
 - Burua, bere muin eta muturrekin: 4 erreal.
 - Mingaina bere hezurrarekin: haragiaren balioan.
 - Hesteak: erreal laurdena (kana bakoitza).
 - Gibel, tripaki eta abarrak: haragiaren erdi prezioan.
 - Hankak: erreal laurdena.
- 10) Saltzaileak nahi izatera, herritik kanpora ere sal zezaken.
- 11) Edozein herritarrek hil zezakeen urtean abere bat, baina bigarrena hiltzen zuenean, erraldeko (5 kilo), erreal bat ordaindu behar zion haragi-saltzaileari.
- 12) Saltzeko hiltzen ziren txerriak aurrez inspektoreak aztertu behar zituen, eta, buruko, 30 erreal ordaindu behar zitzaion haragi-saltzaileari.
- 13) Txukun eduki behar zituen abere-hiltegia eta haragia saltzen zuen lekua. Haragi-saltzaileak nahi bazuen, beste auzoetan ere saltokiak ireki zitzakeen inongo eragozpenik gabe, baina abereak beti hiltzean hil beharko zituen. Inspektoreari txekor eta txerri bakoitzeko 4 erreal ordainduko zizkion, eta, ardi bakoitzagatik, erreal bat.

Baldintzak jarri zituzten, baina 1877an egin zen enkantera ez zen inor azaldu⁵⁴, eta Udalak Foru Aldundiari baimena eskatu zion urteko errenta 4.340 errealetik 3.500era jaisteko. Baldintzak aldatu ostean, lortu zuten haragi-saltzaile bat topatzea, eta udalak baimena eman zion hari lokalean egin nahi zituen konponketak egiteko. Hori bai, lanen ordainketa erdibana egin zuten bi aldeek.

1879ko abuztuan, haragi-hornitzaile horrek, bere kexak helaraziz, honako honen berri bidali zion udalari idatzi batean⁵⁵.

Udalak aginduta bezala, Lazkao, Beasain eta Ordiziako balio erdian ari zela haragia saltzen eta horrela ezin zuela jarraitu adierazi zuen. Izan ere, Beasaingo harakinak, elkarrekin lehian, zeharo merke ari ziren haragia saltzen, eta Ataungoa ezin zen prezio horietan lehiatu. Gauzak horrela, Beasaingo balioa kontuan izan gabe, beste bi herrietako balioan saltzeko baimena eskatu zuen. Udalak, ordea, ez zuen eskaera onartu eta haragizain postuan beste albaiteiro bat jartzea erabaki zuen.

1881ean, udalak abelgorrien haragiari kiloko 1,12 pezetako balioa ezarri zion, baina hurrengo urtean herriko ostalari eta haragi-saltzailea kexu agertu zen abelgorri-haragiaren prezioak gorakada handia izan zuela eta. Hori zela eta, kiloaren prezioa 0,04 pezeta igotzeko baimena eskatu zion udalari, baita horrek onartu ere. Horrela, bada, eskaera egin eta hurrengo egunetik aurrera 1,16 pezetan saltzeko baimena eman zitzaion.

1884an karguan zegoen albaiteiroa hil zenean, herriko erregidorea arduratu zen hildako abereak zaintzeaz harik eta kargurako, behin-behinean, Ordiziako albaiteiroa izendatu zuten arte. Albaitari ofiziala urtebete beranduago izendatu zuten, 1885ean. Herrian hildako animalia

54. AUA, 500-02

55. AUA, 501-01

kopuruaren arabera zuen soldata; abelgorriko, pezeta bat ordaintzen zitzaion, eta ardiko, 0,25 pezeta.

Esan bezala, animaliak hil aurretik albaiteroak aztertu behar zituen, eta, hala egin ezean, animaliaaren nagusiari isuna ipintzen zion udalak. Hala gertatu zitzaion neurri hura aintzat hartu ez zuen herritar bati, eta, ondorioz eta araua hausten harrapatu zuten lehen aldia zenez, 12,50 pezetako isuna jarri zioten. Urte berean behi bat hiltzeagatik albaitariak pezeta bateko soldata zuela ikusita, pentsa daiteke garaiko gizartean 12,50 pezetako isuna ordaintzeko komedia handiak egin beharko zituztela; isun handia zen.

1886an, ardura utzi zuen ordura arte karguan egondako haragi-inspektoreak, eta hutsunea iragartzea erabaki zen. Kargua betetzeko, Tolosako albaitari bat bakarrik aurkeztu zen, eta udalak erraz aukeratu zuen. Hori bai, soldata apur bat igo egin zioten: hiltzen zen abelgorri bakoitzeko, 1,20 pezeta eta, ardi bakoitzeko, 0,30 pezeta ordainduko zitzaizkion.

1898ko apirilaren 21ean egindako batzarrean, baldintza batzuk ezarri ziren herriko etxea eta haragi-saltzeko lekua maiztergoan jartzeko, eta lerro hauetara ekarri nahi izan ditugu baldintzok.

1. Maiztergoa hurrengo ekainaren 30ean hasiko zen, eta 1902ko egun berean bukatu.
2. Udalbatzarrak beretzat behar zituen gela nagusia, idazkariaren gela, epaitegiko gela, kartzela bere ziegarekin eta gela bat, idazkariaren paperak gordetzeko.
3. Etxea urtero barrutik zuritu behar zen, eta 10 pezetara iristen ez ziren konponketak maizterraren kontura izango ziren.
4. Lehorte garaian, astero, lehenengo solairuko komunetik behera ura bota behar zuen.
5. Gela nagusia eta idazkariaren gela astero erraztu behar ziren, eta sabaia eta paretak ere txukun edukitzen saiatu behar zen.
6. Idazkariaren gelako estufa egunero piztu, iluntzean itzali eta errautsak jaso behar zituen.
7. Tximinia urtero garbitu behar zen urrian.

8. Etxe honetan bizi behar zuen maizterrak ostatuaren ardura zuenez, sukaldea eta ukuiluak irekita edukiko zituen, soinkariak tresneria bertan utz zezan.
9. Argia dohainik eskainiko zitzaien, baina maizterraren kontura izango ziren idazkaritzarako kinkearen metxa eta epaitegiko kandelak.
10. 5 urtean behin, ohiturari jarraituz, maizterrak Nafarroako Sorladan zegoen San Gregorioko santutegitik, ur bedeinkatua ekarri behar zuen, eta 5 pezetako limosna eman bertako kapilau jaunari.
11. Herriko etxeko harategian saldu behar zen haragia hezurra-ekin salduko zen. Hil behar ziren txekorrek, gehienez, 16 hilabetekoak eta 60 kilokoak izan behar zuten.
12. Ezin zen haragirik saldu, haragizainak ikusi eta baimena eman gabe. Hala salduz gero, 10 pezetako isuna jar ziezaioketen. Inspektore edo albaitari jaunari zaintzan laguntzeko, udalak zinegotzi bat izenda zezakeen.
13. Gauzez ezin zen hilketarik egin. Maiatzetik irailera arte goizeko zazpiak aurretik eta arratsaldeko bostak ondoren ere ez zen.
14. Edonork eros zezakeen haragia Ataundik kanpo, baina gero herriko harakinari kiloko 30 zentimo ordaindu beharko zizkion. Baldintza hori betetzen ez zuenari erositako haragia kendu eta 2 pezetako isuna ezarriko zitzaion.
15. Edozein herritarrek hil zitzakeen etxerako nahi beste abere, baina harakinari kiloko 8 zentimo ordaindu behar zizkion.
16. Tabernetan, hildako ardiaren edo ahuntzaren kiloa 1,50 pezeta ordaindu behar zen.
17. Herritar batek abereren bat hil eta kanpora bidali nahi zue-nean, agiria aurkeztu behar zuen nora bidaltzen zuen eta nori saltzen zion, eta kiloko 0,50 pezeta ordaindu.
18. Abere-hiltokia edonork erabil zezakeen, baina bertan hil behar ziren animaliek ezin zuten egin ukuiluan behar zena baino denbora gehiago.
19. Herriko edozein auzotan sal zitekeen haragia, baina beti hil-tegian hil behar ziren abereak. Hildako abere denak, hil eta bi

- orduren barruan inspektoreak pisatuko zituen, eta aberearen adina, pisua eta jan zitekeelako egiaztapena eramango zituen udaletxeko idazkaritzara. Hildako abere bakoitzagatik, 1,25 pezeta ordaindu behar zion harakinak haragizainari.
20. Eroritako aberea edo beste arrazoi batengatik aberea jateko hil behar zenean, inspektorearen ikerketa eta baimena behar ziren, eta horrek zergatiaren berri idatziz emango zion udalari.
 21. Hildako abere guztien bi hankak utzi behar zituen harakinak herriko behartsuei emateko; banaketa udalak izendatutakoek egingo zuten.
 22. Maizterrak errenta lau epetan ordaindu behar zuen. Izendatutako egunetik atzeratutako egun bakoitzeko, 5 pezetako isuna ezarriko zitzaion.
 23. Urteko errenta 1.314 pezeta izango zen (7,90 euro).

1899ko irailean Ataungo herritar talde bat udal-ordezkariekin elkartu zen hiltegiarekin zer egin erabakitzeko⁵⁶: berritu edo berria eraiki. Batzordeak eraikin berria egitearen aldeko hautua egin zuen. Udal-ordezkariek erabakia errespetatu zuten, baina argi utzi zuten hiltegi berriak, ordura artekoak ez bezala, ura izan beharko zuela. Horrez gain, ukuiluak, abere-hiltegiak eta harategiak, denek, eraikin berean egon beharko zuten. Udalak eraikin berriaren ordainketa egiteko dirurik ez zuenez, basoko egur-lantegi bat saltzea erabaki zuen.

Hiltegiaren proiektua egiteko eskatu zitzaion herritar bati, baina ezezkoa eman zuen, eta bigarren pertsona bat aukeratu behar izan zuten. Haren lana 350 pezeta kostatu zen (2,10€). Proiektua eginda, hiltegia eraikitzeko toki egokia aukeratzea falta zen, eta obra-lanak izendatzea. San Martin auzoko Uarkagainen eraikitzea erabaki zuten, eta, bederatzi hilabeteren ostean, eraikin berria amaituta zegoen. Guztira, 4.845,86 pezeta kostatu ziren eraikuntza lanak (29,12€)⁵⁷.

1907ko abenduan egindako enkantean, Arzubiko J. M. Dorronsoro Bikuñak hartu zuen haragi salmenta, hiltegia eta herriko ostalua lau urtez kudeatzeko ardura. 1911n egindako enkantera ez zen inor agertu, baina

56. AUA, 502-03

57. AUA, 503-01



ordura arte ardura izan zuenak⁵⁸ berehala egin zuen zerbitzua beregain hartzeko eskaintza. Beste eskaintzarik ezean, udalak aho batez onartu zuen proposamena, baina, hamabost egunerako J. Baztarrikak eskaintza bat egin zuenez, udalak enkantea egin behar izan zuen. Bertan, lehen interesatuak hasieran eskaini zuen diru kantitatea ia hirukoiztu egin zuenez, berari esleitu zitzaion zerbitzua eskaintzen jarraitzeko ardura.

Harategi-, ostatu- nahiz hiltegi-zerbitzua pertsona partikularrek kudeatzen zuten arren, zerbitzuok udalaren menpe zeuden, eta, prezioak aldatu nahi izatera, maizterrek baimena eskatu behar izaten zioten. Horrela ageri da 1930eko agiri batean. Itxuraenez, orduko haragi saltzaileak baimena eskatu zion udalari haragiaren prezioa 0,40 zentimo igotzeko, eta udalak baimena eman zion inguruko herrietako balioetan saltzeko.

Udalak ostatuari eta haragi saltzeari uko egin zionean, edonork ireki ahal izan zuen harategia askatasunez.

1958-1960ko urteetan lau harategi zeuden, eta lauretan txahal-haragia saltzen zen gehienbat. 1959an, esaterako, hiru harategiren artean 53.700 kilo txahal kontsumitu ziren Ataunen. Txahalaren ondoren, txerriak saltzen zen gehiena. Haragi hori, txahalkia ez bezala, bi harategitan bakarrik saltzen zen, baita arkumea eta ardikia ere. Gauzak horrela,

58. AUA, 505-02

7.429 kilo txerriki saldu ziren aurrez aipatutako urtean, 760 kilo arkume eta, nabarmen gutxiago, ardikia: 345 kilo. Taula honetan ikus daitezke datuok zehatz azalduta.

	Julian Erauskin	Juan Sukia	Luzio Dorronsoro	Inazio Garmendia
1958 Txahalak	21.897 kilo	20.260 kilo	9.938 kilo	
1958 Arkumeak	450 kilo	350 kilo	-	
1958 Txerriak	3.515 kilo	2.789 kilo	-	
1959 Txahalak	25.075 kilo	18.321 kilo	10.302 kilo	
1959 Arkumeak	425 kilo	330 kilo	-	
1959 Ardiak	180 kilo	165 kilo	-	
1959 Txerriak	4.076 kilo	3.353 kilo	-	
1960 Txahalak	23.712 kilo	19.208 kilo	9.014 kilo	218 kilo
1960 Arkumeak	405 kilo	375 kilo		
1960 Txerriak	4.983 kilo	3.717 kilo		

Jarraian, taula batean bildu ditugu Ataunen egon diren harategiak eta horiei buruzko hainbat azalpen eta bitxikeria.

IZENA	URTEAK	KOKAPENA	INFORMAZIOA
Dorronsoronea	1914-2003	San Martin	1914an eraiki zuten Dorronsoronea izeneko etxea. J.M. Dorronsoro Bikuña eta J.R. Elizalde Bikuña senar-emazteek bertan harategia irekitzeko baimena eskatu zioten udalari. Herriko harategi bakarra zen, eta gainera, etxe berean zegoen ostaua ere. Ostatuari dagokionez, udalaren jabetzakoa zen, eta horren ustiapena enkante bidez aukeratzan zen. 1960ra arte harategiaren ardura negozioa ireki zuten bikotearen semearen gain egon zen, Luzioren gain, eta urte hartan Itsasondotik etorritako bati alokatu zioten.
Jose Albisu Bazarrrika	1924-1926	Arrate etxea (San Gregorio)	Herrian ireki zen bigarren harategia izan zen. J. Albizu Bazarrrika nagusiak, hura itxi ondoren, Ordizian ireki zuten beste harategi bat.
Iztator	1939-2017 <i>*Hiru nagusi izan ditu:</i> 1939-1952 1952-1973 1973-2017	Arresene etxea (San Martin)	Sastegiko J. Erauskin Maiza eta Sukiko A. Esnaola Esnaola senar-emazteek ireki zuten. Harategiaz gain, okindegia ere izan zuten. 1993an, Etxe Alaira aldatu zuten negozioa. Eta Arresene etxean, harategia ireki zuten berrito Zubikoetako J. Sukia Rezola eta Itsasondoko G. Garmendiak, 1952an. Horiek I. Sukia Arruabarrenari eskualdatu zioten negozioa, eta bertan jardun zuen 2017an jubilatuz arte.
Etxe Alai	1939 – gaur egun	San Martin	Iztatorren harategia ireki zuten lehenbiziko horien nagusiak, baina, 1939an etxe hori egitean, Erauskin Esnaola senar-emazteek Iztatorreko harategi-okindegiak lekualdatu zituzten. Hainbat urtez harategiaren ardura haien semeak izan ostean, erretiratu zeneretik emaztea arduratzen da harategiaz.
Tabla	1956-1958	Tabla Urbitarte etxea (S. Martin)	J. Sukia Izaskun Garaialdekoak ireki zuten, baina 2 urtera itxi egin zuten.
	1957	Zapateri zaharra (San Gregorio)	Harategia irekitzeko baimena eskatu zuten udalarekin J. Erauskin Maizak.
Nikasio	1962	Sutegi ondoan San Gregorio	Harategia irekitzeko baimena eskatu zuten udalarekin ⁵⁹ N. Garaialdek.

59 AUA, 411-19

Meategiak

Beste hainbat herritan bezala, Ataunen ere, metalik ba ote zen ikus-teko, lurpeko zundaketak egin zituzten hainbat parajetan, honako hauek aurkitu zituzten:

- Erremedion: beruna eta eztainua
- Napar Iturrin: sufrea, beruna eta zilarra
- Muñotxoetan: burdina eta eztainua
- Aiztondon: beruna
- Artzaten: kobrea, burdina eta berun pixka bat

Askaeta deritzon lekuan, Motasorotik gora igo eta Iturriotz base-riaren inguruan, agerian daude oraindik gaur egun lurpeko meazulo eta zabor pila handiak. Horrek adierazten digu zer-nolako lanak hartu ziren aurkikuntza horiek gauzatu nahian, eta, dakigunez, emaitzak eskasak izan ziren.

Kie izeneko muino barrenean, Eskitxal eta Arzate baserrien artean, denbora luzez ez bazen ere, gure herrian itxaropen gehien sortu zuen meategia miatu zuten, nahiz eta itxaropen horrek ez zuen asko iraun.

1736-10-5ean sortu zen *Sociedad y Compañía del Mineral del Monte y Peña llamado Artzate* izeneko lantegia. Sozietate haren jabetzaren 3 akzio Lazkaoko bikarioaren esku zeuden, eta 4 akzio bilbotar baten esku; hainbat ataundarrek ere izan zuten akzio bana, eta beste bat, berriz, banatu gabe geratu zen.

1736ko urriaren 5ean, Artzaten elkartu ziren meategiaren jabegoa zuten hainbat lagun. Itxura denez, bi herritarrek kobrea aurkitu zuten, eta berau baliatzeko baimena eskatu nahi zuten.

1912an Ataungo Udalak, Artzate Aitze izeneko harrobitik, kareharri karbonatoa eta barita (bario oxidoa) ateratzeko baimena eman zion bilbotar bati hiru urterako. Ateratako metro kubiko bakoitzeko 0,25 pezeta ordaintzeaz gain, urtean, gutxienez beste 125 pezeta ere (0,75€) ordaindu beharko zizkion udalari.

Bilbotar hark ez zuen hiru urteko ustiapen-hitzarmena bete, eta, hurrengo urtean, 1913an, donostiar bati eman zioten haren ardura. Hainbat urtez ustiatzen jardun ondoren, 1919an, arduradunak instantzia bat bidali zuen udalera ustiapen-lanak eten zituela esanez, baina kareharri karbonatoa, espatoa eta antzerakoak ateratzen jarraitu nahi zuela eta horretarako lur zati handiagoa behar zuela.

Meategi hark herrira lana eta aberastasuna ekarri zituen, baina baita zorigaitzak ere. Izan ere, eztrandak ugariak izaten ziren, eta, horietako baten ondorioz, M. Agirre Zeberio herritarra itsu geratu zen; lanean ari zela, eztanda batek zauriak eragin zizkion.

Neskameak

Tradizionalki, emakume asko aritu dira neskame, mota askotako lanak eginez; baita ataundarrek ere. Lanpostu horien sorreran, zerikusia izan zuen, XIX. mende amaieran, Espainiako gizarte talde aberatsaren oporraldiak; izan ere, euskal kostaldera etortzen hasi ziren. Hasiera batean lana uda garaikoa izaten bazen ere, denborarekin urte osoko jarduera bihurtu zen. Horrela, bada, udatarrei zerbitzua emateko, lanpostu berriak sortu ziren: garbitzaileak, lisatzaileak, sukaldariak, haurtzainak...

Jarraian bildu ditugu hainbat emakume ataundarrek beraien neska-metza garaiari buruz kontatutakoak, guri zein *Ahotsak.eus* webguneko kideei.

-Felisa Arza (1912-2010): Errenterian egon nintzen neskame 16-17 urterekin. Ez nuen denbora asko pasatu. Tabernan zerbitzatzan eta etxeko lanak egiten aritu nintzen.

-Maria Dorronsoro Dorronsoro (1921-2011, Etxe Zuri): Eskolan gaztelaniaz berandu ikasi genuen, eta, neskame joateko garaia iritsi zitzaidanean, orduan ikasi behar izan nuen. 10 urterekin joan nintzen neskame, Beasaina. Herri handia zen hura guretzat, eta aldaketa handia izan zen, baina ez nuen beldurrik izan; orain beldur gehiago ematen du. Nire betebeharra etxeko lanak egitea eta umea zain-tzea zen. Poltsan merienda hartu, eta umearekin kalean paseoan ibiltzen nintzen. Gelto-kira joan, eta trena ikustea gauza handia zen niretzat.

-Luisa Mujika Zurutuza (1924, Lauztigarakoa): 11 urterekin joan nintzen etxetik neskame, umeak zaindu eta etxeko lanak egitera. Gero, berriro, Atauna itzuli nintzen neskame, eta hamalau urte egin nituen San Gregorion, Hiru Biden. Bertan, denetik saltzen zen denda zuten: azukrea, kafea, jaboia, ardoa, alpargatak, mertzeriako gauzak, ontziak, babak, irina, garbantzuak, babarrun zuria. Jendeak egunean egunekoak erosten zuen.

-Jexuxa Barandiaran (1924-2019, Antzio): 14 bat urterekin joan nintzen neskame, umeak zaindu eta otorduak jartzera. Aitzio ondoan, Erremedion, egon nintzen ni neskame. Lanean ordu-tegia ondo errespetatuta ibili behar izaten genuen. Gogoan dut han nengoela, gizon bat hil zela kanteran istripuz besoa moztuta.



-Josefa Aierbe Aldasoro: 10 urterekin joan nintzen neskame auzoko baserri batera, etxeko lanak egitera. Gero, 13-14 urterekin, Ordiziako taberna batera joan nintzen, eta hantxe pixka bat piztu. Tabernan, hasieran, ontziak garbitzen eduki ninduten, gero jangelan gizon bati otorduak zerbitzatzeko, eta, harekin ondo moldatzen nintzela ikusi zutenean, jangelan zeuden beste bezero batzuei zerbitzatzeko baimena eman zidaten. Han irabazi nituen nire lehen xoxak; etxean behar ziren gauzak erosteko erabili nituen, ez nituen niretzat gorde.

Okindegiak

Ogia izan da elikagai nagusietako bat azken milaka urteetan. Esan daiteke gizakiaren historia eta ogiarena elkarri lotuta doazela. Izan ere, gizakiak nomada izateari utzi, eta laboreak lantzen hasi zenean ekin zion ogia egiteari.

Euskal Herrian ere aspalditik dago ogia egiteko ohitura. Baserri gehienetan izaten ziren gari-oroak eta labeak, baita erreka ondoetan errotak ere. Eta Ataun ez da salbuespena. Agirietan jasota dagoenez, herrian bost errota egon dira: Elizalde, Larruntza, Errota Berri, Arrateta eta Errotatxo. Gainera, errota horiek aleak ehotzeaz gain, aurrez aipatu bezala, argindarra sortzeko ere balio izan dute. XVII. mendetik aurrera, hamar errota egon dira Ataunen, horietako lau Aitzarte errekan: Dostillon, Imatzene azpian, Ustatxokoa, Aiako Errota eta Errotatxo. Horietako batzuen aztarnak oraindik ikusgai daude.

XVI-XVII. mendeetan garia, zekalea eta artatxikia lantzen ziren batez ere, baina XVIII. mendetik aurrera, Ameriketatik ekarritako artoak gain hartu zion gariari, gehienbat Euskal Herriaren iparraldeko lurraldeetan. Izan ere, artoak hezetasun ugari behar duenez, oso ondo egokitu zen Gipuzkoako eta Bizkaiko lurretara. Ondorioz, gari-sailak Nafarroa eta Arabako lur lehorretara murriztu ziren. Hala ere, herriaren orografia dela eta, sail handiak ez izan arren, tarteka-tarketa jartzen ziren gari-sailak Ataunen.

Ataunen baserri gutxik izaten zuten urte osorako ogia. Ondorioz, 10-12 urteko mutikoak lanera basora joan beste erremediorik ez zuten izaten, ikazkintzara edo egurra egitera. Bitarte horretan garia gastatuz gero, ama joaten zen errotara gari-eske. Etxeetan geratzen zirenek dirurik ez zuten izaten, eta errotariak labanarekin markak egiten zituen *taia* izeneko listoi batean, bakoitzak zer eramane zuten jakiteko. Udazkenean etxeko gizonak eta mutilak basotik bueltatzen zirenean, haiek ekarritako txanponak hartu, eta ama errotara joaten zen zorrak ordaintzera. Errotariak, orduan, labanarekin listoiko markak kentzen zituen.

Garia landu eta jaso ondoren, umeen ardura izaten zen aleak ehotzera eramatea errotara, eta bertatik irina jasotzea. Ehotutakoan, etxekoandreak arduratu ohi ziren oreka egin eta ogia egiteaz. Baserrietan egiten ziren ogiak etxerako izaten ziren, baina XVIII. mendean jada baziren Ataunen jendea saltzeko ogia egiten zutenak.

1760ko urrian notario aurrean izenpetutako hitzarmenean agerienez, herriko okinak behartuta zeuden urtebetez ogia erregidoreak ezarritako prezioan saltzera. Agindua bete ezean, isunak jarriko zizkieten. Aipagarria da hitzarmena sinatu zuten lau okinak emakumeak zirela⁶⁰. Ez dira, ordea, XVIII. mendean negozioari lotuta ageri diren emakume bakarrak.

1771n, esaterako, udalak ogia erretzeko baimenduta zeuden pertsonen zerrenda egin zuen, eta baimena jaso zuten zortziak emakumeak izan ziren⁶¹; asko, gainera, ezkonduak. Gaur egungo ikuspegitik ezkondua izatearena zehazteak inongo zentzurik ez badu ere, XX. mendeko 60-70eko hamarkadetara arte, emakume ezkonduak lan egin nahi bazuten, beharrezkoa zuten senarraren baimena.

Gaur egunetik ikusita deigarria egiten zaigun arren, XVIII. mendean, udalak ezartzen zizkien baldintzak eta arauak herriko okindegiei: ogiaren pisua, salneurria... Horrez gain, orduko okinek debekatua zuten baserrietara joatea ogia saltzera, eta behartuta zeuden garia herrian bertan herritarrei erostera.

Aleak xehatu eta irina egiteko errotei dagokienez, aurrez esan bezala, dokumentatuta dago bost behinik behin egon zirela: Elizalde, Larruntza, Errota Berri, Arrateta eta Errotatxo.

Elizalde da guztietan zaharrena, azken urteetan Errotazar esaten diotena. Bi izen horiez gain, agirietan *La Plaza*, *Eleizalde* eta *Elyzalde* izenak ere ageri dira. Hura izan zen herriko errotarik garrantzitsuenak, eta lehen aipamena 1408koa da, herritarrek Lazkaoko jaunarekin sinatu zuten itunari buruzkoa, hain zuzen ere. Izan ere, errotaren jabegoa bien esku zegoen Larruntzakoekin batera.

Itun haren arabera, Ataungo herritarrak eta Amezketako Oier Lazkaoko jauna elkartu egin ziren Agauntza ibaian errota berriak egi-

60. GAO.PT.1919-409 orria.

61. GAO.PT. 1933 – 197 orria.

teko, herritarrek beraien zerealak eho zitzaten. Horretarako, baldintza hauek ipini zituzten:

- 1- Bi aldeak elkartu eta ibaian errota egiteko toki egokia aukeratu behar zuten; izan ere, lurrak erosi egin behar zituzten. Lurren aukeraketan eta ordainketan, bi aldeek berdin parte hartuko zuten.
- 2- Errota bi aldeena izango zen: erdia Amezketako Oierrena eta beste erdia Ataungo herritarrena.
- 3- Errota egiten hasiko ziren agiria sinatu eta 20 egunera.
- 4- Errotak ondo osatuta egon behar zuen: errotak, aldaparoa eta beharrezko zen gainerako tresneriarekin.
- 5- Zereal guztiak bertan eho beharko zituzten: garia, artatxikia, oloa, garagarra...
- 6- Uztak ehotzeagatik jasotako laka eta errenten erdia Amezketako Oierrena izango zen, eta beste erdia, Ataungo herritarrena.

Erroten gaineko eskubide eta betebeharrak ere zehaztu zituzten:

- 1- Ataunen beste errotaren batzuk egiteko beharra ikusiz gero, erdibana egingo zituzten. Baina bi aldeetako inork ezingo zuen errotarik eraiki Agauntza ibaian Amiribia deitzen zaion gunetik gora.
- 2- Behin errotak eginda, berrikuntzak bi aldeek erdibana egin beharko zituzten.
- 3- Bi aldeetako batek ez bazituen egin nahi errotak beharrezko zituen berrikuntzak, beste aldearentzat izango ziren errotatik lortutako irabazi guztiak, berrikuntzei zegokien zatia ordaindu arte.
- 4- Bietako batek bere parte saldu edo alokatu nahi izatera, lehengo beste parteari eskaini behar zioen. Alde bietako batek hitzartutakoa bete ezean ezarriko zitzaizkion zigorrak ere adostu zituzten.

Handik urte batzuetara, Ataungo kontzejuak kereila jarri zion Lazkaoko jaunari. Ordura arte, bien artean ustiatzen zuten errota, baina

Lazkaoko jaunak nahi zuen herritar denek euren uzta edo laboreak errota horretan ehotzea, eta Ataungo kontzejuak beste errota batzuk eraikitzeko eskubide osoa zuela defendatzen zuen. Hitzarmenaren arabera, Agauntza ibaian ezin zuten errotarik eraiki, baina gainerakoetan ez zen aipatzen debekurik. Errota gehiago eraiki eta herritarrek edozein errotetara joateko eskubidea izatea zen beraien nahia.

1408an hitzarmena egin zutenean, bi aldeek onartu zuten Agauntza ibaian beste errotarik ez eraikitzeko baldintza. Ziurrenik orduan nahikoa izango ziren Elizalde errota eta Larruntza ataundarren zerealak ehotzeko. Baina gerora, biztanleriak gora egin zuen, eta horrekin batera baita elikagai eskariak ere, eta ordura arte zeuden errotak ez ziren nahikoa guztientzat behar ziren zerealak ehotzeko (garia, zekaleak, artatxikia eta garagarra).

Larruntza - Elizalde

400 urtean baino gehiagoan maizter adina konponketa izan ondoren, 1927an aurrez izandako eskubideak galdu eta errota arrunt bihurtu zen. Urte horretan emakume alargun bat zen errotaren arduraduna, A. Uranga. Lau errotarri zituen, eta gutxi gorabehera ordu batean 12 kilo artirin eta 60 kilo gari ehotzen zituen. Ordainketa gisa, ehotutakoaren %10 kentzen zien baserritarrei. Ordainketa hari *laka* deitzen zitzaion.

Agauntza errekan egindako presa batetik hartzen zuen ura, gaur egun Ubarrieta etxea den horren aurrean, eta kanal edo ubide baten bidez joaten zen ura etxe-ondoan zeukan aldaparora. Uraren bidez errotako harriak mugitu ondoren, argindarra sortzeko turbina mugitzeko aprobetxatzen zen.

1933an oraindik bi zerbitzuak zituela ageri da dokumentuetan. Bate-tik, Elbarrena auzorako elektrizitatea sortzen zuen. Hori bai, argindar gutxi sortzen zuen, eta etxe bakoitzak aldi berean ezin zituen bi bonbilla baino gehiago izan piztuta. Bestetik, hasierako zereginari jarraituz, garia eho, ogia egin eta saldu ere egiten zuten. 1947an oraindik bi zereginekin jarraitzen zuen M. Altolagirre Arresek. 1962 inguruan itxi zituen errotak atearak betirako.

Larruntza errotak, berriz, San Gregorioko Uarkaingo presan hartzen zuen ura, eta kanal baten bidez aldaparora bideratu.

Aiako errota

1808an eraiki zuten Kaxetatik gora, auzora, doan errepide ertzean. Aiako hamalau baserriren kasuan bezala, honen jabetza ere Valmedia-noko markesarena zen; hots, Lazkaoko Jaunarena.

1929an, Valmedianoko markesaren ordezkari zen emakume batek, K. Usabiagak, baimena eskatu zuen udaletxean Aiako erreka-uraren ura ustiatzeko eta errota argindarra sortzeko.

Errota hartan, aleak xehatu eta argindarra sortzeaz gain, ogia egin eta saldu ere saltzen zuten. Harik eta 1963an errota itxi beharrean suertatu ziren arte. Izan ere, Beasain, Ordizia eta Lazkaora ura eramateko, Aiaiturrietako mankomunitatea sortu eta iturburu haren urak eraman zituzten. Ondorioz, lehorte garaietan ez zen denentzako lain ur izaten; erreka urik gabe geratzen zen, eta errota itxi beharra izan zuten. Hala ere, ogia saltzen jarraitu zuten 1971ra arte. Urte hartan nagusiak negozioa Sakanako okindegi bati eskualdatu zion, baina berehala Ataungo eta Lazkaoko bi gizonak erdibana hartu zuten okindegiaren ardura, Ataunen kanpoko aurkaririk sar ez zedin.

Ziprianone

Aiako horrez gain, beste hainbat okindegi ere izan ziren herrian. Aipatutako erroretan zeuden okindegiez aparte, Ziprianone etxeko okindegiari buruzkoak dira aipamenik zaharrenak. Agirietan ageri denez, 1771n emakume okin bat bizi zen etxe hartan, eta herritarrentzat ogia egiten zuen. Urteek aurrera egin ahala, etxea okin ofizioari lotuta egon da, eta hortik datorkio izena ere. Izan ere, 1819an Teresanea izenez ezagutzen zen, baina okinak erosi zuenean Barriola-enea deitura jarri zion etxeari.

Okin eta gozogle hark, gainerakoen antzera, gauez egiten zuen ogia, eta goizean, zaldia eta karroa hartuta, herriko auzoetan banatzen zuen. Aitak irekitako negozioarekin jarraitu zuen semeak, baina, 1960an Beasaingo lantegi batera lanera joan zenean, okindegia itxi zuen.

Arzubia

XIX. mende amaieran jada irekita zegoen 1975era irau duen okindegia. Orea egiteko tresna bat zuten bertan, eta, hura mugiarazteko, asto bat zerabilten, begiak estalita.

Gizartea, eta berarekin batera prezioak ere urteak igaro ahala nola aldatu diren jabetzeko, hementxe datu aipagarri bat: 1946an, bi kiloko ogi handia 0,14 zentimoan saltzen zen.

Arresene - Iztator

1935ean udalean baimena eskatu zuen Sastegiko J. Erauskin Mai-zak **Arresene** etxean ogia egiteko labea eta makinaria ipintzeko. Beste okinen antzera, gauean ogia egin eta goizean ogiz kargatutako karroari zaldia erantsita ogia saltzera atera behar izaten zuen, etxez etxe, egunero.

1936ko uztailaren 19an, bezero berriak lortzen ari zela Espainiako gerrako tropak sartu ziren Atauna. Momentu gogorak izan baziren ere, batzuei zoriona edo pozteko arrazoiren bat behintzat eragin zien gerrak. Arreseneko nagusiak ondo gogoan izan du, egun hartan, nolako poza hartu zuen 300 “*txusko*” edo opil Kontsejupera eramateko agindua jaso zuenean. Poz hura laster bihurtu zen, ordea, negar, ez baitzioten ordaindu.

Negozia martxan eta bide onetik jarri eta berehala, ordea, gudari-tzarako adina heldu zitzaion eta hiru urtez kanpoan ibili behar izan zuen. Bitartean bezeroei eutsi nahi izan zien, ordea, eta, horretarako, anaiak eta iloba batek Ordizian egindako ogiak saldu eta banatzen zituzten herrian. Iztator izeneko okindegian 1948. urtera arte aritu zen; gero, Etxe Alai izeneko etxe berria eraiki, eta bertan jarri zituzten okindegia eta harategia.

Etxe Alai

Okindegi ugari ari gara aipatzen, baina, dirudienez, 1950 bueltan bazen guztientzako lan eta negoziarik. Etxe Alai okindegiko nagusiak zioenez, 1940-1950 urteen bueltan, kiloko 4.500 ogi inguru saltzen ziren Ataunen egunero; ogi bakoitzaren prezioa 0,60 pezetakoa zen. Kontuan izan behar da 36ko gerra pasa berria zela eta beste hainbat janari lortzeko zailtasun ugari zeudela; horregatik, ogia oinarritzko janari bihurtu zen. Hala berean, aipatu behar da gaur egungo biztanleriaren bikoitza zuela gerra ondorengo Ataun hark; besteak beste, basoetan jende asko baitzebilan lanean.

Etxe Alaiko okindegia J. Erauskin eta A. Esnaola senar-emazteek ireki zuten. Aurrez, Arresene etxean aritu ziren lantegi berean, eta, 1948an etxe berria egin zutenean, negozioa ere lekualdatu egin zuten.

Hainbat urte lanean pasa ondoren, Arreseneko negozioa uzteko garaia iritsi zitzaizenean, M. Auzmendi Etxeberria eta B. Dorronsoro Esnaolak hartu zuten okindegiarekin aurrera jarraitzeko konpromisoa. Haiak ere, gainerakoen antzera, egunsentian mugitu eta ogiak egin ondoren, herrian banatu behar izaten zuten. Horretarako, senarrak bizikletari erremolke txiki bat jartzen zion atzean, eta Arin auzora arte joaten zen ogi-saltzera. Gero, furgoneta erosi zuten banaketa egiteko. 1970ko apirilean, loterian sari potoloa tokatu zitzaien, eta gau hartan, lana egin eta bezero guztiei ogia doan eman ondoren, beren langintza utzi zuten.

Hiru Bide

San Gregorioko lehen okindegiaren aipamena 1953koa da. Urte hartan eskatu zuten K. Dorronsoro Zabaleta eta I. Dorronsoro Goikoe-txea senar-emazteek Hiru Bide etxean okindegia irekitzeko baimena. Okindegiak gain, urte gutxiren buruan, argindarrarekin mugitzen zen errotxoa ere prestatu zuten. Horrez gain, janari-denda ere izan zuten, harik eta 1977an Pagosa sortu zen artean, orduan betiko itxi zituzten negozioaren atak.

Errotaundi - Martintxo

Gaur egun irekita dauden bi okindegien, Errotaundi eta Martintxo-ren, historia laburragoa da. Lehena, Lazkaoko Errotaundi okindegiko nagusiek ireki zuten 2001ean Graziña Berrin. 2003an, ordea, etxea salgai jarri zuten, eta okindegia Juanikonera pasa zuten. Denbora laburrerako, ordea, 2009an Graziña Berriko etxe berriak egin zituztenean okindegia ere bere erroetara bueltatu baitzen. Handik gutxira, ondoko lokalean **Martintxo** janari-denda, taberna eta okindegia ireki zuten.

Ostatua

Herriko etxe edo ostatuaren aipamenak XVIII. mendekoak dira. Lokala udalarena bazen ere, ostatu-zerbitzua maiztertzan izaten zuten, udalak jarritako baldintzapean.

1725ekoa da udalaren eta maizterraren lehen hitzarmena. Ostatuaren kudeaketa-baldintzak jartzeaz gain, herriko festetan plaza ixteko hesiak ere utzi zizkion udalak. Izan ere, urte haietan zezenketak egiten zituzten San Martingo plazan, herriko festetan.

1725ean udala diruz larri zebilela eta, San Gregorion bere jabeztakoa zuen Olea etxea alokairuan jarri beste erremediorik ez zuen izan. Alokairu-kontratuaren arabera, maizterrak 18 errealeko errenta pagatu, eta zezenketarako ekarriko zen zezen baten kostuaren erdia ere ordaindu behar zuen. Normalean zezenak Nafarroatik ekartzen zituzten, baina 1776an Gipuzkoako herriei debekatu egin zitzaizen zezenak hortik ekartzea, bai behintzat gobernadorearen baimenik gabe⁶².

1764ko maiatzean herriko ostatua alokatzeko onartuta zeuden zer-gak gogortu egin ziren. Hona hemen baldintza horien argitasuna:

- 1) Ostatura agertzen zirenei eskaini behar zitzaizen zerbitzua, eskaleei izan ezik.
- 2) Ostatuko otorduek prezioa finkoa izango zuten. Norberak etxetik eramandako janaria ere prestatzen zen, baina horrek ere bazuen koste bat.
- 3) Menuan hasteko eltzekariak, arrautza pare bat, bakailaoa edo arraien bat izaten zituzten, eta, ondoren, haragi, arkume, urdai edo hegaztiak, ardoz lagunduta.
- 4) Menutik kanpo, beste zer edo zer jan nahi bazuten, gehiago ordaindu behar zuten.
- 5) Ukuiluak garbi eduki behar zituzten, ETA bezeroen abereei jaten emateko honako hauek izan behar zituzten:

62. Arin Dorransoro, J., Don Juan Arinen II. Liburukia, 263

JATEKOA	PREZIOA
Lakari baba eta artoa lastoarekin	Beloizko bi erreal
Baba eta oloa	Beloizko erreal bat eta erdi
Araba, Nafarroa eta Gaztelako garagarra	Beloizko erreal bat eta erdi

- 6) Oheak garbi eskaini behar ziren. Prezio ezberdinak zituzten zaldunentzat eta morroientzat; morroiek erdia ordaintzen zuten.
- 7) Bezeroei adierazi behar zitzaien ilundutakoan ezin zirela kalean ibili, eta, agindua bete ezean, erregearen ordezkariak zigorra jar ziezaieketela.
- 8) Bezeroek diru arruntez ordaintzeko aukera zuten; ez zuten zertan zilarrezko txanponekin ordaindu. Ostalariak ohar hori bistan jarri behar zuen, bezeroak jakinaren gainean egon zitezen.

Udalak, baldintzak eta epea jakinarazi ondoren, enkantean alokatu ohi zuen.

Eraikin hartan, ostatuaz gain, herriko abere-hiltegia eta haragia saltzeko lokala zeuden, eta bertako arduradunaren zeregina zen herria ardoz eta haragiz hornitzea (behikia eta ardikia izan zitekeen). Zerbitzuaren ardura enkantera ateratzen zen. 1780an, esaterako, 40 dukateko errenta ageri da, eta enkantean hautaketan aritzen zirenei Urteberri egunean bazkaria dohainik emateko betebeharra ezarri zitzaion.

1876ko ekainaren 6an, enkante bidez etxe hori alokatzeko, udalak honako baldintza hauek jarri zituen:

- Etxearen maiztertza bi urterako zen.
- Errenta urtero ordaindu behar zen.
- Urtero etxea zuritu behar zuen maizterrak.
- Urtean behin, udalak hala agintzen zuenean, ur bedeinkatua ekarri behar zuen Nafarroako Sorlada herrian zegoen San Gregorio santutegitik (gurutze-jartze egunerako), eta haren kon-

tura, meza-diru edo limosnatarako, 20 erreal utziko zituen santutegian.

- Sanjoanetan sei arrobako zahagi bat ardo emango zion udalari, aspaldiko ohiturari jarraituz.
- Bidelari eta aberezaleak etortzen zirenean ostatua, sukaldea eta ukuilua irekita egon behar zuten, eta etxearen estalpea garbi eta txukun.
- Abere-hiltegia eta haragia saltzeko lekua ere etxe honetan zeuden, eta udalari urtean 3.000 erreal ordaindu behar zizkion arduradunak.

1883an ostatuaren ardura zuen ostalariak baimena eskatu zion udalari eraikinean bertan zegoen espetxean ehundegi bat jartzeko. Baina momentu hartan udalak espetxearen beharra zuenez, ezezkoa esan zion. Hala ere, espetxea hustu bezain pronto ehundegia jartzeko baimena izango zuela hitz eman zioten.

Ondorengo maizterrak, 1886an, bolatokia konpondu eta harlauzak jartzeko baimena eskatu zuen. Urte bereko abuztuaren 22an udalak egin zuen bileran hurrengo enkantea egin arteko erabilera baimena eman zion, baina elizako meza eta bezpera orduetan bolotan ez ibiltzeko baldintzarekin.

1877an egin zen enkantean, ez zen inor prest agertu negozio horren ardura hartzeko, eta, Foru Aldundiari baimena eskatuta, alokairu-prezioa 4.340 errealetik 3.500 errealerara jaistea erabaki zen.

1898an, berriz, enkantean atera aurretik, maizterrak bete beharreko baldintzak aldatu egin zituen udalak.

- Maiztergoa 1898ko ekainaren 30ean hasi eta 1902ko egun berean bukatuko zen.
- Udalbatzarrak beretzat behar zituen gela-nagusia, idazkariaren gela, epaitegiko gela, kartzela bere ziegarekin eta idazkaritzako hainbat paper gordetzeko egin behar zen gelatxoa. Maizterren erabilerarako ziren, berriz, baratzea, abere-hiltokia, txerritegia, bolatokia eta beste zenbait leku.

- Herriko etxe hori barrutik urtero zuritu behar zen. 10 peze-tara iristen ez ziren konponketak maizterrak berak ordainduko zituen.
- Lehorte garaian, astero lehenengo solairuko komunetik behera, ura bota behar zuen.
- Gela nagusia eta idazkariarena, gutxienez astero erraztu behar ziren, eta sabaia eta paretak txukun edukitzen saiatu behar zuen.
- Ostalaria zenez, bertan biziko zen maizterra. Ate, sukalde eta ukuiluak irekita izango ziren, ostatu hartutakoek tresneria utz zezan.
- Argia doan eskainiko zitzaien, baina maizterraren kontura izango ziren idazkaritzako kinkearen metxa eta epaitegiko beila edo kandelak.
- Ohitura zen bezala, urteoro Nafarroako Sorlada herrian zegoen San Gregorio santutegitik, ur bedeinkatua ekarri behar zuen, eta bost pezetako limosna eman beharko zion bertako kapilau jaunari.
- Herri-ostatuak eta abere-hiltegiak haragia saltzeko leku eta baimenarekin, urteko 1314 pezetako (7,90 euro) errenta izango zuen.

1911ko abenduaren 3an egin zen enkantera ez zen inor agertu, baina egun batzuetara J. M. Dorronsoro Bikuñak eskaintza aurkeztu zuen. Hura prest agertu zen ostatuagatik urteko 135 pezeta eta haragi-saltzeko baimenagatik beste 80 pezeta ordaintzeko. Udalak aho batez onartu zuen eskaintza.

Osasungintza

Munduko toki askotan bezala, Ataunen ere medikuntza tradizionalak indarra hartu aurretik, landareak erabiltzen ziren sendatzeko. Juan Arin Dorronsorok pertsonak izaten zituzten gaitz ugari bildu zituen, baita horiek sendatzeko erremedioak ere. Familiatik zetorkion zaletasuna, belarrekin botikak egiten zituen osaba baitzeukan.

Sendagile titulua izan gabe sendagintzan aritzen ziren pertsona haiei *petrikilo* deitzen zitzairen, eta Ataunen ere izan ziren halakoak. Joxe Bikuñak esan digunez, petrikilo nahiz erizain-barberu haiek, besteak beste, erditzeak artatu, zauriak sendatu eta hortzak ateratzen zituzten. Horrez gain, barberu eta ile-moztaile ere beraiek aritzen ziren. Amaitzeko, esan behar da etxeak estrategikoki kokatuta zituztela, batetik bestera antzeko tartearekin: bat San Martinen, bestea Astigarragan eta hirugarrena, Arinen. Aipamen berezia merezi du J.A. Urdangarin Ololuzeagakoa, apaltasun guztiz egiten zituen sendaketengatik.

Ikasketa ofizialik ez izan arren, emakumeek zeresan handia izan zuten arlo horretan, aspaldidanik zaintza beraiei loturiko alorra izan baita. Gauzak horrela, euskaldun emakumeak unibertsitatera joan eta ikasketak egiten hasi zirenean, lehenbizi osasungintzarekin lotuak izan ziren aukeratu zituzten. Baina oso prozesu berantiarra izan zen.

XIX. mende bukaeran eta XX.aren hasieran, ez zen oso normala Euskal Herrian goi-mailako ikasketak zituen emakumerik aurkitzea. Familia onetako neskak ere ez ziren unibertsitatera joaten, gaizki ikusia baitzegoen. Gainera, alaba unibertsitatera joateak familia-bizitza hankaz gora jartzen zuen; amak ere alabekin joaten baitziren bizitzera ikasketek irauten zuten bitartean. 36ko ger-raren aurretik, gainera, osasungintzaren arloko ikasketak egin nahi zituztenek Euskal Herrikan kanpo joan behar zuten; ez baitzegoen ikasketa horiek eskaintzen zituen unibertsitat-

JEXUXA BARANDIARAN *Izaba buruan teila jarrita etorri zen amari erditzen laguntzera, umea izan berria zelako eta oraindik elizan sartu gabe zegoelako.*

erik. 1936ko azaroaren 18an sortu zuen unibertsitatea Agirre lehendakariaren gobernua, eta lehen fakultatea Medikuntzakoa izan zen.

Unibertsitate titulurik izan gabe ere, ordea, emakume asko eta asko izan dira historian zehar erizain edo mediku lanetan aritu direnak, baita Ataunen ere. Besteak beste, erditzeetan laguntzen ibiltzen zirenak.

Sendagile tituludunak

Gaixoak artatzeaz gain, sendagileen zeregina izan ohi zen norbait hiltzean lurperatzeko baimena ematea. XIX. mende amaieran, hauek ziren ataundarren heriotza-kausa nagusiak: erditzeak, gastroenteritis, goragaleak, pulmonia, pneumonia eta gorrina. (AUA, 199-20/25)

Lehen sendagilearen aipamenak aspaldikoak dira Ataunen. Udaleko akta-liburuetan ageri denez, 1668an ituna sinatu zuen udalak sendagile batekin. Bertan, besteren artean, ordainketak baldintzak ageri dira. Gaur egungo ikuspegitik bitxia egiten bazaigu ere, dirutan edo aletan ordainduko zitzaizola adostu zuten bi aldeek. Kontuan izan behar dugu XVII. mendean gaur egungo elikagai aukerarik ez zegoela, eta aleak izateak zer jan bazegoela esan nahi zuela.

Herrian egon diren medikuen artean, kasu edota egoera bereziak ikusi zituen jendea aurki daiteke. Bat aipatzekotan, 1734an San Martinen mediku zegoenarena ekarri nahi dugu gogora. Izan ere, apaiz bat zen.

Itxura denez, ama gaixorik zuen, eta, bera zaintzeko dirua behar zuenez, aita santuari baimena eskatu zion mediku-lanean jarduteko, baita eman ere.

XIX. mendean, sendagileekin izandako gorabeherak ugariak izan ziren, soldatari zegokionez batez ere. Sendagile gehienek iritziz, Ataungo Udalak ematen zien soldata ez zen nahikoa, eta, ondorioz, ez zuten postuan denbora asko irauten; denbora gutxian mediku asko izan ziren. 1818an, adibidez, udalak erabaki zuen 80 dukateko soldata ezartzea medikuari, eta herritarrak prest agertu ziren denek artean beste horrenbeste bildu eta ordaintzeko, baina medikuari ez zitzaion neurri hura gustatu, eta azkenean, udalak erabaki zuen 100 dukateko soldata ipintzea. Soldata igota ere, sendagileak maiz aldatzen ziren, eta, horre-

gatik, berriro soldata-igoera bat egiteaz gain, gaixo bakoitzak ordaindu beharreko kopurua ere zehaztu zen.

1833an hasi zen zazpi urte iraun zuen I. Karlistaldia, eta haren eraginak gizarteko arlo guztietan nabarmendu ziren, baita osasungintzan ere. Edozein gerrak berekin dakartza gastu ekonomiko handiak, eta, haiei aurre egiteko, udalek dirua ipini behar izan zuten. Ondorioz, herriko gastuetarako zuten diru kantitatea asko murriztu zen; halaber, soldatak ordaintzeko zailtasunak izan zituzten. Gauzak horrela, udalak medikuaren soldata murriztu beste irtenbiderik ez zuen izan. Erabaki hark, ordea, egoera zaildu besterik ez zuen egin, etortzen ziren sendagileek gero eta gutxiago irauten zuten Ataunen soldata apala zela eta. Hori ikusirik, 1836an, mediku batek gutuna idatzi zuen udalera, zor zioten dirua ordaindu ezean bere zereginak betetzeari utziko ziola esanez. Izan ere, aurreko bi urteetako soldatak kobratu gabe zituen, eta urte hartan ere antzeko bidetik zihoazen, eta beste herrietan soldata kobratu bazuen ere, zailtasunak zituen bere gastuei aurre egiteko⁶³. Kexak eta eskeak ez ziren hor amaitu. 1839an, esaterako, sendagilea soldata igotzeko eskatzen hasi zenean, herriko diruzaina prest agertu zen bere dirutik ordaintzeko, bazekielako udalak ezin zuela eskaera onartu. Hori bai, trukean ikatza egiteko egur-lote bat eskatu zion udalari.

1882an, ez zegoen medikurik herrian, postua betetzeko deialdia egin zuen udalak, eta bost hautagai aurkeztu ziren. Bakoitzaren ezaugarriak eta gabeziak patxadaz aztertu ondoren, bi aukeratu zituen udalak; bat San Martinera eta bestea San Gregorio eta Aiarako. Azkenari ordea, handik urtebetera, Nafarroako Bera herrira joateko aukera suertatu zitzaion, eta gure herriko kargua utzi eta bertara joatea erabaki zuen. Udalak ordezeko bat aukeratu behar izan zuen, baina hark ere berehala utzi zuen Ataungo sendagile-kargua.

Sendagileak aurkitzeko zer-nolako zailtasunak izaten zituzten ikusita, 1898an udalak erabaki zuen aurrerantzean sortzen ziren beharrei aurre egiteko buletinaren bidez berri ematea. Horrela, bada, aipatutako urtean egin zen deialdira hiru hautagai aurkeztu ziren. Sendagile-plaza betetzea zen udalaren ardura, baina euskarak ere kezkatzen zituen; medikuak euskaraz hitz egiten jakin behar zuen. Hala ageri da aipatutako deialdi-

63. AUA, 06-05

MARIA DORRONSORO DORRONSORO

Herrian mediku bakarra zegoen, eta harengana joaten ginen denok umea izatera. Zerbait gaizki ateraz gero, ez genuen beldurrik izaten. Hala ere, erditzeak beti ematen du beldurra. (Ahotsak.eus)

aren ebazpenean. Esan bezala, hiru hautagai aurkeztu ziren; lehenak postua eskaini orduko eman zuen ezezkoa; bigarrena Leongoa zen, eta, hizkuntzarik ez zuenez, ez zitzairen egokia iruditu herrirako; beraz, hirugarren hautagaia izendatu zuten. Udalak euskararen

aldeko borrokan jarraitu zuen. Handik urte batzuetara, 1904an, Aldundiari proposatu zion sendagileek euskaraz jakitea beharrezkoa izan zedin.

1953an erabaki zuen udalak San Martin eta San Gregorio auzoetan mediku-etxe bana eraikitzea, eta bi urte beranduago inauguratu zituzten. Eraikuntza-lanen gastuak udalak ordaindu zituen⁶⁴.

Emakumeak berandu hasi ziren unibertsitate ikasketak egiten; XX. mendeak aurrera egin ahala hasi ziren sartzten. Ondorioz, baita lan-munduan murgiltzen ere. San Gregorio eta Aian, esaterako, lehen emakumezko medikuak 1981ean hartu zuen 100 urtean gizonen esku egon zen karguaren ardura. San Martingo kasuan, ez dakigu zein urtetan hartu zuen kargua lehen emakumeak, baina bai herritarra izan zela, M.A. Arrondo Begiristain. 2006ra arte bertan egon zen San Martingo osasun-etxean.

URTEA	MEDIKUEN SOLDATA (urteko)
1668	Dirutan edo aletan ordaintzen zioten
1767	Urteko 90 dukateko soldata. Horrez gain, lehen bisita 4 erreal eta ondorengoak 2 ordaintzen zitzaizkion.
1774	Urteko 90 dukateko soldata. Horrez gain, lehen bisita 4 erreal eta ondorengoak 2 ordaintzen zitzaizkion.
1802	90 dukat
1806	60 dukat
1816	60 dukat
1817	100 dukat
1821	60 dukat
1825	100 dukat
1829	60 dukat
1885	500 pezeta
1954	12.000 pezeta inguru

64. AUA: 407-3

Zirujaua

Sendagileez gain, zirujauak ere izan ziren Ataunen, eta horien lehen arrastoak 1584koak dira; horrek zituen materialen eta altzarien inbentarioa udalaren artxiboan dago.

1779ko akta-liburuetan agertzen da zirujaueri urtean 10 dukateko soldata ordaintzen zitzaizela. Beraien aukeraketa, udalaren esku zegoenez, ohikoa zen kontratatu aurretik adostasun batera iristea bi aldeak.

Sendagileen antzera, zirujauak ere bi ziren, nahiz eta fiskalak esan bakarra nahikoa zela. Horrela, bada, 1827an

zirujauak udalera soldata igotzeko eskatzera joan zirenean, udalak ez zuen onartu eskaria, eta gogorarazi zien Ataun osorako zirujau bakarra nahikoa zela.

Zirujaueri buruzko azken aipamena 1878koa da. Urte hartan, Ataungo Udalak aldaketak egin zituen osasun-zerbitzuan, eta, zirujauaren ordeztu, praktikanteak izendatu zituzten sendagileei laguntzeko. Hau da, gaur egungo erizainak.

Arau horiek indarrean jarraitu zuten, 1878an Ataungo Udaleko osasunbideko ordezkariak zerbitzurako aldaketak plazaratu zituen arte. Handik aurrera, sendagilearen laguntzarako, praktikanteak aipatzen zituen txostenak, eta zirujauak desagertuta gelditu ziren.

1825ean herriko zirujaua kexu agertu zen. Herria luzea zenez, ezin zuela etxe guztietara iritsi. Udalak haren esana kontuan hartu eta bigarren zirujau bat kontratatzea onartu zuen, baina, hori bai, 100 dukateko soldata bien artean banatu behar zuten. (AUA, 06-05)

Botika

Sendagileak, zirujauak eta gaixotasunak dauden tokian sendagaiak ere behar dira, eta horiek saltzeko botikak irekitzen hasi ziren. Ataunen lehen aipamena 1738koa da. Urte horretan, urriaren 20an, Batzarrera agertu ziren herritarrek (zaldunek) garrantzi handia eman zioten herrian zerbitzu hura izateari, eta, horregatik, botika ireki eta mantentzeko etxe bakoitzak urtero kintal bana gari emateko konpromisoa hartu zuten.

Horren truke botikariak behar ziren botikak sortu eta banatuko zituen herritarrentzat. Sendagaiak eta botikak prestatzen zituztenei *alkimista* deitzen zitzairen.

Udalaren artxiboan hainbat gorabehera ageri dira, botikariek herritarrekin eta udalarekin izan zituztenak. 1827an, esaterako, herritar batek botikaria salatu zuen udalean gripeak jota zegoela botikariak ez zizkiolako eman nahi izan sendagileak errezetatutako sendagaiak. Gertaera haren harira, udalbatzarrak botikari-jaunari mezu bat bidali zion, edozein herritarri sendagileak agindutako sendagaiak emateko inongo aitzakiarik gabe.

1832an, berriz, Lazkaoko botikariak udalera idatzi bat bidali zuen, komenigarria zela herritarrentzat Ataunen botika berri bat irekitzea. Udalak berehala erantzun zion baiezkoa; hori bai, botikako jeneroak Lazkaoko prezio berean saldu beharko zituen. Dirudienez, botikariaren semeak botikari-ikasketak amaitu berri zituen, eta horregatik nahi zuen Ataunen beste botika bat irekitzea, semeak lana izan zezan.

1878an herriko osasungintzako ordezkariak egindako arau-aldaketek ez zieten soilik zirujaei eragin, baita botikariei ere. Arauak aldatzeaz gain, botika udaletik urrun zegoela eta, sendagilearen aginduz, udaletxean premiazko sendagaiekin osatutako botikin bat jartzea adostu zuten.

1888an herrian ez zegoen botikarik, eta, udalaren iritziz, beharrezkoa zen zerbitzu hori herrian. Horregatik, udalak erabaki zuen botikariari urtero 750 pezeta (4,51€) ordaintzea eta baldintza hauek ipintzea:

- 1) Botikariak ezin zuen herria utzi haren ordezkariak berak zituen bat aurkitu gabe.
- 2) Sendagileak agindutako sendagairik ezin zuen kobratu botikariak.
- 3) Sendagaiak ekarri berriak eta kalitate onekoak eduki behar zituen.
- 4) Errezeta txarteletan eskatutako sendagaiak berehala prestatu behar zituen.
- 5) Botika utzi behar zuenean, sei hilabeteko aurrerapenarekin adierazi behar zion udalari.

- 6) Udalak agindutako urteko 750 pezetak (4,51 euro) bi epetan ordainduko zitzaizkion.
- 7) Lau urterako konpromisoa sinatu behar zuen, eta, laugarren urteko seigarren hilabeterako aurkakorik esan ezean, konpromisoak jarraitzen zuela ulertuko zen.

Maiatzean baldintza horiek publiko egin zirenean, hiru eskaera aurkeztu ziren udalean. Hiru hautagaien ezaugarriak xehetasun osoz aztertu ondoren hautatu zuen udalak botikari⁶⁵ berria. Kokalekua ere zehazteke zegoen, eta herritar talde batek Arrondo auzoa proposatu zuen, herriaren erdian zegoelako. Udalak ez zuen eragozpenik jarri, eta Kamio etxean ireki zuten botika berria.

1894an, hainbat herritarrek beraien kexa azaldu zioten alkateari: udalak botikariari urtero 750 pezeta ordaintzea gehiegi zela. Osasunbatzordeko kideen artean iritzi kontrajarriak zituzten, eta, eztabaidan hasi ordez, bozkatea erabaki zuten. Bozketa egin ondoren, 375 pezeta jaistearen alde agertu ziren 10 pertsona, eta 250 pezeta jaistearen alde, 6. Hamar batzarkide seiren aurka agertu zirenez, aurrerantzean, udalak botikariari 375 pezeta ordainduko zizkion urteko.

1907an, M. Kortabarria Palaciosek ireki zuen botika plazako Aierdienea etxean. Herrian izan ziren hainbat gorabehera zirela medio, udalarekin desadostasunak izan zituen, eta 1926an kargua utziko zuela adierazi zuen. Hori ikusiz, herrian botikaririk gabe ez geratzeko, hutsik geratuko zen plaza betetzeko deialdia egin zuen udalak, baita 1.000 pezetako (6€) laguntza eskaini ere. Lehiaketa-deialdi horretan, hainbat baldintza ezarri zituen; besteren artean, arduradun berriak euskaraz jakitea. Baina, egunak pasatu ahala, ordura arteko botikaria udalarekin adostasun batera iritsi eta lehiaketa bertan behera utzi zuten.

1936an gerra hasi zenean, udalean aldaketak egon ziren. Frankistek ordura arteko alkate eta zinegotziak kargutik kendu zituzten euskal nazionalistak zirelako, eta udalbatza berria osatu zuten. Horrekin batera, arrazoi beragatik hainbat udal-funtzionario ere kargutik kendu zituzten, arrazoi beragatik, eta tartean zegoen herriko botikaria ere. Artxiboko agirietan ageri denez, badirudi erabaki hori ez zela zinegotzi guztien

65. AUA, 199-09

gustukoa izan. Udalbatzarrean gaiari buruz eztabaidatzen hasi zirenean J.A. Urdangarin Barandiaranek aretoa utzi baitzuen. Nahiz eta berriro sartzeko deitu, ez zen itzuli.

Labur-labur, herrian izan diren botikariei aipamena egin nahi izan diegu. Udalaren artxiboetan ageri denez, 1804tik 1978ra zortzi botikari izan dira Ataunen, eta, horiez gain, farmazia-ikasketak egin, baina lanean kanpoan jardun duten beste hiru herritar ere izan dira, eta badira.

1978an Maria Genoveva Auzmendi eta haren senarrak, I. Begiristainek, botika ireki zuten Altzanipen. Bertan bost bat urtez aritu ostean, gaur egungo lokalera lekualdatu ziren, Toki Eder etxera, alegia. Genoveva Auzmendik esan digunez, negozioa irekita duten 40 urte honetan lan egiteko modua asko aldatu da: lan egiteko moduan, botikak agintzeko moduan... Lehen, esaterako, botika batek norbaiti on egiten bazion, beste bati aholkatzen zion, eta hala etortzen zen jendea erostera; orain hori ez da gertatzen. Horrez gain, gaur egun jendeak lehen baino botika gutxiago hartzen ditu.

Santiago ospitalea

Hainbeste botikari, sendagile eta zirujau aipatu ondoren, ezin aipatu gabe utzi herrian hain garrantzitsua izan zen Santiago ospitalea. Artxi-boko agirietan⁶⁶, 1555. urtekoa da aurkitu dugun lehen aipamena.

Galiziako Santiagora bidean Europatik zetozen erromesei ostatua emateko sortu zituzten Santiago ospitaleak han-hemenka, ostatu emateko eta ondoezik sentituz gero atsedean hartu eta sendatzeko. Eta hala egin zuten Ataunen ere.

San Martin auzoko Graziñe Zaharra eta Antonetxe edo Angulone artean zegoen Ataungo Santiago ospitalea. Haren funtzionamenduz arduratzeko, batzorde iraunkor bat zegoen. Beraien zereginen artean zeuden arauak betetzen zirela ziurtatzea eta tarteka ospitaleak zituen ondasun zein diruen berri herritarrei agertzea.

Ospitalearen eginbearra zen herriko behartsuei aterpea ematea, eta Santiago bidean zihoazen erromesek ostatu, eritegi edo gaixotegi bat izatea, eta batez ere atsedenerako leku bat izatea. Zeregin horre-

66. AUA, 200-22

tarako, beharrezko zituen bere ondasunak eta herritarrek eskainitako laguntza. XVII. mendean, ondasunen artean, besteak beste, Otadizelari baserria zegoen. Horko maizterrek erosi nahi izan zutenean, batzar-kideak bildu eta Iruñeko apezpikuari saltzeko baimena eskatu behar izan zioten⁶⁷. Azkenean, hark oniritzia eman, eta 152 dukaten truke saldu zieten.

Esan bezala, ospitaleak bere martxarekin jarraituko bazuen, beharrezko zituen herritarren laguntza eta dohaintzak. Gauzak horrela, 1680an herriko apaiz bat hil zenean, hainbat ondasun utzi zizkion ospitaleari: ohea, bi buruko eta bi koltxoi. Hori bai, apaiz edo erlijioso erromesen bat etortzen zenean bakarrik erabiltzeko baldintzarekin; beste inork ez erabiltzekotan.

Ospitaleak behar bezala funtzionatzeko, langileak ere behar ziren. 1789ko abenduan, esaterako, senar-emazte bikote bati alokatu zion udalak bederatzi urterako⁶⁸, urteko hamabi dukaten truke. Errentaren truke, ospitaleko gelak, oheak eta behartsuenen arropak garbitu nahiz txukundu behar zituzten.

1811n gudari frantsesek herriari eraso zioten, eta, erasoaldiek sortutako gastuak ordaintzeko, udalak bereak zituen hainbat etxe saldu behar izan zituen; horien artean, ospitalea eta ondoko etxea, Sakristauene (Elbarrenan). Bi etxeak apaiz batek erosi zituen 5.000 errealekin truke.

Arrendo auzoko Arzulo baserria ere ospitalearen jabegokoa zen⁶⁹ 1726aren bueltan. Erortzeko arriskuan zegoenez, batzordea elkartu eta berritzea erabaki zuen. Horretarako behar zituzten hargin eta arotzak kontratatu zituzten; ataundarrak denak.

Santiago Ospitaleko batzordea elizaren babesean zegoen erakunde bat izanik, elizako arduradunek maiztasun handiarekin eskatzen zieten beraien ondasunen eta errenten berri emateko. Horren adierazgarri da batzordeari Iruñeko Gotzainak xehetasun eske bidali zion gutuna.

67. AUA, 200-23

68. AGG/GAO.PT-1943-504.orria

69. AUA, 201-02

Erremedio bainuetxea



Gerora Erremedio-bainuetxea egon zen lurretan, hots Sonolaza inguruetan, 1604. urtean Erremedio-baseliza eraikiarazi zuen D. Pedro Ortiz de Telleria bikarioak. Agirietan ageri denez, ataundarrak sarri joaten ziren bertara, eta han, kristautasunak eskatzen zituen

betebeharrak bete ostean, alboan zegoen iturburutik tragoren bat egin, eta egun-pasak egiten zituzten.

XVIII. mende hasieran basiliza jada ez zuten erabiltzen, baina urte gutxiren buruan lekua izaten hasi zen berriro ataundarren bizitzan; denbora gutxirako, ordea. Izan ere, Espainiako Independentzia Gerratik (1808-1814) bueltan Frantziarrak etxera ihesean zihoazela, Erremedion aurkitu zuten babesa. Hori bai, alde egitean basilizan zegoen guztia hartu, eta su eman zioten. Hormak soilik geratu ziren zutik, eta horko Ama Birjina errauts artean agertu zen; gaur egun, San Martingo elizako aldaire batean dago.

Baseliza iturri baten inguruan zegoen. Badakigu XIX. mende hasieran jada bertako urak osasunerako mesedegarritzat kontsideratzen zirela eta herritarrek ur horiek beraien onurarako baliatzen zituztela.

Udala ere Erremedioko iturriko uren sendatzeko indar eta bertuteen jakinean zen, baina ez zuen baliabide ekonomikorik kalitatezko zerbitzurik emateko. Ordurako, Gipuzkoako beste herri batzuetan, antzeko iturrien inguruetan, bainuetxeak eraikitzen ari ziren, baina Ataungo Udalak ezin horrelako instalakuntza batek berarekin zekartzan gastuei aurre egin.

Horretan zirela, 1839ko uztail amaieran, herritar batek baimena eskatu zuen Erremedio-baselizaren eta iturriaren arteko lur zati batean baserri bat eraikitzeko. Udalbatzarrak abuztuan eskaera onartzeko erabakia hartu zuela jakinarazi zion interesdunari, baina hori bai, edozein

herritarrek iturburutik ura hartzen jarraitu ahalko zuela azpimarratuz. Horrez gain, bainuetxearen zerbitzuen erabileran herritarrek izango zuten lehentasuna.

1879an bainuetxearen jabetza eskualdatu egin zen. Nagusi berriek iturburuaren jabetza lortu nahi izan zuten, eta isilpean baimena eskatu zioten Erkidegoko Gobernuari. Udal-ordezkariek bi haien asmoak zein ziren susmatu zuten, eta beraien kabuz neurriak hartzea erabaki zuten herriak bere zuen eskubidea mantentzearen. Hots, uraren jabetzari eustea.

Hurrengo urtean, 1880an, udalbatzarra, herritarren ordezkariak eta hainbat jauntxo elkartu ziren uraren jabetzaren gaia jorratzeko. Bileran luze eta zabal eztabaidatu ondoren, batzarkideek nagusiei proposatzeko akordioa osatu zuten.

Udalak, 1880an, Erremedioren erabilerari buruz egin zuten akordioa (hainbat puntu):

- Erremedioko senda-metal iturburuaren jabegoa Ataungo Udalarena da.
- Ataungo herritarrei inoiz ez diete bainuetxearen erabileragatik bazkideei ordaintzen zaiena baino gehiago kobratuko (75 zentimo).
- Herriko erretoreak eta alkateak izendatutako herriko behartsuek doan bainatzeko eskubidea dute. Gainerako herritarrei bezalako zainketa eta zerbitzuak eman behar zaizkie.
- Bainuetxearen maizterrek ur haiekin etekinak ateratzen dituztenez, urtero udalari 25 pezeta ordaintzeko konpromisoa hartu dute.
- Noizbait urak kendu beharra sortuz gero, udalak itzuli egingo die aurrez egindako gastu edo inbertsioen dirua.

1885eko irailean, Gipuzkoako medikuntza- eta kirurgia-ordezkaria herrira zetorrela eta, Ataungo Udalak ezohiko batzarrera deitu zuen. Bertan, medikuntza- eta kirurgia-ordezkariek azaldu zuen Erremedioko uren propietateak egiaztatzeko gaixoengan izandako ondorioak eza-gutu behar zirela. Horrela, bada, aurreko hiru urteetan bainua hartzera Atauna zer-nolako jendetza etorri zen kontuan hartuta, baieztatu zuen Erremedioko ur sulfuroso eta artsenikodunak Bainu Legeak agintzen zuena betetzen zuela. D. Juan Arinek zioenez, iturritik 21 litro ur ateratzen ziren minutuko 14,5 gradura.

Itxura denez, ordea, Erremedio-bainuetxeak ez zituen beharrezko ziren baimenak, eta, hortik tiraka, Ormaiztegiko nahiz Gabiriako bainuetxeetako zuzendariak salaketa jarri zioten Ataungo Udalari. Salaketaren bidez, beste bi bainuetxeen ordezkariak Ataungo Udalari eskatu zioten legeak eskatzen zituen babes-neurriak har zitzala bainuetxean. Gauzak horrela, udalak ur haiek erabiltzeko debekua ezarri eta inork bainurik ez zezala hartu agindu zuen. Neurriak beteko zirela ziurtatzeko, mendizain bat izendatu zuen arduradun. Pare bat urte geroago, ordea, 1888ko uztailan, errege-agindu bat iritsi zen, bainuetxea ireki eta erabiltzeko baimena ematen zuena.

Itxita egon zen bi urte horietan, hainbat moldaketa eta berrikuntza egin zituzten eraikinean. 1884an eraikin berriak hiru solairu zituen. Bigarren eta hirugarren solairuetan, bederatzi logela zeuden, eta lehenengoan, berriz, bainua hartzeko lau uraska, sukaldea eta jangela. Berri-tuta ireki zutenean, lehen sendagilea A. Daza de Campos izan zen.

1888an Erremedio-bainuetxea Ataungo Udalaren jabetzakoa zenez, ustiapen-baldintza hauek ezarri zituen:

- Ustiapen-kontratua lau urterako zen.
- Sendatzeko ura erabiltzeko herritarrek 0,75 pezeta ordaindu behar zituzten, eta kanpotarrek, 1,25 pezeta. Ura edan bakarrik egiten zutenek, berriz, 0,25 pezeta ordaindu behar zuten.
- Mairidireak enkantean hartzen zuenak jarriko zituen.
- Ura edatera kanpotik etortzen zirenek ordaindu egin beharko zuten, baina herritarrek, ez.

-Bainuetxean lekua egon eta ostatua beste nonbait hartzen zuten atzerritarrek, bainu bakoitzeko 0,25 pezeta gehiago ordaindu beharko zuten, eta dutxa, pezeta bat garestiago.

-Bost urtetik gorakoek eguneko bost pezeta ordainduko zuten lokuagatik. Gazteagoek, ostera, amaren edo beste arduradun baten ohean lo egiten bazuten, erdia.

-Ustiatzailearen ardura zen sendagile eta zuzendariak izendatzea eta haiei soldata ordaintzea.

Itxura denez, bainuetxearen orduko egoera nahiko eskasa zen, eta, udalak egoerari buelta emateko zer egin zezakeen galdetu zionean D. Remigio Rodriguez sendagile eta zuzendariari, honela erantzun zien.

“Si consideramos el número de bañistas que concurren a los Remedios para hacer uso de las aguas y reflexionamos un poco sobre el estado de la casa de baños que hoy se llama Balneario, vemos bien claro la necesidad de obligar al Ayuntamiento, hoy propietario, haga que el Balneario y la Fonda que tanto la concurrencia como la composición y virtudes de los Remedios, de apremiante necesidad están reclamando.

Sería también muy conveniente se construyera una carretera que partiendo de la que va por el casco, terminara en Los Remedios; así los enfermos que dejando el tren en Beasain, en el coche llegarían al Establecimiento con toda comodidad posible, evitando la gran molestia que el subir tanta cuesta les causa”.

Además reedificando la Ermita y colocando en ella la Virgen de Los Remedios que antes se veneraba, quedaría el Establecimiento aislado y sin el caserío que hoy hace medianil, pues con sus cuadras, sus ganados y el estercolero que delante de la puerta tiene, forman un foco de infección muy dañoso en los meses de calor, a una casa que diariamente está recibiendo enfermos, perjudicando extraordinariamente a los buenos resultados del tratamiento hidro-minero-medicinal.

Hamar urte baino lehen, 1891ko ekainean, bainuetxeko zuzendariak antzeko beste kexa bat adierazi zuen. Ageri denez, bainuetxeko terapien kalitate eskasaz eta instalakuntzen egoera kaskarraz gain, eraikin osoa zegoen tamalgarri.

“Lastima grande es el abandono en que vive este balneario, solo cuatro campesinos puede asegurarse, son los que pregonan su justa fama y son tan admirables estas aguas y están situadas tan próximas a la capital de Guipúzcoa que deberían ser más visitadas si de ellas se tuviera noticia y se levantara un local de regulares condiciones y existiera un camino para carruaje.

Siendo unas instalaciones tan desastrosas y unos medios balneario-terapicos tan necesitados de mejoras, no se entiende bien la larga vida de esta casa de baños, sobre todo por su difícil acceso.

Todo parecer indicar que fue un balneario de categoría inferior a los más importantes de la Provincia, como fuera el Gran Hotel de Cestona, por ejemplo.

Así al menos puede decirse que a los Remedios se iba a curar convencido de la virtud medicinal de las aguas”.

Urte bereko irailean, aurreko maizterrari alokairua amaitu zitzaiola eta, beste enkante bat antolatu zuen udalak. Baina bainuetxea berritu baten premian zen, eta enkantera ez zen inor aurkeztu; besteak beste, ez zuelako diru-sarrerarik sortzen. Horrela, bada, denbora igaro eta interesdunik agertzen ez zenez, 1892ko martxoan udalbatzarra elkartu eta bainuetxearekin zer egin eztabaidatu zuen: saldu edo ez. Bozka gehienak, hamabi, saltzearen aurkakoak izan ziren eta zazpi aldekoak.

Urtea amaitu eta hainbat enkante egin arren, ez zen bainuetxearen ardura bere gain hartuko zuen inor prest agertu. Hori ikusiz, udalak azkena egon zen maizterrari eskaini zion zerbitzuaren ardura. Hark eskaintza onartu bai, baina hainbat baldintza ezarri zituen. Besteren artean: ordaindu beharreko alokairua aurreko urteetako bera izatea, hau

da, 1.250 pezeta (7,51€); bainuetxea saldu bitartean udalak maizterra bakean uztea; eta bainuetxeak izan zitzakeen kalteak udalaren gain joatea. Baldintza haiek udalari agertzeko gutuna arduradun izendatu berriaren emazteak sinatu zuen, lehenak ez zekiela sinatzen argudiatuz⁷⁰. Udalari, ordea, gehiegizkoak iruditu zitzaizkion aipatutako baldintzak, eta ez zituen ez aintzat hartu, ez eta onartu ere. Hala ere, eskaintza bakarrazitateak zer pentsatua eman zien.

Denbora aurrera zihoan, bainu-sasoiari ere gutxi geratzen zitzaion hasteko, eta, arazoari irtenbide bat eman aldera, 1892ko martxoan udalbatzarrak ezohiko bilera bat egin zuen eskaintza bakar hori aztertzeko. Beste erremediorik ez zutela eta, baldintzetan aldaketa txiki batzuk egin, eta eskaintza onartzea erabaki zuten.

Bainuetxearen jabetzak udalari buru-haustea besterik ekartzen ez zionez, 1894ko abenduan, eraikina saltzeko erabakia hartu zuten. Horretarako, iragarkiak ipini zituen zenbait egunkaritan, besteren artean: *El Noticiero Bilbaino*, *La Voz de Gipuzkoa* eta *El Herald*. Hiru enkante egin behar izan zituzten azkenean beraien asmoak gauzatzeko. Azkenean, 1895eko hirugarren enkantean, 25.000 pezeta ordainduta, Donostiako gizon (R. Otero Beraza) batek eta emakume batek erosi zuten bainuetxea⁷¹. Lehenak berehala saldu zion bere zatia bigarrenaren ahizpari, G. Otero Berazari, eta azkenean bainuetxea-

**Inazio Munduatek
Frantzisko Dorronsoro
Barandiarani (1900, Arre-
senea) jasoak dira honako
hauek:**

4 urte inguru zituela hasi zen bainuetxean lanean, soldata handirik gabe. Haren zeregina zaldia hartu eta bezeroak nahiz beraien ekipajeak herritik bainuetxera garraiatzea zen. Erremedioko bainuetxea herritik aparte baitzegoen.

Ospe handiko jendea eta dirudunak joaten ziren bainuetxera, eta horiek zerbitzariei ematen zizkieten eskupekoak oparoak izaten ziren.

Bainuetxean ematen ziren otorduak ere ez ziren edonolakoak izaten; Dorronsororentzat oso deigarriak. Oriotik eguneko arrain freskoa ekartzen zuten, eta mahaian, berriz, ardo preziatuak, koñak frantsesa eta Habano puruak ez ziren falta izaten.

70. AUA, 185-04

71. AUA, 310-03

ren ardura hiru ahizpen esku geratu zen; A. Otero Beraza ere gehitu baitzitzaien.

1907an oraindik Otero Beraza ahizpek jarraitzen zuten bainuetxearen arduradun, eta udalari su-egurra doan emateko eskatu zioten. Ahizpek udalari mehatxu egin zioten hitza bete ezean ataundarrei gainerako bezeroei beste kobratuko zizkietela zerbitzuak⁷².

Aurreko mendeko beherakada igarota, XX. mende hasieran Erremedio-bainuetxea unerik gorenean zegoen, kanpotik jende asko etortzen zen bertako uren onurez gozatzera; egindako berrikuntzei esker, sona eta ospea irabazi baitzituen. Baina bainuetxearen kokapenak bezeroei eragozpen ugari sortzen zizkien; errepidetik 4 bat kilometrora baitzegoen, eta bertaraino iristeko errepiderik ez. Gauzak horrela, 1920ko abenduan ur-sendagarriak San Martingo harrobiraino jaitsi eta bertan bainuetxe berria eraikitzeko proiektua aurkeztu zuen udalean M. Imaz Apalategik⁷³.

Erremedioko Arzatzerreka iturburua leku maldatsuan zegoen, eta hain preziatuak ziren ur-sendagarri haiek hodi batean sartu eta Iztator atzeko mendixkan (Aldabe inguruan) egingo zen depositura bideratuko zituzten, ondoren bertatik Antonione-Azpiko etxera (Zirkulu eta Artzane ere esaten zaiona) eramateko; bainuetxea bertan egiteko asmoa zegoen. Guztira, hiru kilometrotik gorako hodiak behar zituzten.

Herriko agintariek ur-sendagarri haiei etekina atera eta bainuetxe berriari esker, Ataunentzat aberastasuna lortu nahi zuten. Horrela, bada,

JESUSA BARANDIARAN *Nire garaian ez, baina aurrez jende asko etortzen zen Erremediora. Irratia ere lehenengo han ipini zuten; ezin genuen sinistu ere egin traste hura zer zen. Bertan entzun genuen gurasoen osaba batek istripua izan zuela eta hil egin zela; ezin sinistu. Etxeetara dezente beranduago iritsi ziren irratia, zer esanik ez telebista.*

1924ko urtarrilean udalbatzarrak proiektuari oniritzia eman zion, eta lanei ekiteko hiru hilabete epea eman zitzaien.

Maiatzerako, Arratetako harrobira arteko ubidea prestatuta zegoen, eta Erremedioko urak herrira gerturatuta.

72. AUA, 309-04

73. AUA, 366-02

Baina, itxura denez urak bere propietateak galtzen zituen hodian barrena egindako bidean, bereziki usaina, eta, ondorioz, lan guztiak bertan behera utzi, eta ezerezean geratu zen herrian bainuetxe bat egiteko asmoa.

1932an, Erremedio-bainuetxea zaharkitua zegoenez, ezbeharren bat gertatu aurretik, A. Otero Beraza nagusiak zerbitzua bertan behera utzi, eta eraikina botatzeko baimena eskatu zuen udalean. Ordurako, gainera, indarra galtzen ari zen European ere bainuetxeetara joateko ohitura. Zerikusia izan zuten horretan kolerak eta bakteriologia nahiz immunologia arloan egindako ikerketek.

1949ko abenduan udalari eskaini zizkioten bainuetxea egondako lurak 20.000 pezetaren truke (120,20€), baina, garesti iritzita, udalak ez zituen erosi.

Optika

A. Begiristain Auzmendik ireki zuen 2007. urtearen bukaeran.

Hasieran betaurreko graduatuak saltzen zituen gehien, baina gaur egun, negozioa kirol mundura bideratzen ari da, eta batez ere kirola egiteko eguzkitako betaurrekoak saltzen ditu.

Lan gehiena Internetez egiten du. Betaurreko gehienbat estatu mailan saltzen baditu ere, Thailandiara eta Mexikora ere saldu izan ditu.

Suhiltzaileak

Ataunen suhiltzaileen lehen aipuak 1924koak badira ere, artxiboko agirietan 1740. urterako hasi ziren suteen berri jasotzen. Agiriak begiraturaz ikusi dugu herrian etxeak eta baserriak erretzea oso ohikoa zela garai haietan. Kontuan izan behar dugu, XVIII. mendean eraikuntzarako erabiltzen zituzten materialek eta gaur egungoek ez dutela zerikusirik; egurra baitzen nagusi. 1874an⁷⁴ esaterako, Gabilleneko sukaldean sua piztu zen, eta berehala etxe guztira zabaldu zen. Etxean bizi zirenak Ataundik kanpo zeuden une hartan, eta, sua ikusitakoan herritar ugari gerturatu baziren ere, ezin izan zuten itzaltzeko ezer egin; etxea goitik behera kiskali zen.

XX. mendearen hasieran etxeetan baina gehienbat mendietan eta basoetan suteak izatea ohikoa zenez, 1924ko uztailean udal-ordezkariek erabaki zuten herrian suhiltzaileak behar zirela. Gauzak horrela, hiru suhiltzaile-talde osatu zituzten: bat San Martinerako, bestea Astigarraga-Arrondorako eta hirugarrena San Gregoriorako. Hiru taldeen buru E. Apalategi Beraza izendatu zuten. Esan behar da suhiltzaile taldeak osatzen zituztenak ez zirela lan horretan bakarrik aritzen; horretaz gain, bakoitzak bere lanbidea zuen: igeltseroak, errementariak, arotzak... Denetik zegoen.

Pertsonala osatzeaz gain, sute-kasuetan behar zen tresneria ere bazuten hiru auzoetan banatuta. Mangerak, adibidez, udaletxean, Kamio etxean eta San Gregorioko eskoletan edukitzea erabaki zuten. Horrez gain, udalak kamioi bat zuen suhiltzaileek behar zutenerako, bere txofer eta guzti. 1936an, urteko 50 pezetako soldata zuen. Urtebete geroago, kamioiari gurpilak aldatu beharra suertatu zen, eta, gomazko gurpil sendoak zituenez, bakoitzeko 50 pezeta ordaindu behar izan zuten.

Suhiltzaileek trebetasuna hartzeko, saioak egin behar izaten zituzten aldian behin zuzendariaren esanetara. Saioak egiten ziren egunetan, zuzendariari eguneko soldata ordaintzen zitzaion, eta boluntarioei, berriz, zuzendariak erabakitzen zuena.

74. AUA, 199-03

1950 inguruan, suhiltzaileez gain, basozainak ere aritzen ziren suaren bueltan lanean. Lekuko batek, Martin Aldasoro Begiristainek, *Ahotsak.eus* proiektuekoei esandakoaren arabera, basoetan surik ez ego-
tea edota ba ote zegoen kontrolatzea zen haien zereginetako bat. Izan ere, inbidiak zirela eta, ohikoa izaten zen herritarren baten pinudiari gauez su ematea eta orduan, basozainei deitzen zieten suak itzaltzera joateko. Hori ikusiz, Goierriko suak itzaltzeko taldetxo bat osatzea erabaki zuten, eta denen buru egon zen Ataungo basozaina. Inguruetan suren bat piz-
ten zenean, berari abisua pasatzen zioten, eta gero berak taldekideei. Basoetako suak itzaltzeko, gomazko tresnak erabiltzen zituzten, urik ez.

Tabernak

Ataunen taberna ugari izan dira historian zehar. XVIII. mendekoa da taberna bati buruz aurkitutako lehen aipamena. Hori bai, XVIII. edo XIX. mendeko taberna bat imajinatzen dugunean, ezin dugu gaur egungo perspektibarik erabili. Hasierako taberna haiek ardoa, pattarra eta likoreak saltzen zituzten, eta asko ez ziren taberna ere izaten, lokal soilak baizik.

Historian zehar tabernen bueltan sortu diren anekdota eta bitxikeriak ugari dira. Baina lerro hauetara 1824ko bat ekarri nahi izan dugu. Urte horretako artxiboko agirietan taberna gehiegi zeudela zioen salaketa⁷⁵ bat aurkitu baitugu.

XX. mende hasierako gerrateak zirela eta, Ataungo Udala diru-premia larrian zegoen, eta horri buelta emateko herrian negozioak zituztenei zerga bat ezartzea erabaki zuen. Hura kobratzeko, *matrícula industrial* izeneko zerga asmatu zuten, eta zerrenda bat egin zuten hori ordaindu beharra zuten negozioena. Bertan, negozioen legezko ordezkarien izenak ageri dira, eta ez genituzke lerro hauek amaitu nahi, herriko zerbitzuen eta ogibideen arduradunak jasotzen dituen zerrenda honetan hainbat emakume ageri direla esan gabe. Izan ere, izen-zerrenda luze horretan, zortzi emakume ageri dira, eta horietako gehienak ardo-saltzaileak ziren. Hain zuzen ere, Mantxintonea, Arzubia, Espilla eta Upategi tabernetako arduradunak.

75. AUA, 44-09

IZENA	KOKALEKUA	URTEAK	INFORMAZIOA
Arzubia ¹	San Martin	1770	Emakume batek ireki zuen. Kontuan izan behar da XX. mendearen erdira arte ez zela ohikoa emakumeek etxetik kanpo lan egitea. XVIII. mendean, Ataunen, Taberna, Taberna lan egin zuen emakume bakarra izan zen.
Taberna Etxe Berri	San Martin	1770	Berrito ireki zuen taberna F. Lasa Bikuñak.
Aitzkoate	Upategi	1788	Etxearen izenak (Upategi) erakusten du, taberna hau ireki aurretik ere, etxe honetan taberna egon zela.
Kortaberi		1954	Emakume batek ireki zuen taberna, M. Sukia Izaskunek, eta 1965era arte izan zuen irekita. Taberna itxi ondoren, janari-denda ireki zuen. 1973an, dendaz gain, arrandegia ere ireki zuen E. Aldasoro senarraren laguntzarekin. 1982an utzi zuten arte, furgoneta hartu eta herri osoan zehar arraina banatzen zuten.
Gabrielenea		XIX. mendean	1790ean eraikitako etxe honetan, taberna egon zen XIX. mendean. Noiz ireki zen ez badakigu ere, jakin badakigu 1836an irekita zegoela. Izan ere, tabernaren arduradunak udallexean salaketa ipini zuen, Ordiziatik ekarritako 24 arropa eta 4 zahagi-ardo ostu zizkiotela.

Ezkurdiategi	Aia	1815	<p>1815ean lortu zuten lehen aldiz Aian ardoa saltzeko baimena. Hori bai, San Martingo eta San Gregorioko tabernetako prezio berean saldu behariko zuten, eta, horrez gain, gurasorik gabeko haurren aldeko zerga ordaindu. Salmenta baimena udalak ematen zuen, eta, urtebeterako izaten zenez, urtea amaitutakoan saltzaileak berriro elkartu behar izaten zuen udal-ordezkariekin hitzarmena berritzeko.</p> <p>1830ean, Aiako hiru bizilagunek Gipuzkoako Polizia Ordezkaritzan auzoan taberna irekitzeko baimena eskatu zuten. Diputatu Nagusiari bidezkoak iruditu zitzaizkion taberna irekitzeko egin zioten baimen-eskaria eta arrazoiketak, eta Ataungo Udatera gutuna bidali zuen, hiru herritar horiei Aian taberna irekitzeko baimena ematen ziela. Baimena ematearekin batera, bete beharreko baldintzak ere zehaztu zizkien. Besteak beste, uda osoan taberna irekita edukitzeko eta saltzen zuten ardoa gainerako tabernen baldintza beretan saltzeko agindu zitzaien. Horrez gain, ixteko ordua ere ezarri zieten. Aiatik San Martinera zegoen distantzia luzea zela eta, udan gaueko berderatzietarako jende guztia bidali behar zuten taberna inguruetatik, eta neguan, berriz, zortzietan. Horrez gain, auzoan jende susmagarria ikusten bazuten, justiziari abisua pasa behar zioten. 1835eko apirilko agiri batean datorrenez, enkante publikoa egin zuten auzoko tabernaren kudeatzailea izendatzeko, eta ardura hartu zuenari baldintzarik ez zitzaion falta izan. 1830ean ezarritako baldintzez gain, ardoa Ziraukitik, Mañerutik edo Mendigorritik ekarri beharke zuela ere zehaztu zioten, herri haietakoa baitzen herriko handikiei gustatzen zitzaiena, eta agindu ere agindu zioten erositako ardo litro guztiak tabernara eraman aurretik alondegian aurkezteko.</p>
--------------	-----	------	--

<p>Miraballes</p>	<p>XIX. mendean ireki zuten eta 1980 inguruan itxi</p>	<p>Betidanik ostatu izan zen etxea XVII. mendean eraikitakoa da, eta orduko eraikin dotoreenetakoa izan behar zuen; horregatik, askotan "palazio" deitzen omen zioten.</p> <p>1860an, Karlistaldiaren aurretik erre ondoren, 1877an leku berean eraiki zuten gaur ezagutzen dugun bi bizitzako etxea bere tabernarekin. Bezeroek euren abereak gordetzeko ukuluak ere bazituen ostatu hark.</p> <p>1891ko urtarrilaren 18an, Ataungo Udalak ostatuko nagusiak aurkeztutako bi kontu onartu zituen: bata 93 pezetakoa eta bestea 5 pezeta eta 50 zentimokoa. Gastu horietan sartzen ziren Gipuzkoako diputatua aukeratu zuteneko eta San Martin eguneko bazkariak, aurrekoa egun zutenei ateratako ardoa, bi guardia zibili ordaindutako afaria eta udaletxera eramandako lau limonada botila.</p> <p>1891ko uztailaren 26an udalak egindako batzarrean, beste batzuen artean, J. M. Altolagirre jaunak bidalitako faktura hauek onartu ziren:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1- Pezeta bat: maiatzaren 10eko gaua bertan igaro zuten bi guardia zibilen gastuei zegokiena. 2- Bederatzi pezeta: San Joan egunez arbola jartzeaz arduratu zirenei ordaindu zitzaizkien gazta eta ogia, eta egun berean udaletxera eraman zituzten ardo eta zerbezak. 3- Hamasei pezeta: uztailaren 14an eta 15ean errejidoerentzat mendira eraman zuten arrantxoa. 4- 49 pezeta: maiatzaren 29ko Gurutze jartze eguneko bazkaria. Guztira, hamalau pertsona elkartu ziren bazkalitzeko, eta pertsonako 3 pezeta eta 50 zentimo ordaindu zuten. 5- 43 pezeta eta 50 zentimo: zinegotzien bozketa zela-eta hamabi pertsonak egun zuten otordua. Gastu horren barruan sartzen ziren bazkaria, kotxean goiko eskolara egindako bidala (5 pezeta) eta alkateak Beasainera egindako joan-etorriak. <p>1926an, tabernako alabetako baten senarrak, F. Larrañagak, gasolina banatzeko hor-nigailu bat jarri zuen etxe aurrean, Plaza Berrin, eta, zoru publikoa okupatzen zuenez, urtean pezeta bat ordaintzen zion udalari. Aldi berean CAFen ere lan egiten zuen. Egun askotan etxera itzultzerako ilundu egiten zitzaion, eta bost kilometro egun behar izaten zituen, oinez edo bizikletan. 1932ko abenduan, bidean sortu zitezkeen erasoak gainditzeko, lantegiko arduradunek gomendatuta, pistola bat eramateko baimena eskatu zion gobernadore zibilarari.</p> <p>Ordura arteko nagusiak Erreteriarra joan zirenean, J. Galpasoro Zeberio eta M. Goikoetxea Imaz senar-emazteek alokatu zuten ostalua, eta bertan jardun zuten 1980 inguru arte. Haiek utzi zutenetik, ixita dago.</p>
-------------------	--	---

Arrate Berria	San Gregorio	1870	
Agirre Berri	Erreka-ondo etxean (lehena-go, Asensiatxe) Arrondo	1886	
Kaxeta	Jauregi Berri etxea Aia	1888	Etxeko nagusiak etxean taberna irekitzeko baimena eskatu zion udalari.
		1905	Itxura denez, taberna ez zen urte luzez irekita egon, 1905ean D. Jauregi Apalategik berriro taberna irekitzeko baimena eskatu baitzuen.
Urreta	San Martin	1889	
Begonea	Aia	1894	Etxeko nagusiak etxean ardoa eta pattarra saltzeko baimena eskatu zion udalari.
Katarrotegi	Katarrotegi etxea Ergoena	1897	Ardoa eta pattarra saltzeko baimena eskatu zuten udalean.
Arbelditxo	Arbelditxo edo Amistrazio etxea	XIX. mende amaiera	
Andietxe	Andietxe Astigarraga	1890	Ez zuen irekita askorik irau
		1900	Belsuarasko A. Sarasola Aranzastik etxea erosi eta taberna ireki zuen, baina denbora gutxirako.
		1906an ireki eta 1918an itxi zuten	B. Goikoetxea Izagirre eta M. Goikoetxeak etxea erosi eta taberna ireki zuten. Gramofonoa ipini zuten, eta inguruko gazte asko joaten ziren bertara dantza egitera. Gerora, ordea, etxeokoa-drearen anaiak, R. Goikoetxea <i>Aldakiok</i> , soinua joitzen ikasi zuen eta gramofonoa alde batera utzi, eta soinujoalearengana joaten ziren gazteak dantzan egitera. Lapurretak orduan ere ez ziren falta izaten. Nagusiek epategian salatu zuten, 1919ko azaroan 17an 1.200 pezeta lapurtu zizkieten kutxatik. Data ikusita, pentsa liteke San Martin jaietan ateratako irabaziak izango zirela.

Arrate Estanko	San Gregorio	1900ean ireki eta 1947an itxi zuten	T. Barandiaran Eskisabelek taberna eta estankoari zegozkion zergak ordaintzen zituen, eta irekita eduki zuen suak erabat kiskali zuen arte. Gertaera latz haren ostean, errepidearen beste aldean eraiki zuten etxe berria, eta bertan ireki zituzten taberna eta estankoa.
Sutegi	San Gregorio	1900	Urte horretakoak dira tabernari buruzko lehen aipamenak.
			1970eko hamarkadaren bueltan, mintegitarrek izan zuten taberna; ez dakigu noiz ireki zuten. Iñaki Galparsorok kontatu digunez, gogoan du umetan morenitoak erostera joaten zirela horra.
		1988	Hainbat urtez itxita egon ondoren, Pepi Aizpuruak ireki zuen taberna, eta hamabost urtez eduki zuen.
		2003	Elisabet Cid eta Iñaki Galparsorok hartu zuten tabernaren ardura. Aurrez zegoen etxea bota, berria egin a dago eta tabernaz gain, denda txiki bat ireki zuten, une hartan Artillazpiko dendaren arduraduna jubilatzeokotan baitzegoen, eta bertan salzen ziren produktuak tabernan saltzea erabaki zuten: ogia, egunkariak, hestekiak, haragia, olio, esnea... Asteburuetan ogitarteak eta plater konbinatuak ere ematen dituzte. Auzoan dagoen komertzio bakarra da, eta askotan, taberna baino gehiago, auzotarren elkargune bihurtzen da.
Txomiñone	Txomiñone San Martin	1925ean ireki zen	San Martingo etxe honen lehen aztarnak 1766koak dira, baina, 1900. urteaz geroztik, etxe berria egina dago, eta bertan bi familia bizi izan dira, hari eta, 1995ean etxe berriak egin behar zituztela eta, etxea bota zuten arte. 1925. urtearen bueltan, F. Arana Navarro eta J. Barandiaran Imaz senar-emazteek etxea erosi zioten bertan bizi zen apaizari, 13.000 pezetan (78, 12€). Senarra ofizioz arotza zen, eta etxean eraiki zuen aroztegia lan egiten zuen; besteren artean, hilkutzak egitea zen bere zeregina. Etxea erosi eta bertan bizitzen jarri zirenean emazteak ardo-salmentaren negozioari ekin bazion ere, berehala taberna eta janari-denda ireki behar izan zituzten. Taberna Arana-enea, Fermiñone eta Naparrane ere esan izan diote.

Denda Berri		1903ean ireki eta 1950ean itxi zen	Ardoa eta pattarra saltzeko baimena eskatu zion Udalari B. Ezkurdia Munduatek, eta udalak berehala onartu zion eskaera. Urte batzuk igaro ostean, negozioa eskualdatu egin zuten, eta ardura S. Aierdi eta J. Aierdi senar-emazteek hartu zuten. Gero, herritik kanpora joan ziren bizitzera, eta, orduz geroztik, taberna itxita dago.
Rafaelenea	Zapateri zahar-etxea Arrondo	1925	XVIII. mendean zapatagilearen denda zegoelako datorkio etxeari izena. 1786. urtetik gaur egunera, familia ugari bizi izan dira etxe horretan. Taberna ireki zuen familia, F.A. Barandiaran eta Lazkaoko R. Zubiarena, 1925. urte bueltan joan zen etxe horretara bizitzera; aurrez, beste taberna baten ardura izana zuten. Senarra zapataria zen, eta etxean bertan jarduten zuen; ondorioz, moldatzen zen emazteari laguntzeko. Senarrak Rafael izena zuen, eta hortik datorkio izena tabernari. Gero, urte askoan bilobak jarraitu zuen negozioarekin.
Dupale	Eleizalde etxea San Martin	1930	Denbora gutxi egon zen irekita. Dupale izena berriketaldi batetik zetorkion. Dirudienez garai haietan, Parisko hotel sonatu baten izena zen.
		1958 inguruan ireki eta handik bi urte ingurura itxi	1958an, atzerritar ugari etorri zen gure herrira, eta etxe honetan bizi izan zenak, R. Santibañez Martin jaunak, Bar Benito izeneko taberna ireki zuen, baina handik bi urte ingurura itxi zuen.
Zirkulua	Antonione Azpikoa	1834an ireki eta 1967an itxi zuten	F. Izagirre Peña eta haren emazte A. Otero Berazak taberna izan zuten etxean, eta, 36ko gerraren aurretik, Circulo Tradicionalista y de las JONS erakundea egon zen. Hori zela eta, <i>Zirkulu</i> esaten zioten, eta Ataungo herrian agintzen zuten jauntxoak bertan bildu ohi ziren herriko erabaki politikoak hartzeko. Senar-emazte bikote hori izan zen Erremedioko bainuetxearen azken arduraduna ere. 1942an, senarra hil zenean, emazteak etxea salgai jarri zuen, eta Mantxituko M. Aierbek eta Aldakioko J.A. Goikoetxeak erosi zuten. Itxura denez, senarra nazionalista zenez, aurreko nagusiak ez zion saldu nahi. Horregatik, etxea erosteko, beste pertsona baten bitartekaritza behar izan zuten. Jabe berriak hartu zuenetik, Manuelene izena hartu zuen taberna horrek, eta horko Zirkulua Arrondoko Kamio etxera aldatu zuten. 1956an berriro eskualdatu zen negozioa, eta maizter berriek tabernaz ez ezik janari-denda ere ireki zuten. Momentu hartatik aurrera, Artzane esan izan zaio. Taberna 1967an itxi zuten.

Urbietia	1941		1935ean eraiki zuen M. Altolagirre Arresek garaje hori karroak eta autobusak gordetzeko. Gerora, 1940an, hainbat berrikuntza egin ondoren, P. Munduate eta M. Arruabarrena senar-emazteek alokatu zuten bizitzeko, eta berehala, denda txiki bat ireki zuten. Denetik saltzen zuten. Inbidiak eta ikusi ezinak ugari izaten ziren garai haietan auzotarren artean, eta ireki eta laster, baimenik gabe ardoa saltzen zutelako hiru aldiz salatu zituzten udaltxean. Gauzak horrela, 1941 ean behar zituzten baimenak lortu, eta taberna ireki zuten.
Bitor jatetxea	1935	Auzmendi-enea	1953ko abuztuan izan ziren uholdeek etxearen zati handi bat eraman zuten, eta berritu baten beharrean aurkitu ziren. Baina etxe-jabeak ez zuen dirua gastatzeko gogo handirik, eta, ondorioz, maizterrek etxea erosi, berritu eta negozioarekin jarraitu zuten, hariak eta 1971 urtean eskualdatu zuten artean. J. Rejil eta M. Iturrioz egin ziren tabernaren arduradun orduan, eta, duela ez askora arte, haien esku egon da.
Taberna Berri	1939an ireki eta 1959an itxi zuten.	Ergoiena	Etxe honetako lehen taberna 1935eko urriaren 14an ireki zuen Arizandieta txikiko I. Urbiztondo Maiorak udalari baimena eskatu ondoren. Urte batzuk igarota, 1940an B. Izagirre Mendizabalek eta haren emazte M. Sukia Amundarainek etxea erosi eta taberna eta jatetxea ere ireki zituzten. Nagusiaren izena hartu zuen etxeak, Bitor.
Barberonea	1959an ireki eta 1994ean itxi	Astigarraga	Ergoiena auzoko Arbelditxo (Aministrazio) etxean zegoen taberna itxi zenean ireki zuen B. Begiristainek, eta 1959ra arte auzoko taberna bakarra izan zen.
		Antonea Astigarraga	VIII. mendeko etxe horri <i>Zirujauarena</i> ere esan izan diote. Taberna E. Urrestarazu eta M. Munduate senar-emazteek ireki zuten. Bertako semeak ziren Jose eta Jazinto txirindulari sonatuak.
Lizarrustiko taberna	XX. mendearen erdialdetik hona	Lizarrusti	Taberna egon zela aipatu behar dugu. Baimen eskaera noiz egin zuten ez dakigun arren.
			M. Auzmendi Dorransoro eta haren gurasoek ireki zuten Lizarrustin taberna, lehena ezkondu zenean. Tabernak ez zuela asko ematen eta, M. Auzmendi San Gregoriara jaitsi zen bere senar eta ondorengoekin, baina taberna irekita eduki zuten; amak eta ahizpek jarraitu zuten martxarekin. Gerora, ahizpak eta gurasoak Tolosara joan ziren bizitzera. Halere, M.k hainbat urtez jarraitu zuen tabernaren martxarekin; hori bai, udan bakarrik.

1953an, *Lujo* izeneko zerga bat ezarri zien Ataungo Udalak, urteko 500 pezetakoa. Zerga haren helburua zen herrira sartzen ziren produktuak kontrolpean izatea. Horretarako, alondegian aurkeztu behar zituzten salgaiak: ardo, berrnut, aguardient, garagardo likore, gaileta eta kontserba guztiak⁷⁷. Hala egin ezean, legez kanpokotzat hartuko baitzituzten eta zigorra ezarri tabernetako arduradunei. Hona hemen orduko tabernak:

- F. Arana Navarro	Txomiñonea
- J. Galparsoro Zeberio	Miraballes
- M. Aierbe Otaegi	Manuelene
- B. Izagirre Mendizabal	Biktorrenea
- R. Zubiaren Alarguna (emakumea)	Rafalenea
- F. Albizu Barandiaran (emakumea)	Estanko
- T. Arrese Imaz	Sutegi
- B. Jauregi Begiristain (emakumea)	Kaxeta
- J. Apalategi Barandiaran (emakumea)	Ezkurdiategi

77. AUA, 422-09

Teileriak

Teilagile ofizioa aspaldikoa da Ataunen. 1511n Valmedianoko markesak eta udalak erdibana zituzten errotak zirela-eta sinaturiko hitzarmen batean, esaterako, herritarren ordezkari gisa teilagile bat ageri da. Lehen teila-lantegiari buruzko aipuak ere XVI. mendekoak dira, 1564koak, hain zuzen ere. Itxura denez, ordurako martxan zegoen Lauztierrekako teileria, XIX. mendera arte iraun zuena.

Teileria haren jabetza hasiera batean udalarena zen, baina, beste instalazio batzuekin gertatu bezala, 1800. urtetik aurrera, udala diru-beharrean suertatu zenean, jabegoa esku partikularretara igaro zen. 1892an, irabaziak baino galera gehiago sortzen zizkiola eta, udalak teileria saltzea erabaki zuen. Ez zen izan, ordea, Ataunen egon zen mota hartako instalazio bakarra. Beste lau ere ageri dira dokumentuetan: Aiesondo⁷⁸, Teileria Erdikoa, Telletxea eta Teileria Azpikoa.

Teileria haien jabegoa udalarena izan zen XIX. mendera arte, baina gestioa enkantera ateratzen zuten. Maizterrek hainbat urterako hitzarmenak sinatzen zituzten, eta beraiek aurkitu behar izaten zituzten lantegiko lanak egingo zituztenak. Teila zein adreiluak egiteko, buztina aurkitu behar izaten zen lehenbizi, eta, ondoren, hura prestatu, hau da, forma eman, gero labean egosteko. Lan haietan, ataundarren batzuk ibili baziren ere, gutxiengoa izan ziren; gehienak Lapurditik (batez ere Larresorotik), Nafarroatik eta Goierriko herrietatik etorri ohi ziren (Ormaiztegi, Segura...). Labeak martxan jartzeko, egurra behar izaten zen. Lan horretan, basogintzan, alegia, bai, ataundarrak aritu ohi ziren. Baita ikuskari lanetan ere. Izan ere, adreilu eta teila labekadak egosi ondoren, horien kalitatea kontrolatu behar izaten zen.

Lanak urte-sasoia ren arabera banatzen zituzten. Basolanak neguan egiten zituzten, eta, teilak eta adreiluak egiteko lan gehienak aire librean egin behar izaten zirenez, udaberri-uda partean jarduten zuten horretan. Lokatza neguan ateratzen zuten basotik, eta ondoren udaberrira arte biguntzen uzten zuten, putzu handi batzuetan, gero masa egiteko

78. AUA, 191-11

eta urarekin nahastu eta biguntzeko. Jarraian, teila edo adreilu forma ematen zieten, eta lehortzen utzi, gero udan labean egosteko. Prozesua amaitzeko, udazkenean ikuskatzaileak udan egindako piezak aztertzen zituen, saltzeko balio ote zuten kontrolatzeko.

Telefonia

Erkidegoko beste herri batzuk bezala, XX. mendearen hasieran Ataunek ere herrian telefono zerbitzua ipintzeko interesa agertu zuen. Horrela, bada, udalak 1908ko abenduan Foru Aldundiari udaletxeko gela bat eskaini zion zerbitzua martxan jar zezan, baina 1910ean oraindik erabaki gabe zegoen non jarri eta nor izango zen arduraduna.

Erabakia hartzeko prozesua motela zen, eta hiri-batzarrak alkateari eskubidea eman zion berak erabakitzeko telefonia non jarri, bertan beharko ziren tresnak prestatzeko (argia, aulkia, mahaia...), eta, idazkaririk ez zegoenez, zerbitzuaz arduratuko zen norbait kontratatzeaz arduratuko zen. Telefonoaren arduradunak eguneko pezeta bateko soldata kobratuko zuen.

Esan daiteke telefono-zerbitzuaren ardura, bereziki, emakumeen esku egon zela. 1912an, San Martinen lehen telefono-lokutorioa jarri zutenean, lehen arduraduna, udalak aho batez erabakita, emakumea izan zen, M. Altolagirre Arrese. Horrek eguneko 0,50 zentimo kobratzen zituen, eta pentsa gauzak nola ziren, telefonoz hitz egin edo telegrama bat bidaltzen zuenak 0,10 zentimo ordaindu behar zituen. Arduradun hari 1920an erreleboa hartu ziona ere emakumea izan zen, M. Arratibel Barandiaran. Aurrekoaren soldata bera ipini zioten, baina horrek, telefono deiez gain, mezuak eta telegramak etxeetara banatu behar zituen.

San Gregorioko lokutorioa 1919an ireki zen, eta hasieran zerbitzua kudeatzeko ardura, Pildainek, auzoko organo-joleak izan zuen arren, esku egun batzuk J. Odriozolaren esku egon ondoren, 1922an emakume batek, M. Arratibel Barandiaranek, hartu zuen eginkizunaren ardura. 1938an ere beste emakume batek G. Arratibel Dorronsorok hartu zuen bere gain telefono zerbitzuaren kudeaketa. 1965ean hasierako kokalekutik mugitu eta Elizpe etxera mugitu zuten, eta beste emakume batek, N. Lasa Galparsorok, hainbat urtez izan zuen zerbitzuaren ardura.

1920an, Arrondon, Kamio etxean Aurrezki Kutxaren bulegoa ireki zutenean, bertan zeuden mikeleteek auzorako beste lokutorio bat eskatu zuten, baita lortu ere. Haren arduradun eta ordezkoi, emakume bana izen-

datu zituzten, J. Urrestarazu eta T. Aiestaran. Aiestaranek deien ardura izateaz gain, mezuak eta telegramak ere banatzen zituen. Eguneko, 0,40 zentimoko soldata egokitu zitzaien, eta bien artean banatzen zuten.

Aiara beranduago iritsi zen telefonoa; 1926an eman zuten auzoan lokutorioa jartzeko baimena. Horretarako, udalak 60 poste ipini behar izan zituen, San Martindik gora linea eramateko. Udalak esan zuen poste haiek kokatu ziren lekuaren zergarik ez zuela kobratuko, baina, hama-zazpi posteak Infantadoko Dukearen jabetzako lurretan jarri zirenez, Joaquin Arteaga dukeari urteko pezeta bat ordaindu behar izaten zieten posteko.

San Martinen hainbat eraikinetan egon zen lokutorioa. Aurrez aipatutakoez gain, Taberna Etxeberrin eta Antonione Garakon ere egon zen. Azkenaren ardura ere emakume batek izan zuen, T. Munduate Lasak, 1942tik 1959an hil zen arte.

Ergoienan, berriz, 1948an jarri zuten lehen lokutorioa eta bertako takillan bildutako diruaren %20 J.A. Apalategi Garmendia arduradunarentzat izaten zen⁷⁹. Gerora, 1959an, hemen ere emakumea izendatu zuten arduradun, P. Etxeberria Munduate.

1976an, Telefonikak bere sistema aldatu zuen, eta orain ezagutzen ditugun telefono "automatikoak" edo finkoak ipini zituen herrian. Ondorioz, lokutorioak desagertu egin ziren.

Maria Sukia Izaskunek kontaktu digunez, Troskaeta tabernan izan zuten telefonoa markagailuarekin eta familia batzuetako jendea joaten zen deitzera, beraien etxean ez zutelako. Markagailuak deia hasten zenetik amaitu arte igarotzen zen denbora kontaktzen zuen eta gero, horren araberakoa izaten zen deiaren kostua. Mariak dioenez, bezero batzuk kexatu ere egiten omen ziren prezioa garesti irudituta. Izan ere, batzuei hizketan ari zirela denbora airean pasatzen omen zitzaien, eta gero berari esaten omen zioten kobratzeko garaian nahastu egin zela; beraiek ez zutela hainbeste denbora pasatu telefonoz hizketan.

79. AUA 422-1

TESTIGANTZAK

**Maria Sukia Izaskun
eta
Aitor Aldasoro Sukia
(Troskaeta, San Martin)**



MARIA SUKIA

Zer negozio izan duzu? Eta zenbat denboran eduki zenuen irekita?

Aurrena taberna ireki nuen, orain Troskaeta dagoen tokian; Aizkoate zuen izena. 24 urte nituela ireki nuen, orain dela 61 urte (1957an). Urte batzuk (6-8 bat urte) irekita eduki ondoren, Beasainen bodegoia ireki genuen, baina hemengo taberna ez genuen sekula utzi; ahizpak-eta egoten ziren.

Taberna zuk ireki zenuen, eta zu egoten zinen lanean?

Bai, nik ireki nuen, eta ni egoten nintzen lanean. Garai hartan bakarra nahikoa zen. Halere, beharra zegoenean ahizpek ere laguntzen zidaten.

Zein bezero mota izaten zen garai hartan?

Denetik; bai gizon eta bai emakume. Ireki zuenean emakumeak ibil-tzen ziren tabernan; hori bai, ez orain bezala. Orduan bazkaritara, afaritara edo gizonarekin kafea hartzera joaten ziren, beraiek bakarrik ez. Bakarrik neskaren batzuk joaten ziren, nire lagunak... Ez zen orain bezala, oso dife-rentea zen.

Jendeak zer edaten zuen?

Garai hartan txikiteoa izaten zen, ardoa. Goizean, 06:30etako mezaren ondoren, anisa edaten zuten; kopa anisa ogiarekin. Goizeko garai haietan, gizonetzkoak joaten ziren gehiena, emakumeak gutxi. Eguerdian jendea salda hartzera joaten zen.

Gauean tabernetan ibiltzeko ohiturarik ba al zen?

Bai, orain bezala gau osoan ez, baina jendea berandura arte ibiltzen zen.

Musikarik edukitzen zenuten?

Ez, garai hartan irratia izaten zen, beste musikarik ez.

Beasaindik berriro Atauna bueltatu zinen.

Bai, eta orduan, taberna zen lekuan denda ipini genuen.

Dendan zer saltzen zenuten?

Komertzioko gauza guztiak: fruta, jatekoak, ogia, ardoa barriketan edo zahagietan, arropak, josteko materialak (josteko/puntua egiteko hariak nahiz orratzak...), dantzarako gauzak (gerriko eta txapel gorriak), alpargatak, zapatilak, baloiak...

Jendeak nola egiten zituen erosketak, egunean egunekoa edo aste osokoak?

Baserritarrak astoekin jaisten ziren, eta haiek erosketa handiak egiten zituzten, baina gainerakoan, herritarrek egunean egunekoa erosten zuten. Ordurako autoak baziren herrian, baina hainbat baserritakoek asto edo zaldiekin etortzeko ohitura zuten.

Aitor: denda atarian uztaiak egoten ziren, eta han lotzen zituzten asto eta mandoak.

Dendaren ondotik berriro taberna ireki zenuen.

Beasaindik etorritakoan Troskaeta ondoko etxea erosi genuen, eta han jarri ginen bizitzen. Hortaz, lokal batean denda (orain taberna dagoen tokian) eta bestean arrandegia izan genuen. Hasieran dendaz gain, aitak Calahorratik fruta ekartzen zuen dendan bertan saltzeko eta beste denda batzuetarako, baita etxez etxe saltzeko ere. Arrandegia ireki genuenean, senarrak etxez etxe fruta saltzeari utzi, eta arraina saltzen hasi zen; gehienbat Aia eta San Gregorio aldera joaten zen arraina saltzera, baserrietara, Mandubi aldera, Zaldibiara.... Bisigu pila bat saltzen zen.

Gero denda itxi eta tabernarekin bakarrik geratu ginen.

Zein arrain saltzen ziren gehien?

Maruka (bakailao freskoa), perlita, txipiroiak, bisigua, legatza, *peskadilla* txikia, sardinak, antxoak, angulak... Legatzak orduan diru asko balio izaten

zuen, arrainik garestienetakoia zen. Bisigua orain baino askoz merkeagoa zen. Angulak garai haietan baldeka izaten ziren, asko.

Nola moldatzen zinen denda, taberna eta umeak denak aurrera ateratzeko?

Laguntza izaten nuen, neska batzuk izan nituen arrandegian laguntzeko, umeak zaintzeko... Eta, gainerantzean, gauari orduak kenduta. Semeek ere, koxkortu ahala, laguntzen zidaten.

Gero, berriro, taberna ireki zenuen. Aurrekoarekin alderatuta, aldaketarik sumatu zenuen?

Arrandegia zegoen tokian tabernako sukaldea ipini genuen, eta denda beste lokal batera pasatu genuen.

1983an ireki genuen, eta ordurako gauzak asko zeuden aldatuta; bai jendea, jendearen ohiturak eta generoak ere bai. Goizeko seietako mezarik ez zen jada, eta horrekin goizean anisa hartzera joateko ohitura ere galdu zen.

Aitor: Gogoratzen naiz 1983an Troskaeta ireki zenean, goizeko hamaikak ingurura arte ez zela taberna zabaltzen. Ordura arte, ama dendan egoten zen lanean, eta 11:00etarako taberna prestatzen zuen irekitzeko.

Maria: Orain adinako pintxorik ez zen izango, baina izaten genituen: entsaladillak, *antxoillak*, mondejua, odolkia, txorizoa...

Taberna zaharrean, irratia edukitzen genuen; berrian, jada telebista eta musika jartzeko ere prestatuta zegoen.

Bigarren aldi hartan, taberna bakarrik izan zenuen?

Aitor: Ez, tabernaz gain, jangela ere izan genuen, eta lan asko izaten zen, gainera.

Maria: Lan asko izaten zen bai. Tabernan ez zen orain adinako lanik izaten, orduan otorduak ematen lan egiten zen.

Zer menu izaten zen?

Haragi edo arrain-zopak, entsaladak, txipiroiak, tripakiak, albondigak, bakailaoa, arrain frijitua (legatza...)... Asteaz zehar babarrunak edo eltzeoak, xerrak, haragi egosia tomatearekin...

Mondejuak etxean bertan egiten genituen. Pilarikak aldera hasten ginen ematen, eta Erregeenak pasa ondorenera arte aritzen ginen. Kanpotik jende asko etortzen zen mondejuak jatera: Goierriko herrietatik, Donostia aldetik... Egun horietan menua mondeju zopak, mondejua, ardiki-gisatua eta saiheskiak erreta izaten ziren.

Amarengandik semearenganako aldaketa nola izan zen, elkarrekin hasi zineten lanean?

Maria: Gaixoaldi bat izan nuen, eta orduan negozioa eskualdatu egin genuen. Neska batek hartu zuen negozioaren ardura, eta hark utzi zuenean hasi ziren Marijo-eta.

Aitor: Gu sartu ginen... beno hasi Marijo hasi zen, eta ni handik urtebetera edo hasi nintzen.

AITOR ALDASORO

Umetako Troskaeta hartatik oraingora, aldaketa handia sumatzen duzu?

Ikaragarria. Guk hartu genuenetik hona ere asko aldatu da. Iluntzetan jokorako ohiturarik orain, esaterako, ez dago; lehen, tabernako mahaiak beteta egoten ziren jokoan ari zen jendearekin, beraien botila-ardoak hartu eta... Orain hori erabat desagertu da.

Orain goizean hasten da jendea. Zortzietan irekitzen dugu, eta jendea kafea hartzera etortzen da; gurasoak umeak eskolan utzi ondoren...

Maria: Lehen umeak eskolan utzi ondoren amak ez ziren kafea hartzera etortzen.

Aitor: Beste era bateko tabernak dira, musika aldetik, kontsumo-ohiturak... Garai batean, ardoa edaten zen gehiena; orain, zerbeza, freskagarriak...

Maria: Lehen txikiteoan ibiltzen zen jendea, baina hori ia galtzen ari da. Gaztea ez da hasten horrela.

Aitor: Gazteak ohitura oso gutxi dauka astean zehar ateratzeko. Oste-gun iluntzean hasten da jendea ateratzen, lehen egunero ateratzen zen. Kontsumoa ere asko aldatu da, bai kantitatean eta bai zer edaten den ere.

Musika aldetik ere asko aldatu da. Lehen musikari ez zieten kasurik egingo; han egongo ziren beraien artean kontu kontari, bertsoak kantatzen... Gaur egun ordea, musika behar da; musikarik ez badago, taberna batean sartzeak atzeraka egiten du. Telebista ere ahalik eta pantaila handienekoa

eskatzen da futbol-partidak ikusteko; hori sakratua da. Hori zure garaian [amari] ez zegoen.

Maria: Pilota-partidak bai, baina irratitik entzuten ziren, baina taberna ez zen horretarako. Jendeari askotan irratiak molestatu egiten zion.

Ataundarren tabernara joateko ohiturak asko aldatu al dira?

Guk taberna hartu genuen garaian gauzez lan asko egiten genuen. Hori orain dela 5-6 urte arte; ostiral-larunbat gauetan goizeko bostak arte egon zitezkeen jende pila batekin. Orain jendea gehiago ateratzen da egunez. Alkoholemia kontrolak ere egoten dira...

Orain musika zuzenean ere izaten duzue ez?

Bai, baina hori gauza berria da. Amaren garaian bertsolariak, inoiz soinu-joleren bat egongo ziren...

Maria: Kuadrilla batzuek beraien soinujolea ekartzen zuten, eta kuadrillan kalean gora eta behera ibiliko ziren, baina guk ez genuen musikaririk jartzen.

Migel Mari Jauregi Apalategi (Kaxeta Etxea, Aia)

Zein negozio izan zen zuen etxean?

Taberna eta denda izan zen. Garai bateko tabernak ez baitziren tabernak bakarrik, *taskak* edo... Dendaz gain, pentsua ere saltzen genuen, baita ardoa eta txerriak eta; bai etxerako hiltzeko eta bai San Martingo harategiei saltzeko.

Gogoan duzu noiz ireki zen zuen etxeko denda-taberna?

Gure aitonak ireki zuen taberna. Ezkondu zirenean egin zuten etxea, 1900. urtearen bueltan, baina aurrez ere ba omen zen zerbait bertan eta horregatik du *Kaxeta* izena. Etxea egitearekin batera, taberna eta denda ipini zituzten, jaten ere ematen zuten, inguruko baserritarrei pentsua saldu...

Zenbat urtez egon zen irekita?

2000. urtean itxi genuen.

Zuk bertan lan egin zenuen?

Bai, 16 urterekin eskola utzi eta gurasoei laguntzen hasi nintzen. Arreba etxera ezkondata zegoen, eta bion artean —hasieran gurasoek ere bai— eramaten genuen negozioa.

Zu lanean hasi zinenetik, denda itxi zenuten arte, gauzak asko aldatuko ziren, ezta?

Bai, tabernan agian ez, baina dendan bai, asko. Garai batean, ni mutikoa nintzela, baserritar denek bertan egiten zituzten erosketak; ez ziren kanpora joaten. 1990eko hamarkadaren bueltan Eroski ireki zuten, gero BM ere bai, Carrefour ... eta hor jada erabat aldatu zen egoera denda txikientzat. Taberna eduki genuen bitartean eutsi genion dendari ere baina...



Zer saltzen zenuten?

Garai batean denetik edukitzen genuen, denda txikia zen baina aukera handikoa: janariak, alpargatak, xaboiak, aspirinak, tabakoa... Garai haietan normala zen horrelako dendetan denetik saltzea.

Nongo bezeroak izaten zenituzten?

Normalean Aiako jendea etortzen zen, eta Ergoienekoak ere bai. Horrez gain, urte batzuetan geu ibili ginen furgoneta hartu eta etxeetara pentsuak eta erosketak eramaten.

Nola funtzionatzen zuen furgoneta zerbitzuak?

Batzuk etxera deitzen ziguten zer behar zuten, eta gero guk etxera eramaten genizkien produktuak. Eta, horrez gain, bagenituen bi egun banaketak egiteko; furgonetan denetik zerbait hartu, eta auzoan barrena ibiltzen ginen.

Ostatua, edo lo-lekua, ere eskaintzen omen zenuten.

Lo-lekuarekin ni juxtu-juxtu gogoratzen naiz. Ni umea nintzela basoan jende askok egiten zuen lan, eta kanpotik etorriak zirenen batzuk geratzen ziren gure etxean. Ez zen ostatu handia, logela bat edo bi eskaintzen ziren horretarako.

Zein izaten zen dendako egunerokoa?

Normalean, 08:00 aldera jaikitzen ginenean irekitzen genuen taberna, beti ez zen jendea egoten. Ama eta arreba tabernaz arduratzen ziren etxeko lanak egiten zituzten bitartean, eta aita eta ni animalien lanez, banaketaz... Asteburuetan ibiltzen zen tabernan jende gehien.

Zer kontsumitzen zuen jendeak?

Garai batean baserrietako jendea esnearekin jaisten zen, kamioia ez zelako baserrietara joaten, eta gure etxean husten zituzten marmitak. Goizetan egiten zuten hori, eta baserritarrek kafea anisarekin edo uxualarekin eta gailetekin hartzen zuten, 06:00-06:30 aldera. Hori orain ez da imajinatu ere egiten. Gainerantzean ardoa orain baino gehiago edaten zen; orain, garagardoa gehiago edaten da.

Janari dagokionez, etxean egiten zen genero asko izaten zen. Txerria hildakoan odolkiak eta txorizoak egiten genituen, ardia hildakoan mondejuak... Tabernara zetozen bezeroentzat egiten ziren, baina gero osasun arloko ikuskaritzak sartu ziren, eta gauzak zorrotzu; orain ezin da etxean txerririk edo ardirik hil lehen bezala.

Ataun eta ataundarren ohiturak asko aldatu dira azken urteetan?

Bai. Lehen jendea asteburuetan herrian geratzen zen, eta orain gazteak asko ateratzen dira. Oporrak iritsitakoan ere, baserritarrak fabriketan oporrak hartu arren, bertan geratzen ziren, baserrian belarretan-eta lana izaten zutelako; orain, ahal dela, kanpora joaten da jendea oporretan.

Baserrietan ere orain oso jende gutxi bizi da. Aian, esaterako, ni eskolara joaten nintzanean 55 bat neska-mutil joaten ginen, eta auzoan 350 bat lagun ginen. Orain ez gara 100era ere iristen; 90 lagun inguru bizi gara Aian; eta umeak, oso gutxi. Horrek ez du esan nahi auzotarrak kanpora joan direla bakarrik. Baserrietan, askotan, mutilzaharrak gelditu ziren, eta hortik ez dago etorkizunik.

Maitane Aizpuru Urrestarazu (Errotaundi, San Martin)



Zein denda daukazu?

Errotaundi dendan lan egiten dut. Janaria eta ogia saltzen dugu; ogi batzuk bertan erretzen ditugu.

Noiz ireki zen zuen denda?

Denda horretan nire aurretik Arantxa Arretxe egon zen, eta duela bederatzi bat urte ireki zuen. Berez, oraingo eraikina dagoen tokian, aurrez etxe zahar bat zegoen, eta bertan zegoen okindegian lan egiten zuen Arantxak. Gero, etxea bota zuten berria egiteko eta okindegia udaletxe ondoko lokalera pasatu zen.

Arantxak okindegia ireki zuenean, Artzane izeneko denda bat zeukan alboan. Bertan denetik saltzen zuten (janaria, mertzeriako gauzak, alpargatak...), eta une hartan nagusiak denda itxi, eta sobratu zitzaion generoa Arantxak hartu zion. Produktuak saldu egiten zirela ikusi zuenez, eraikin berrira pasatu zenean, ogia eta generoarekin pasatu zen. Eta nik duela bederatzi urte ezagutu nuen denda hori zen.

Zer saltzen duzue zuek?

Drogeriari eutsi diogu, baina josteko hariak, alpargatak eta gauza horiek ez ditugu, jada ez baitira saltzen. Lehen bai, baina orain ia ez. Ni umea nintzenean erosketak egitera ez ginen ondoko herrietara joaten, eta orduan herrian saltzen ziren gauza haiek. Guk ohiko drogeria dugu, xaboiak eta...

Herriko jendeak badauka herrian kontsumitzeko ohiturarik?

Bederatzi urte honetan nik ez dut aldaketa handirik nabaritu. Jendeak erosketarik handienak supermerkatuetan egiten ditu, eta gure denda ahaztutako gauzak erosteko da. Jende erretiratuak erosketak gehiago egiten ditu herrian; fruta-eta erosten dute, baina gazteek gutxiago.

Dendan zu bakarrik moldatzen zara?

Koinatarekin lan egiten dut, bazkideak gara. Bakarrik ezin dugu lan egin. Lokala *Errotaundirena* denez, behartuta gaude haren produktuak saltzera, eta ondorioz, urteko egun guztietan ireki behar dugu denda. Beraz, bakarrik moldatzea ezinezkoa da; bestela, egunero lan egin beharko genuke, eta hori ezinezkoa da.

Zer moduzkoa da herrian lan egitea?

Oso ona, loteria tokatzea bezalakoa da. Ez daukat autorik hartu beharrik; egunero errepidean ibili beharra izugarria da. Beraz, herrian lan egin, eta gutxiago irabazteak konpentsatu egiten du. Bi soldatatxo ateratzen ditugu, eta zoriontsu gara.

Iñaxi Maiza Arratibel (Lizarburu baserria)

Zein denda daukazu?

Erauskin harategia. Izen ofiziala hori badu ere, beti *Julianene* esan izan diote.

Noiz hasi zinen lanean? Zein lan egiten zenituen?

Neskame etorri nintzen hasieran, etxeko lanak egitera, 21 urterekin. Urtebetera, etxeko semearekin harremana hasi nuen, eta haren aitak harategian hasteko lanean esan zidan.

Hasiera batean, atzeko lanak egiten nituen: txekorrak txikitu eta beste. Baina Julianek ni mostradorera joatea nahi izaten zuen, eta ni lotsatu egiten nintzen.



Noiz ireki zen zuen harategia?

Ni 1984an hasi nintzen bertan lanean, baina harategia lehenagotik zegoen irekita.

1947an egin zen orain harategia dagoen etxea, baina aurrez Iztatorren izan zuten denda Julian eta Anttoni senar-emazteek.

Etxeko produktuak saltzen dituzue?

Ni ezagututa nago, orain bizi garen etxeko ganbara lehortzen jarritako urdaiazpikoz beteta. Orduan eguraldiak ere beste *sanidade* bat zuen, gerora eguraldia ere aldatu eta euli gehiago inguratzen hasi zen, eta urdaiazpikoak etxean egiteari utzi zitzaion. Izan ere, euliek urdaiazpikoan kaka egiten zuten, arrak sortzen ziren eta barrura sartu. Ondorioz, urdaiazpikoak mindu egiten ziren, ez ziren ondo lehortzen...

Zer saltzen duzue?

Txekorra, txerria... Etxean egindako odolki, mondeju eta txorizoak ere bai, etxeko generoarekin.

Asko aldatu al dira ataundarren erosteko ohiturak?

Gogoan dut garai batean goizean bederatziak aurretik irekitzen zela harategia, eta gurasoak, umeak eskolan utzi, eta beherakoan sartzen ziren bazkaria prestatzeko egostekoa eta gisatzekoa erostera. 34 urte daramatzat harategian, eta asko aldatu da. Gaur egungo gazteek eltzeko oso gutxi prestatzen dute.

Gaur egun York urdaiazpikoa, indioilarra eta momentuan frijitzekoak erosten dira asko (oilasko bularra, solomoa...), baina albondigak egiteko haragi-xehaturik jada ez da saltzen kasik.

Tarteka haragiari lotuta sortzen diren gaixotasunek ba al dute eraginik salmentan?

Behi eroen gaitza izan zenean, bagenuen beldurra horrek salmentan eragingo ote zigun, eta, jendeak bertako haragia saltzen genuela jakin arren, Eusko Labelean sartu ginen; horrek salbatu gintuen pixka bat. Gero ahaztu zen, baina beti sortzen da gaitzen bat; gauza asko dago manipulatu.

Zuk bakarrik lan egiten duzu, edo nola moldatzen zara?

Gizona aurtengo (2018) maiatzean erretiratu zen, eta ni ari naiz martxa eramaten; seme gazteena ere orain ari da ikasten. Mondejuak-eta egin behar ditudanean ere laguntza izaten dut; batek bakarrik egiteko oso lan astuna da; denbora asko behar da.

Jendearen erosteko ohiturak aldatzen ari dira? Jendeak herrian erosteko ohitura gutxiago du orain?

Bai, batez ere gazteengan. Ni saiatzen naiz jendeak herrian kontsumi dezan bultzatzera. Hori bultzatu beharrean gaude; bestela, ez dakit zertan amaituko dugun.

Kontsumo ohiturak ere aldatuko ziren, ezta?

Lehen oilaskoa osorik saltzen zen; orain, berriz, zatika. Duela zortzi bat urtetik hona, oilaskoa txikituta gehiago saltzen da. Erabat aldatu da. Lehen gisatzekoa barra-barra saltzen zen, orain ez; orain plantxan egiteko gaiak saltzen dira.

Lehen barru gaiak gehiago saltzen ziren; orain gibela bakarrik saltzen da.

Iñaki Galparsoro

Zein negozio daukazu?

San Gregorioko Sutegi taberna-denda. Taberna zerbitzuaz gain, eguneroan beharrezko diren produktuak ere saltzen ditugu: ogia, egunkaria, esnea, haragi pixka bat, olioia...

Noiz ireki zenuten?

Guk 2003an, baina aurrez, hamabost urtez emaztearen amak izan zuen tabernaren ardura, Pepi Aizpuruak.

Auzoan dagoen komertzio bakarra zarete gaur egun.

Bai. Guk taberna berritu eta ireki genuenean, Artillazpiko dendako arduraduna erretiratzekotan zegoenez, bertan saltzen ziren hainbat produktu saltzen hasi ginen.

Irekita duzuen urteetan asko aldatu al dira jendearen ohiturak?

Jendearen ohiturak aldatu baino gehiago, jendea hil egin dela esango nuke. Lehen hamabi bat gizon elkartzen ziren eguerdian ardo batzuk hartzeko, eta poliki-poliki horiek hiltzen ari dira, eta gazteak ez dauka eguerdian tragoa hartzeko ohiturarik, ez eta denborarik ere. Orain hutsune handia sumatzen dut 12:00etatik 14:00ak arteko tarte horretan.

Lokal itxietan erretzeko debekuak ere izango zuen eraginik.

Bai. Lehen jende asko etortzen zen, gehienbat gizonak, kartetan jokatzerara; mahaiak gordetzeko enkargatu eta guzti egiten zuten. Baina barruan erretzea debekatu zutenetik hori asko galdu da. Barruan ezin denez erre, jendeak nahiago du kartetan jokatzerara elkartera joan. Izan ere, bestela, partida batean erretzaileak kanpora atera eta hari itxaron behar diote jokoarekin jarraitzeko. Orain partida oso gutxi jokatzen dira; udaran agian, kanpoko terrazan bai, baina barruan batere ez.

Inazio Garmendia Jauregi (Itsasondo)

Noiz etorri zinen Atauna?

1953an. Arreba hemen bizi nuen; harategia zuen, eta harekin pasatu nituen urte bat edo beste. Gero Donostiara joan nintzen harakin-ofizioa ikastera, eta gero soldadutzara. Handik berriro Atauna bueltatu nintzen.

Soldaduskatik bueltan ireki al zenuen harategia?

Soldaduskatik bueltatu nintzenean, koinatuak esan zidan harategi bat itxekotan zirela Ataunen, nagusiak erretiratu egin behar zuela eta.

Koinatua bidali nuen ea harategia salgai ote zuen galdetzera. Harakinak baiezkoa esan zion, baina niri ez zidala salduko, berari bai, baina niri ez; ez ninduen ezagutzen eta. Txahala hiltzen ari ginen tokira etorri zen koinatua harakinak esan zionaren berri ematera, eta nik esan nion berak hartzeko bere izenean, nik lan egingo nuela eta. Sei hilabete pasatu nituen harategian lanean, tarteka arrebaren laguntzarekin. Sei hilabete pasa zirenean, nagusiak esan zidan lanean ondo ikusten ninduela eta nahi izatera paperak nire izenera pasako zituela, eta hala hasi nintzen.

Nor zen nagusi hura?

Luzio, *Luzio Karnizeroa*. Oso famatua zen herrian, gizon ona zen. Orduan herrian ez zegoen aurrezki-kutxarik, eta Luziok baserritarrei-eta dirua uzten zien. Haiek txahalak hazi eta saltzen zituztenean itzultzen zioten.

Harategiak zein izen zuen? Non zegoen?

Dorronsoronea izena zuen, plazan bertan zegoen. *Dorronsorone etxean* zegoenez, nik ere izena gorde nion.

Zenbat urtez egon zara harategiaren arduradun?

1960. urtean hartu nuen negoziua, eta 2002an itxi arte bertan jardun nuen, erretiratu nintzen artean. Berehala, Beasaingo Montoya etorri zitzaidan berarekin lan egitera joateko eskatzera; lan-eskua behar zuela eta. Hasieran ezetz esan banion ere, azkenean ia bederatzi urte pasatu nituen goizetan berarekin lanean.

Zein ordutegi zenuen harategian?

Astelehenetik igandera irekitzen nuen. 06:30etako mezaren ondorenerako ireki eta egun osoan edukitzen nuen harategia irekita. Orduan ez zegoen orain bezala ordutegirik, eta askotan, denda itxita izan arren, bezeroek etxeko tinbrea jotzen zidaten behar zutena eskatzeko.

Harakin bakarrik jardun zenuen?

Ez, txahalak, txerriak, ardiak eta beste hiltzen ere ibiltzen nintzen baserriz baserri; negu partean, batez ere. 90eko hamarkadaren bueltan dendarako jada ezin genuen etxean hil, baina baserritarrei uzten zieten, haiei erraztasunak ematen zizkieten. Gaur egun, jada ez da etxean animaliarik hiltzen; izan ere, animalia gutxi daude Ataungo baserrietan.

Harategian saltzeko txahalak hiltegiari hiltzen zenituela esan duzu. Ataunen bertan?

Bai, hasieran Ataungo hiltegiari bertan hiltzen genituen, baina hura 1980ko hamarkadaren bueltan itxi zutenez, gero Tolosakoan. Ataungo hiltegia herri barruan zegoen, Bitorrene inguruan.

Zenbat harategi eduki zenituzten aldi berean irekita?

Hiru; Erauskinena, koinatuarena eta nirea. Gero koinatua-eta Lazkaora joan ziren beraien harategia itxita. Baina, handik denbora batera, beste harakin bat etorri zen, eta ni jubilatuta artean hiru harategi egon dira Ataunen. Gero, bi geratu ziren, eta orain bakarra dago; eta, hala ere, lan gutxi dago.

Asko aldatu al dira ataundarren kontsumo ohiturak?

Bai. Orain ez da apenas txahal-haragirik jaten; lehen haragi asko jaten zen. Gure garai honetan, herriko hiru harategien artean, astero 6-7 txahal hil eta saltzen genituen; txahal eta erdi, bi txahal... Bakoitzak. Azken urteetan, ordea, astean txahal erdi bat salduz gero gustura. Barrukiak ere azken urteetan ez dira saltzen, eta lehen, berriz, asko gibela umeentzat, bihotzak... Orain oilaskoa jaten da asko.

Inguruko herrietako denda handiak ere ez zeuden, eta jendea ez zen behera joaten erosketak egitera; herrian erosten zuen. Orain, aldiz, supermerkatu handietan aukera handia dago, eta jendeak hantxe erosten du.

Harategiko generoa bakarrik saltzen zenuen?

Azkenaldera, kontserbak saltzen hasi nintzen, baita etxeko baratzeko tomateak eta letxugak ere. Baserritarren batek babarrunak-edo bazituen, haiek ere saltzen nituen. Oraindik ere etxeko letxugak saltzen jarraitzen dut dendara.

BUKAERAKO OHARRA

Lan honekin Ataunen historian zehar izan diren lanbideen bilduma egin nahi izan dugu. Izan zirenak eta egun direnak gogoan izan. Iraganaren berreraikuntza egiten saiatu gara, orainaldiko datuetatik eta memorietatik abiatuta. Beraz, kontziente gara Ataungo iraganaren eta orainaren bilduma honetan lerro batzuk marraztu gabe utziko genituela. Ziur aipamena merezi duten eta hemen bildu gabe geratu zaizkigun hainbat ogibide, denda, taberna eta lantegi egongo direla. Historia idatzi baten ondoan denboraren poderioz betikotzen edo berritzen den historia bizi bat dagoenez, etorkizunean, norbaitek gai honen inguruan gehiago sakondu nahi balu, bidea irekita uzten dugu.

BIBLIOGRAFIA

Artxiboko erreferentziak


- Gipuzkoako Artxibo Orokorra JD.im.2/12/37
- GAO.JD.IT 3176
- GAO-PT-1890-57
- GAO.PT.1919-409
- GAO-PT. 1916-239
- GAO.PT.1920-329
- GAO.PT.1921-102
- GAO PT.1927
- GAO-PT. 1933 – 197
- GAO.PT-1943, 504
- Ataungo Udal Artxiboa, 003-44, 3
- AUA-004-01
- AUA, 006-05
- AUA, 007-15
- AUA. 039-07
- AUA.039-13
- AUA, 44-09
- AUA, 164-05
- AUA, 185-04
- AUA, 191-11
- AUA-192-07
- AUA, 198-13
- AUA, 199-03
- AUA, 199-09
- AUA, 199-20/25
- AUA, 200-22
- AUA, 200-23
- AUA, 201-02
- AUA, 220-26
- AUA, 299-18
- AUA, 309-04
- AUA, 310-03
- AUA-344-3
- AUA, 366-02
- AUA-399-4
- AUA: 407-3
- AUA, 411-19
- AUA, 411-59
- AUA, 411-64
- AUA, 413-01
- AUA, 416-2 eta 417-1
- AUA 422-1
- AUA, 422-09
- AUA, 433-01
- AUA – 446-44
- AUA, 492-13
- AUA, 498-02
- AUA, 500-02
- AUA, 501-01
- AUA, 502-03
- AUA, 503-01
- AUA, 505-02
- AUA-507-03

Liburuen aipamenak

- **Aranburu Ugartemendia, P.J. (2003):** *Ataungo ogibide historikoak*. Ataungo Udala.
- **Aranzadi (2018):** *Juan Arin Dorronsoro, idazlan bilduma*. II. liburukia. Donostia.
- **Arin Dorronsoro, J. (1961):** *Industrias rurales de Ataun, la del lino y la del carbón*. Donostia. Eusko Folklorearen urtekaria.
- **Etxaniz Makazaga, J. M. (2006):** *De herradores, albéitares y veterinarios municipales de Zumarraga (Gipuzkoa)*. Lankidetzan 39. Donostia. Eusko Ikaskuntza.
- **Garmendia Larrañaga, J. (2007):** *Gremios, oficios y cofradías en el País Vasco*. Donostia. Eusko Ikaskuntza.
- **Olaizola Urbietia, M. (1975):** *Lengo egunak gogoan, Uztapide*. Donostia. Gipuzkoako Foru Aldundia.
- **Rondero Gaitán, P (2010):** Juan Vargas o del oficio de barbero, hacia una microhistoria de los oficios en el Nuevo Reino de Granada del siglo XVII. In *historia y sociedad (s.l.)*, 18, 149-161 or.
- **Torregerai Pagola, E; Aragón Ruano, A. (koord.) (2017):** *Gipuzkoako historiaren sintesia*. Gipuzkoako Foru Aldundia

Webguneak

- www.ahotsak.eus
- www.guregipuzkoa.eus
- www.kutxateka.eus



ISBN: 978-84-16925-11-7



9 788416 925117



Ataungo Udala